



HAURREN HERIOTZA ETA HERIOTZA HAURREKIN ESKOLAN LANTZEN

Antzuolako Herri Eskolak Gehiago Gara ekimenaren aitortza jaso du, hainbat urtean doluaren eta heriotzaren pedagogia lantzeagatik / 02

Senideak galdu dituzten ikasleak eta gurasoak, Antzuolako Herri Eskolan, irakasleekin eta irakasle ohiekin, Gehiago Gara ekimenak emandako sariarekin. XABIER URZELAI

SINADURAK	
	JON KORTABARRIA / 24
	OIHAN VEGA / 8
	IRENE PEREZ ZUMALDE / 28
	ANDER GARAY / 12
	AINZANE OIARBIDE / 40

GABONAK
Honako egun hauetan jasoko dituzue hurrengo aldizkariak:
'2023ko urtekaria': 29an.
'Puntua': urtarrilaren 5ean.
GOIENA: urtarrilaren 12an.

Ondo ibili!

VOLKSWAGEN ID4 ELEKTRIKOA

TEKNOLOGIA ETA ETORKIZUNA

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

Hemen
garbiketak

Ura bezain garbia

T.- 943 71 48 45

Julen Murua Mesonero ANTZUOLA
Antzuolako Herri Eskolak Gehi-ago Gara aitortza jaso du Hil Argi eta Bizipoza elkarteek martxan jarri duten ekimenaren pean. Gehiago Gara ekimenak haurren heriotza eta heriotza hurrekin naturaltasunez eta gizatasunez bizi izatea eta inguru gehienetan egoten den isiltasuna eta ezintasuna bistaraztea eta eraldatzea du helburu, eta 80ko hamarkadatik horren gainean lanean aritzeagatik jaso du Antzuolako Herri Eskolak oroigarria, "hainbat urtean doluaren eta heriotzaren pedagogia lantzeagatik".

Donostiako Cristina Enea Fundazioan egin zuten ekimenaren prentsaurreko-aurkezpena, eta bertan, "ekimenaren manifestua" publiko egin zuten. Ondoren, hauek izan ziren aitortza jaso zuten erakundeak, "beraiek alor horretan egiten duten lanagatik eta erakusten duten jarreragatik": Antzuolako Herri Eskola, Gurutzetako Pediatriako Etxeko Ospitalizazioko Unitatea, Bilbo-Basurtuko ESiko jaiotza-dolurako lan-taldea, Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Oiartzungo Udalak antolatutako Atsolorra Jaia, Tolosako haur liburutegia eta Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (EHU).

Hilerriaren proiektua

Badaramatzate dagoeneko lau hamarkada baino gehiago heriotzaren gaia jorratzen Antzuolako Herri Eskolan, eta urte horietan guztietan hainbat proiektu sortu dituzte gaia jorratzeko. Azkenengo proiektu gisa, etorkizuneko hilerriaren inguruan gogoetatzeko prozesua abiatu zuten maiatzean, Hil Arte Bizi egitasmoarekin eta Antzuolako Udalarekin batera. 4 urteko gelako haurrekin hasi ziren lanean; bizitzaren sorreratik abiatu, eta haurdunaldia ere landu zuten. Tartean, Antzuolako hilerria bisitatu zuten, eta baita etorkizuneko irudikatu ere, nolakoa nahiko luketen marraztuta.

Pozik, harro eta eskertuta

Antzuolako Herri Eskolan jaso duten aitortza urteetan zehar egiten ari diren lanaren erakusle da, eta, horrez gain, Silvia Ezpeleta eskolako zuzendariak dio "heriotzaren inguruko gaiari behar duen tokia ematea eta egunerokotasunean naturaltasunez eta gizatasunez tratatzea"

Antzuolako Herri Eskolak jaso du Gehiago Gara ekimenaren aitortza

"Hainbat urtean doluaren eta heriotzaren pedagogia lantzeagatik" egin diote aitortza Antzuolako Herri Eskolari. Gehiago Gara ekimenaren prentsaurreko-aurkezpenan jaso zuten aitortza eta oroigarria, beste sei erakunderekin batera



Saioa Iturbe Iglesias eta Inge Narbaiza Pavo, Gehiago Gara oroigarria eskuetan dutela, Antzuolako Herri Eskolan. X.U.

eragiten duela, eta, beraz "pozez, harrotasunez eta, batez ere, esker onez" jaso dutela aitortza.

Hamarkadaz hamarkada lanean
80ko hamarkadaz geroztik jorratzen dute gai hori Antzuolan, "heriotza desberdinen gertaka-

LAU HAMARKADA BAINO GEHIAGO DARAMATZATE HERIOTZAREN GAIA JORRATZEN

riek" eraginda. Ordutik gaur egun arte, hainbat heriotza gertatu dira eskolan, eta Ezpeletak dio "kasu bakoitzari erantzuna emateko konpromisoa eta erantzukizuna" izan zutela eta izaten jarraitzen dutela. Eskolako zuzendariak gaineratu du ez da-

goela itxaron beharrik "haurren inguruan heriotza bat gertatu arte", egunerokotasunean landu daitekeen zerbait baita: "Egunerokotasunak aukera ematen digu heriotzari buruz lanketa eta hausnarketa egiteko. Emozio eta sentimenduen lanketa naturak eskaintzen digun edozein elementuk balio du".

Gizartean tabu

Duela lau hamarkada inguru hasi baziren ere, gaur egun ere jarraitzen dute Antzuolako Herri Eskolan heriotzaren gaia gizarteratzen; izan ere, bertan pentsatzen dute "jaiotza eta heriotza eskutik helduta" doazela eta "edozein momentutan edozeini edozein adinetan" gerta dakiokela. Horren harira, eskolan uste dute heriotza bizitzan horren presente dagoen kontu bat izanda "oso gutxi hitz egiten" dela haren inguruan eta kosta egiten dela "norbere bizipenak edota gehien maite dugun pertsonaren heriotzaz hitz egitea"; labur esanda, "tabua" dela.

Heriotza gaur egun

Heriotza bizitzeko modua denboraren poderioz aldatu egin dela diote Antzuolako Herri Eskolan, eta eskola bera erreallitate horretara egokitu dela ere aitortzen dute: "Eskola ez dago erreallitate honetatik aparte. Izan ere, honetaz hitz egiteko eta hausnartzeko gune bilakatzen da eskola. Hezkuntza integrala bilakatzeko eskubidea dute haurrek, ikaslea osotasunean garatzeko, alderdi intelektuala, fisikoa, afektibo-emozionala garatzeko".

Hori dela eta, Ezpeletak dio eskoletan gero eta gehiago hitz egiten dela "heriotzari, jatorri askotariko minei eta mota askotariko galerei buruz", baina, hala ere, "kosta egiten den gaia" dela eta kasu askotan irakasleak ez daudela gai horiek jorratzeko "behar beste gaituta". Gertatzen da erreallitate hori ezkutatu nahi izatea, eta, horren harira, zuzendariak gaia gizarteratzearen alde egiten du: "Erreallitate hauek ezkututzen ditugun momentutik, bizitze bera kontzienteago eta gizatiarrago bihurtzeko aukera ukatzen ari gara haur eta gazteei. Horrela, galderak, kezak eta beldurrak adierazteko eta lantzeko ateak ixten ari gara beraiei".

Bailarako turismo eskaintzarekin lanean

Debagoiengan izan ziren Foru Aldundiko Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako diputatua eta Turismoko zuzendaria, "ezagutzeko eskualdearen erakargarritasun turistiko batzuk eta horien inguruko beharrak eta inguruabarrak"

Julen Murua Mesonero DEBAGOIENA Gipuzkoak "bere osotasunean planteatzen duen turismo-sektorearen inguruko aukeren eta beharren ezagutzan" sakontzeko asmoz, Debagoiengan izan zen Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako foru diputatu Azahara Dominguez, Iñigo Garcia Foru Aldundiko turismoko zuzendariarekin batera, eta bailarako alkateekin eta turismo-ordezkariekin bildu ziren, Debagoieneko industria turistikoaren, haren beharren, jasangarritasunaren zeharkako ardatzaren eta tokiko kulturaren eta tradizioaren gainean hitz egiteko.

Dominguezek adierazi zuen kezkatzen duela garatzen dituzten "jarduera politikoek herri-tarren ongizatean eragina izateak", eta horrek garrantzi handia duela "turismoa bezalako arlo batean". Diputatuak gaineratu zuen "eskualde bakoitzaren indarguneak eta beharrak bertatik bertara ezagutzeko" lan egiten dutela, eta, horretarako, bailarako eragileekin "harreman zuzena" izan behar dutela.

Bailarako ordezkariekin batera Foru Aldundiko kideekin batera izan ziren Gorka Artola Bergarako alkatea, Garikoitz Iturbe



Bailarako ordezkariak Aldundiko kideekin. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Aretxabaletako alkatea, Dorleta Elkorobarrutia Leintz Gatzagako alkatea eta Debagoieneko Mankomunitateko presidentea, Aritz Igeltz Antzuolako alkateordea eta Xabier Igartua Oñatiko Turismo zinegotzia. Gainera, Angel Mari Etxabe Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Ekonomikoko eta Turismoko Batzordeko ordezkari politikoa, Juan Miguel Dorransoro Arantzazuko santutegiko frantziskotar komunitateko zaindaria eta Leire Parra eta Ines Caceres Debagoieneko Turismo tekni-

kariak egon ziren bisitan. Bisita Leintz Gatzagako Gatz Museoan hasi zuten, eta Azahara Dominguezek bertatik bertara ikusi zuen nola lantzen den herri-antzuolako gatzaren ekoizpena. Horren ostean, taldea Arantzazuko santutegira joan zen, Oñatira.

Dominguezek adierazi zuen "turismoko plan estrategiko berri bat lantzen" ari direla, eta plan hori "lurralde osoan enplegua eta aberastasuna modu erakargarri sortzen lagunduko duen eredu antolatu bat sortzeko tresna" izango dela.

Zerbitzu publikoetako langileen greba bailarako zenbait herritan

Grebara deituak izan ziren martitzenean zerbitzu publikoetako langileak; tartean, Debagoienekoak

J.M.M. DEBAGOIENA

Zerbitzu publikoetako langile batzuk greban izan ziren martitzenean Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta, ondorioz, baita Debagoiengan ere. ELA, LAB, CCOO, ESK, SATSE eta Steilas sindikatuek deitu zuten udazkenean zerbitzu publikoetako langileek izan duten bigarren greba eguna, eta, besteak beste, eskaeren artean izan zuten %10eko soldata igoera, pribatizazioei atea ixtea eta publikazio planak adostea, enplegu publikoa sortzea eta finkatzea, eta lan-kargak arintzea.

Udaletan eta udal zerbitzuetan langileen gehiengoak bat egin zuen greba egunarekin zein esku artean zituzten aldarriekin Antzuolan, Arrasaten, Bergaran, Elgetan eta Oñatin. Alabaina, herri horietako batzuetan martxan izan ziren udal zerbitzuetako batzuk. Bergaran, adibidez, zabalik egon zen Labegaraietako kiroledegia eta Udal Pilotalekua; Elgetan, berriz, udaletxeko bulegoak irekita egon ziren eta ludotekan zerbitzu minimoak ezarri zituzten. Oñatin ere gutxienezko zerbitzuetan aritu ziren jardunean: arretra zerbitzua zabalik egon zen, dokumentuen erregistroa egin eta deiak jasotzeko aukera izan zen eta Udal-tzaingoaren zerbitzua ere bermatuta izan zuten herritarrek. Horrez gain, egunerokotasuneko jarduna bete zuten Herribusak, gaztelekuak eta ludotekak, azpikontratak baitira.

Aramaio, Aretxabaleta eta Eskoriatzako udaletako langileek, aldiz, ez zuten bat egin grebarekin, eta, beraz, normaltasunean jardun zuten herri horietako udal zerbitzuek.

Hezkuntzan eragina

Greba eragina izan zuen sektore publikoko esparru ugarian, eta horietako bat izan zen hezkuntzaren esparrua.

Arlo horri dagokionez, Antzuola Herri Eskolan grebak jarraipen "oso txikia" izan zuela adierazi zuten bertako kideek, baina ez zituzten eskolak eman, zaintza zerbitzua soilik eskaini baitzuten. Aramaion irakasleen %60k egin zuen bat grebarekin; Arrasate Herri Eskolan, berriz, ez zuten zenbatekoaren berri eman, baina zerbitzu minimoak izan zituztela jakinarazi zuten, eta, Arrasate BHIri dagokionez, %40k egin zuen bat grebarekin. Bergarako San Martin Agirre ikastetxean ez zuten kontaktarik egin, baina hemen ere zerbitzu minimoak ezarri zituzten, Ipintza BHIin gertatu bezala. Elgetan irakasleen %40k egin zuten bat greba egunarekin, eta zerbitzu minimoak eskaini zituzten han ere; Eskoriatzako Luis Ezeiza Herri Eskolari dagokionez, beharginen %36k babestu zuten greba. Azkenik, Aretxabaletari dagokionez, Kurtzebarri LHN eta Lanbide Eskolan ez zuten grebarik egin, eta Kurtzebarri BHIin, berriz, %55ek egin zuten grebaren alde.

bertako
igogailuak | ascensores

BENETAKO OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

**IGOGAILUEN
MANTENTZE-LANEN
ESKAITZA
ZORROTZENA**

**2.500 bezerok gugan
dute konfiantza**

943 903 450
bertako.eus



Mondragoneko ordezkariak Kursaalean, joan den abenduaren 14an. 'TU LANKIDE'

Mondragon, etorkizunera begira XI. Foroan

Orainari buruzko gogoetak eta etorkizuneko erronkei buruzkoak partekatu zituen Mondragonek Donostiako Kursaalean egin zuen XI. Foroan. 400 bat lagunek hartu zuten parte, eta tartean ziren kooperatibetako presidentek eta gerenteak

Miren Arregi Amasorain ARRASATE *Mondragon etapa berri baten aurrean* izenburupean egin zuen Mondragon Taldeak XI. Foroa joan den asteko egunean, abenduaren 14an. Donostiako Kursaalean elkartu ziren 400 pertsona inguru eta kooperatiben etorkizuneko erronkak izan zituzten berba. Erakundeetako ordezkariak ere izan ziren, hala nola, Eider Mendoza Gipuzkoako ahal-dun nagusia eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen sailburu Arantxa Tapia.

Topaketak Mondragonen etorkizuneko lan-ildoak ezagutarazteko bidea eman zuen eta ekonomia arloko adituen hitzaldiak ere izan ziren. Besteak beste, Viralgeneko CEO eta Columbus Venture Partners funtsaren sortzaile Javier Garcia Corrogok hartu zuten parte foroan, eta matematikari humanista gisa haren ikuspegi eta esperientzia eskaini zituen. Pedro Luis Uriartek, enpresa zuzendari eta ekonomian

adituak, hainbat gomendio eman zizkien Mondragoneko ordezkariari; eta Xabier Marcetek, estrategian, berrikuntzan eta eraldaketan aditua denak, pentsatzearen garrantzia azpimarratu zuen, antolakundeetan lehiakorrak izateko funtsezko faktore gisa.

Oraina eta etorkizuna

Mondragonek berak ere izan zuen egoera ekonomikoaren eta etorkizuneko erronken inguruko hausnarketak partekatuzko tartea. Presidente Inigo Ucinék azaldu zuen negozioek bilakaera positiboa izan dutela eta urtea ondo amaituko dutela. Aurreratu zuen Mondragon "proiektu korala" dela eta "aberastasuna sortzen eta modu justuan banatzen" jarraituko du-

URTEA ONDO AMAITUKO DUTELA AZALDU ZUEN MONDRAGONEKO PRESIDENTEAK

tela. Mondragoneko Gizarte Kudeaketako zuzendari Zigor Ezpeletak, bestalde, Mondragoneko Kontseilu Nagusiak eta Batzorde Iraunkorrak elkarrekin egindako hausnarketa jardunaldien ondorio nagusiak zerrendatu zituen. Sei eremu lantzea zehaztu dute: enpresa proiektu lehiakor eta agertoki berrietara egokitzeko gaitasuna izango dutenak; erantzia; gobernantza aurreratua eta enpresa-demokrazia; pertsona konprometitu erantzunkideak eta legatuaren kontzientzia dutenak; lankidetzak praktika; elkartasun eta lehiakortasun handiagoa; gizarte ausardiaz eta anbizioz eraldatzea eta helburu eta ondare ilusionagarriak. Topaketa bukatzeko, Kongresuko presidente Leire Mugerzak Mondragonen nortasun-ezaugarriak nabarmendu zituen, gizarrean duten eragina handitzeko oinarri gisa. Pello Rodriguez ere egin zion keinu, 2024ko abuztuaren 1etik aurrera Kontseilu Nagusiko presidente izango denari.

Hilabeteen %51tik %67ra igo da Urkuluren betetze-maila

lazko abenduaren 21ean baino 7 puntu gorago dago Urkuluko betetze-maila gaur egun, %67,18an

M.A.A ARETXABALETA

Urkuluren betetze-mailak goranzko bidea daroa eta ur-mailaren igoera nabarmena izan du azaroaren erdialdea ezkerre. Atzo, abenduak 21, %67,18koa zen betetze-maila, eta iazko data berean %60,82koa zen. Esan behar da, halere, 2019, 2020 eta 2021. urteetan, atzoko egunez, %96,50, %92,40 eta %99,26ko betetze-maila zuela Urkuluk, hurrenez hurren. Beraz, urte haiekin alderatuta, urrun dago oraindik ere.

Azaroaren 17an, GOIENAK Urkuluren egoeraren gaineko erreportajea kaleratu zuen. Orduan, urtegiak beste aldi batzuetan baino ur gutxiago zuen, %51,89an zegoen –halere, minimoak ez ziren historikoak–. Urkuluko minimo historikoa 1995eko abenduan erregistratu zen; %47 inguru gelditu zen une batean urtegi. Aurtan ere zenbateko horretatik

gertu izan da betetze-maila, %49,3koa erregistratu baitzen urriaren 25ean.

Abenduan ere gora

Baina iritsi zen euria eta abenduaren lehenerako betetze-mailak gaintutua zuen %59ko datua. Alegia, hamabost egunean %51,89tik %59,12ra igo zen ur-maila. Egun euritsua izan zen azaroko azken eguna. Euskalmeten estazioetako datuen arabera, Urkulun 47,1 litro metro koadroko jaso ziren 24 orduan. Abenduan sartuta, prezipitazio maila ez da gerturatu aipaturiko horretara –euri gehien egin du abenduaren 1ean (15,2 litro metro koadroko), abenduaren 13an (17,4 litro metro koadroko) eta abenduaren 20an (17,1 litro metro koadroko)–; halere, betetze-maila martxa onean ari da egiten gora. %59tik %67,18ra igo baita hiru asteetan.

ARIZMENDI, KOOP. E.AREN BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Arizmendi Koop.E.aren Estatutu Sozialetako 30. artikulua dionari jarraituz, Kontseilu Errektoreak 2023ko abenduaren 14an egindako bilera adostu du Arizmendi Koop.E.aren bazkideak Ohiko Batzar Nagusi honetara deitzea, kooperatibaren interesetarako onuragarria delakoan.

EGUNA: 2024ko urtarrilaren 16a.

LEKUA: Arimazubiko aretoa.

ORDUA: 18:00etan (Lehen deialdia ordu erdi lehenago).

GAI-ZERRENDA

1. Aurreko Batzar Nagusiaren aktaren onespenerako bi bazkide izendatzea.
2. 2022-2023 ekitaldiko zuzendaritza-txostena aurkeztea, eta hala balegokio, onartzea.
3. 2022-2023 ekitaldiko sozietate-kudeaketa eta Urteko Kontuak (Balantzea, Galera eta Irabazien Kontua, Ondare Garbiaren Aldaketen egoera-orka, Diru Fluxuan egoera-orka eta Txostena), baita Kudeaketa-Txostena ere, aztertzea eta, hala balegokio, onartzea.
4. 2022-2023 ekitaldiko emaitzak banatzea.
5. 2022-2023 ekitaldiko Memoria Ez-Finantziarioaren egoera aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
6. 2023-2024 ekitaldirako helburu nagusiak eta aurrekontu ekonomikoa aurkeztea.
7. Kontseilu Soziala berriztatzea.
8. Barne Araudiaren 6. 9. 41. eta 89. artikuluen aldaketa eta berregindako testuaren onarpena. (Txosten arrazoitua esteka honetan: <https://labureus/2324bntxostena> edo ikastolaren egoitza nagusian).
9. Kontseilu Errektorearen ahalizuntza Batzar Nagusian hartutako erabakiak egikaritzeko.
10. Galde-erantzunak.

arizmendi
ikastola

Goretti Maturana Esquibel
Kontseilu Errektoreko Lehendakaria
Arrasate, 2023/12/14

Otalora lizentziaduna, 8 20500 Arrasate.
Telefona 943 77 20 26 Faxa 943 79 79 22 www.arizmendi.eus

Eskola-jangelen eredu berrien alde lanean

'Gure platera gure aukera'-ren baitan dauden eskola, guraso elkarte eta bestelako elkarteak eskola-jantokiaren kudeaketa zentralizatuari alternatibak bilatzen ari dira; bailaran hiru dira: Elgetako Eskola eta Bergarako San Martin Eskola eta Ereindajan

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE
Ikastetxe publikoetako jangelen eredu berria eta sukaldeak erakitzea, horiek eskatu dizkio *Gure platera gure aukera* (GPGA) plataformak Hezkuntza Sailari, beste behin. Urteak daramatza "eskola-jangela osasungarriago, hurbilago eta hezitzaileagoa" lortzeko lanean. Guraso elkarteek, hainbat sindikatuk eta elikaduraren barruan aldaketa sustatzen duten erakundeek osatzen dute. Debagoienean, Elgetako eskola eta Bergarako San Martin Eskola daude egitasmoaren barruan; baita Bergarako Ereindajan ere. 2000 ezker "berritu ez den araudia"



San Martin ikastetxeko eta Ereindajan Bergarako ordezkariak Jaurlaritzan. EREINDAJAN

dago, kudeaketa zuzena deritzon aukera eskaintzen du soilik. Eredu horretan, catering enpresa handiek kudeatzen dituzte ikastetxe publikoetako jangelak.

San Martinen kasuan, badu sukaldea, eta catering enpresak kudeatzen du, baina kudeaketa-eredu alternatiboa izateko eskaera egina du, eta jangela tokiko nahiz sasoiko elikagaiekin hornitzea aldarrikatzen du. Ainhoa Narbaiza Ereindajaneko kidea da eta azaldu du 2021ean aurkeztu zutela eskolak, guraso elkarteak eta Ereindajanek beste planteamendu bat Jaurlaritzan: "San Martin Eskolan ematen ziren baldintzak aldaketa prozesua martxan jartzeko, eta bere unean landutako proiektua aurkeztu genuen. Momentuan jaso genuen erantzuna izan zen araudi osagarria martxan dagoenean baloratuko zela, bitartean ezinongo zela. Hezkuntza Sailetik gutun ofiziala bidali zuten eskolara eta ordutik ofizialki ez da beste erantzunik eman, nik dakidala".

Sukaldea berritzeko eskaera

Elgetako eskolan, berriz, dagoen jantoki-eredua garraiatua da;

janaria eginda jasotzen dute, eta eskolan berotu eta banatzen da: "Oraingo jantokiak ez du sukaldetik. Halere, eskolako azpiko solairuetan dagoen aretoak badiu berritzeko beharra duten sukalde eta jantokia". Hori martxan jarri nahi dute *in-situ* eredura pasatzeko: "Prozesua Eskola Kontseiluan aurkeztu eta onartu da; Hezkuntza Sailean ere azalduta dago. Sukaldearen proiektuaren lanketan murgilduta gaude. Udala, jantokiaren gaiarekin, herri mailako proiektu gisa konprometituta dago eta udal-programan jasota dauka".

Aurrera begira "familiek euren seme-alaben elikaduraren inguruan duten kezkan oinarrituta", bertako elikagai eta garaikoeekin janaria prestatzeko aukera izan nahi dute: "Eskolan Hamaiketako Osasungarria proiektua eta beste hainbat sentsibilizazio-ekintza martxan ditugu. Baina pausoz pauso goaz. Guztia martxan jartzeko, Elgetako Eskolako Jantoki Eraldaketa Batzorde bat dugu, Udaleko ordezkariak, gurasoen ordezkariak eta eskolako ordezkariak osatzen dutena".



Aurten, June Larzabal artista eskoriatzarrak egin du urte berria zoriontzeko Goienaren mezurako irudia:
Beti izango gara gu.

"Etorkizunean ere, Debagoieneko herriek berezko duten izaera mantentzeko aldarrikapena egin dut".
Hala bedi.

2024 on guztioi!



Beti izango gara gu
Egilea: June Larzabal
Teknika: tornua eta modelatua
Neurriak: 100 x 70 x 10 cm

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

"Minaren biologia zein den azaldu behar da"

ARTURO GOIKOETXEA NEUROLOGOA

Arrasatearrak 'El dolor crónico no es para siempre' liburua idatzi du; mina ulertzeko dugun modua okerra dela dio eta gaixoengan hartzen diren erabakiak okerrak direla

Iñigo Barrena ARRASATE

Arturo Goikoetxea (Arrasate, 1946) urte askoan Gasteizko Santiago Ospitaleko Neurologia Zerbitzuko buru izan zen. Orain, *El dolor crónico no es para siempre* liburua idatzi du, non min kronikoari buruz hitz egiten duen. Goikoetxeak uste du askotan diagnostiko okerra egiten dela eta justifikazio barik izaten diren min horiek sendatu egin daitezkeela, behar bezalako azalpenak ematen baldin badira.

Zein da min kronikoaren gaineko egoera euskal gizartean?

Ez dago estatistika zehatzik, baina Estatuan dagoen egoeraren antzekoa izango delakoan nago; %20k baino gehiagok jasaten dute, gutxi gorabehera, eta ziur nago portzentaje hori errealtitatearen azpitik dagoela. Kezka-garriena, ordea, zifra hori hazten ari dela da. Gaur egun egoera horien aurrean egiten direnak, arazoa konpondu beharrean, areagotzen ari dela esango nuke, arazoa konpontzeko ematen diren gomendioek arazoa areagotzen dutelako.

Bostetik batek pairatzen du min kronikoa. Datu esanguratsuak dira horiek.

Ziur nago jende gehiago ere badela, baina askok arazoa normalizatu egiten dute; askotan, adinaren aitzakia erabiltzen dute horretarako, baina hori ez da horrela. Mina agertu behar litzateke mina dagoen tokian arriskuren bat baldin balego, eta, sarritan, hori ez da horrela izaten. Probak egiten dira eta ezer ez dagoela esaten dizute. Beste arazoetako bat medikuak eurak izaten dira. Azken finean, eurei medikamentuak errezetatzen erakusten diete eta horixe egiten dute. Gainera, min kronikoa dagoenean baina horrek azalpen zehatzik ez duenean, medikuak errezetatutako medikamentuek bigarren mailako efektuak eragiten dituzte; hau



Arturo Goikoetxea, Arrasateko Herriko Plazan. IÑIGO BARRENA

"TXIKITATIK, HAURREI EZ DIEGU EUREN ORGANISMOA BERE HORRETAN GARATZEN UZTEN"

da, egoerak hobera egin beharrean, okerrera egiten du.

Zeinek pairatzen du gehiago min kronikoa? Ba al dago adin tarte zehatzik?

Haurrengan 3 edo 4 urte dituztenetik hasi daiteke agertzen min kronikoa; aurretik ere gerta daitezke kasuak, baina, hitzekin gertatzen zaiena adierazteko gaitasunik ez dutenez, ezin dute azaldu. Gainontzean, 50 urte inguru dituzten pertsonen multzoan izaten da kasuen mailarik handiena, eta ohikoagoa izaten da emakumeengan. Halaber, ez da egia adinean aurrera eginda min kroniko hori areagotu egiten dela.

Aipatzen duzu min kronikoa zer den ez dela ondo azaltzen. Zein izango litzateke eman beharreko azalpen egokia?

Lehenik eta behin, mina dagoen tokian benetan zerbaiteko

edo ez aztertu beharra dago. Adibide bat jartzeagatik, eraikin batean alarma bat behin eta berriz joka hasten bada baina eraikinean ezer gertatu ez dela ikusten bada, sistemara edo oinarrira joan beharko da zer gertatzen den jakiteko. Horregatik, min kronikoaren kasuan, gaixoari min horren biologia zein den azaldu behar zaio; hau da, giza gorputzaren organismoak nola zaintzen eta babesten duen gure gorputza, jasotzen duen informazioaren arabera. Horri buruz adituek ematen dute behar den moduko azalpena.

Nola antzematen da min kronikoa duzula?

Mina dagoen tokian esplorazio bat egiten da, galderak egin, probak eskatu, eta, min hori azaltzen edo frogatzen duenik ez badago, diagnostikoa pazientek berak egiten du. Hark esaten du non, nola eta zenbateko mina duen; nola areagotzen den min hori; eta ondoren, proba batzuk egiten dira, minbiziari lotutako kasua ez dela jakiteko. Orduan, diagnostikoa gaixok berak egiten du; kontua da askotan profesionalak ez dutela gaixok esaten diotena sinisten.

Horregatik, min kronika duela esaten zaie.

Zeintzuk dira ematen diren tratamenduak? Eta zeintzuk izan behar lirateke egokiak?

Egokiena egin behar ez dena ez egitea da. Sarritan, medikuek egin behar ez den hori egiten dute, eta medikamentuak edo ebakuntzak egiten dira, inolako justifikaziorik gabe. Okerrena da esatea min hori betirako dela, irtenbiderik ez duela, edo, kasu gogorrenetan, gaixoari esatea esajeratzen ari dela. Pertsonari min hori izatearen erruduna dela ere esaten zaio, edo medikuarengana berandu joan dela, eta, aholku moduan, erlaxatu beharra duela.

Gu saiatzen gara gaixoa hartu eta aurretik aipatutako horien guztien pisua gainetik kentzen, biologiaren ikuspegitik justifikaziorik ez dutela erakusteko.

Noiztik hasi behar da min kronikoaren gainean dagoen ikuspegi hori aldatzen?

Txikitatik hasi behar da. Haurrek euren gorputza ziurgabetasuna sortzen duten egoerarako prestatu beharra dute, eta horretarako dago jolasa; zaintzaile baten laguntzarekin, baina jolasa ekidin gabe. Gaur egun, jolasa asko mugatzen da, edo arrisku egoerak une oro saihesten dira, eta orduan, haurrak gehiegi babesten ditugu. Ez dugu onartzen haurrak gaizki egon daitezkeenik: eztula badu, medikuarengana; mina badu, medikuarengana... Ez diegu uzten euren organismoa bere horretan garatzen. Gizarte sozializatu batean bizi gara eta gizarte horrek egiten duen berdina egiteko presioa dugu. Batzuetan, onurak ekartzen ditu, baina, beste batzuetan, kalteak ere bai.

Zer falta da egiteko etorkizunera begira?

Faltan baino gehiago, soberan daude batzuk. Egun dagoen alarmismo horrek, kontrolpean izate horrek... gure organismoak egoera ezberdinetara moldatzeko duen gaitasun hori ezabatzen du eta ahuldu egiten du. Gainera, medikuen eta profesionalen laguntza izatera ohitzen dugu gure gorputza. Beraz, justifikaziorik gabeko min horren arazoaren aurrean dagoen alarmismo hori jaitsi beharra dago, pertsona bakoitzak bere burua kontrolatzeko aukera izan dezan.

GOIENA da papereko irakurriena Debagoiengan

'Goiena.eus'-ek 12.000 erabiltzaile eta Goiena telebistak 5.000 ikus-entzule dituzte

E.A. ARRASATE

GOIENA aldizkariak 35.000 irakurle ditu astero Gipuzkoan eta 29.000 Debagoiengan, eta papereko euskarri nagusia da, askogatik, Debagoiengan; bigarren irakurrienak, *El diario vasco* egunkariak, 8.000 irakurle ditu eskualdean. CIES erakundeak atzo argitara eman zuen txostenetik ateratako datuak dira. Iazko datuekiko eta aurtengo maiatzeko neurketarekiko irakurleak galdu ez dituen papereko bakarra da, *Hitza*-rekin batera. Gipuzkoan argitaratzen diren gainerako egunkariak irakurleak galdu dituzte aurtun, bereziki lurraldean nagusi direnek, azkeneko urteetako joerari eutsiz.

Bestetik, CIESen arabera, *Goiena.eus*-ek 12.000 erabiltzaile ditu egunero. Gipuzkoan argitaratzen diren hedabide digitalen artean zortzigarrena da Goienarena; tokikoen artean, ostera, nagusia da, eta euskarazkoen artean bigarrena, *Berria.eus*-en ostean -30.000 erabiltzaile egunero- eta *Argia*-ren aurretik -10.000 erabiltzaile egunero-.

Goiena telebistari dagokionez, 5.000 ikus-entzule ditu egunero Gipuzkoan eta 4.000 Debagoiengan. Euskarazko tokiko telebisten artean, nagusi da; Hamaika telebistak 4.000 ikus-entzule ditu Gipuzkoan. Bestalde, ETB2 12.000 ikus-entzulerekin eta ETB1 9.000 ikus-entzulerekin dira Debagoiengan gehien ikusten diren telebistak. Irratiei dagokienez, Euskadi Irratia da gehien entzuten dena -8.000 entzule egunero-.

'GOIENA urtekaria 2023'

Abenduaren 29an banatuko da GOIENA aldizkariaren urteko azkeneko zenbakia: *Urtekaria 2023*. Urteko albiste nabarmenak, hilabetez hilabete; urteko protagonistak; adituen balorazioak eta herritarren *Pozak eta penak* jasoko ditu, besteak beste.

"Berrikuntza eta tokikoa dira gure ezaugarriak"

PEDRO PRIETO JAKION ENPRESAKO BERRIKUNTZA ZUZENDARIA

Eroskirekin batera, Jakion enpresa proiektu europar batean dabil, elikadura sistema osasungarriagoa eta jasangarriagoa izan dadin: barazki-krema bat sortzen dabilta

90eko hamarkadan sortu zuten Jakion enpresa, Leintz Gatzagan, Debagoieneko nekazariak batu eta ekoizten dituzten produktuei irtenbide bat emateko. Frutak eta barazkiak kontserba bihurtzen dituzte, zero kilometroko produktuei balioa emanda eta osasuna eta iraunkortasuna ardatz izanda. Lanean dabilta berrikuntza proiektuetan ere, bakarka zein inguruko entitateekin: tartean da, esate baterako, Eroski. Bada, bien arteko harremanaz jardun du Pedro Prietok, Jakioneko berrikuntza zuzendariak.

Europako RIS Straight to Market proiektua ardatz izanda, elkarrekin zabiltzate lanean Eroski eta Jakion. EIT Food-ek finantzatzen du aldi berean. Zertan datza proiektua?

EIT Europako Berrikuntza eta Teknologia Institutua da, Europar Batasuneko erakunde bat. EIT Food Europako elikagaien berrikuntzarako ekimen nagusia da, eta elikadura sistema jasangarriagoa, osasungarriagoa eta fidagarriagoa izan dadin lan egiten du. Elkarrekin gauzatzen gabiltzan proiektuari dagokionez, barazki-krema berri bat sortzean datza: proteina ekarpena handia izango du; merkaturako gainontzeko eskaintzekiko alderatuz gero, baita gantz eta



Pedro Prieto, Jakioneko berrikuntza zuzendaria, Jakionen bertan.

gatz gutxi ere; eta lodigarririk eta kontserbatzailerik gabea ere izango da. Nabarmena izan dadila kontsumitzaileentzat; oso osasungarria izan daiteke, baina, ez bada gustukoa, ez du kontsumitzaileen platerak eskuratzeko aukerarik izango.

Zer duzue helburu?

Gure asmoa da elikagai bat sortzea, gure baserritarren barazkietatik abiatuta. Balio proteiko handiko osagai berriekin eta konposatu bioaktibo desberdinekin, etxean egindako barazki-krema bat erdietsi nahi dugu, baina bizpahiru orduz sukaldean aritzeko beharrik izan gabe; eroso. Itsusiak diren barazkiak ere erabili daitezke prozesu horretan. Horretarako, gainera, kontserbak egiteko, beirazko ontzi baten eta aluminiozko tapa baten aldeko apustua egiten dugu. %100 birziklagarria izango da, edo etxean berrerabiltzekoa; ontzia oso polita izango da, bigarren bizitza bat eman dakiogegu. Are gehiago, EIT Food-i esker, produktua batera sortzeko hainbat tailer egin ahal izan ditugu; horrela, kontsumitzaileen irizpideak hizpide izanda, produktua hobeto ezagutu ahal izan dugu.

Jakionek eta Eroskik berrikuntzarikiko eta ingurumenarekiko konpromisoa berresten duzue, beraz? Nola?

Tokiko produktuaren aldeko apustuaren bidez; ekologikoa babesten dugu, baina, ez bada, badakigu, behintzat, kilometro asko ez dituela egin. Halere, aldi berean, badugu berritzaileak izateko nahia ere, urrutiago egon daitezkeen osagaiak aprobetxatua. Bada, zalantzarik gabe, I+Gk -Ikerkuntza eta Garapena- eta ekoizpenetik eratorritako lan guztiak eragina du eskualdean.

Ez da, gainera, batera jarduten duzuen lehen aldia. Nolakoak dira Eroskirekin dituzuen harreman komertzialak?

Urte asko daramatzagu elkarrekin lanean, eta Eroskiren lineetan gure produktuen kategoria desberdinak ikus daitezke. Hainbat proiektutan egin dugu lan, hala nola saltsa bolognar berri bat sortzen *plant-based* irizpideetan, EIT Food-en laguntzarekin, eta %100 naturala den haurrentzako edari bat garatzen frutarekin eta Arabako babarrunen proteinarekin.

Zein da Eroskik Jakioni egiten dion ekarpena? Eta, alderantziz?

Eroskik bere benetako kontsumitzaileengana hurbiltzen laguntzen digu, salmentetan duen esperientziara, garatzen dugunari buruz duen ikuspuntua gardentasun osoz erakustera eta produktu berriak dendetan merkaturatzera. Gure aldetik, berri, nutrizio balio, osasun eta iraunkortasun handiko osagaiak dituzten produktu berritzaileak eskaintzen ditugu; hainbat eta hainbat Euskal Baserria zigiluarekin ziurtatuak dira. Gainera, arintasuna ematen dugu produktuak sortzeko prozesuan, eta hurbiltasuna, konpainia txikia baikara.

Berrikuntzan duzue, beraz, arreta jarrita.

Jakion oso aktiboa da proiektuak ezartzen, eta urtero hiruzpalau berrikuntza proiektu ditugu. Egun, proteina-iturrien arloan gabiltza lanean.

"JAKION OSO AKTIBOA DA PROIEKTUEKIN; URTERO HIRUZPALAU DITUGU, BERRIKUNTZA HIZPIDE"



EROSKI

Gure kooperatiba-kultura gizartean eragin

positiboa

sortzen duten ekimenak sustatzeko motorra da



Berrikuntza sustatzen dugu kontsumo arduratsua sustatuz, jasangarritasunaren, irisgarritasun ekonomikoaren, elkartasunaren, eta tokiko ingurunearekiko errespetuaren irizpideei jarraituz

www.eroski.es



ZABALIK

OIHAN VEGA

Inteligentzia artifiziala

Iruzurra da: ez da inteligentzia, ezta artifiziala ere. Aspalditik gure egunerokotasunean dugun teknologia da IA deritzona. Bere garaian, *ordenagailu* edo *konputagailu* deitzen zitzaion. Gaur egun, IA hori datuak ordenatzeko eta antolatze gaitasuna duen teknologia baino ez da. Zure auzoko *txinoan* erositako kalkulagailua bera da inteligentzia artifiziala.

Badago saiakera bat, beldurra sartzeko, IA siglekin ente bat definitzeko; jendartea izutze estrategia hutsa. Baina ez dute lortuko. IA lagungarri da egunerokotasunean, gure sakelako telefonoan, gure ordenagailuan, tabletan... Egutero inguratzeko gaitu IA delakoak. Autobusa hartzeko ordutegia planifikatzeko edota gure seme-alabei bideo bat Youtuben jartzeko, denetarako balio dute institutuak ikasten genituen algoritmo famatuak.

NORBAITEK ESAN BEHAR DIO MAKINARI ZER EGIN BEHAR DUEN, NORBAITEK ERAKUTSI BEHAR DIO

Baina IAK sekula ez du gizakia ordeztuko, ez da gerturatu ere egingo. Inteligentzia artifiziala programatzeko, gizakiaren eskua ezinbestekoa da. Norbaitek esan behar dio makinari zer egin behar duen, norbaitek erakutsi behar dio, hark datuak kalkulatu eta ordenatu ditzan. Baina inoiz ez da gai izango inor maitatzeko, ezta iritzia emateko ere.

Inteligentzia artifiziala ez da gai, bere barrenean, ezinegona adierazteko Israel Gazan egiten ari den genozidioaren aurrean, ez da gai Ukrainan pairatzen ari diren erasoaldiaren aurrean sentimenduak adierazteko, ez da gai erabakitze, ea Pirritx eta Porrotx pailazoen helduon gauza zatarrak tratatzeko haurren erabilera bidezkoa ote den edo ez eztabaidatzeko. Ez. Inteligentzia artifizialak ez daki eta ez du inoiz jakingo emozioak kudeatzen; are gehiago, maitasuna antzematen. Beraz, ez izutu.

Iruzurra da. IAK ez dizu sekula lanpostua kenduko; bai, ordea, IA ondo erabiltzen duen gizakiak. Ondorioz, ikasi, baina beldur barik.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Hazian fruitua

BLANCA URGELL
'BERRIA'-N ARGITARATUA
[HTTPS://LABUR.EUS/GE3GG](https://labur.eus/ge3gg)

Ozta-ozta gogoratzen naiz telefonoa barraskiloek oskola bezala garraiatzera zigorturik ez geunden garaiak. Orduan berri onak beranduago iristen ziren, baina txarrak ere bai. Orduan inork ezin zezakeen gure kokapena hainbeste zehaztu, izan senar, guraso, estatu zein google. Zein Israelgo armada. Orduan ez zegoen gure irudiak eta gure hitzak hain erraz grabatzerik.

Denboran atzera egiteko trena hartu, eta o.a.a. X. menderaino joango gara, Onubaraino –jarri azentua lehen silaban–. Bada,

Onuban, egungo Huelvan, bertako tartesostarren eta koloniak ezartzera etorritako feniziarren arteko harremanetatik sortu bide ziren gauza asko, artean Penintsulako lehen idazkerak. Adibide zaharrena Espancako omen (Alentejo, Portugal): *signario* edo ikur-bilduma bat da, alfabetoaren antzera hurrenkera jakin batean bi aldiz idatzia, eskuinetik ezkerre, behin irakasleak trebeki eta gero ikasleak traketsago, folio tamainako eskizozko xafla batean.

Hurren, tartesostarren dugu Guadiana eta Guadalquivirren ibilbideetako aztarnetan –etxeko lanak euskaltzaintzat: ss bai ala ez?–. Gehienak hilarrietan

jasoak, ohi bezala euskarriaren ertzei jarraiki barraskilo modura idatziak. Batek bakarrik dauka irudia: gerrari eskematiko bat omen (Abóbada, Alentejo).

Tartessos erresuma mitiko bat da, azken aurkikuntzek –Extremadurakoek, batik bat– gero eta mami eta are egiantz gehiago ere eman diotenak. Ordukoek sakelakoak izan balituzte euren irudiak ikusi eta euren hitzak entzungo genituzke. Beldur naiz, oster, ez ote zuten gehiago izango koinatukeriatik, fobiatik eta memetik, Antzinateaz uste dugun ganora, begirune eta quintasunetik baino.

Tertulianok zioenez, fruitua beti dago hazian.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzardea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Itziar Murgiondo.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Leire Etxebarria.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Onatikoko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK

Euskalnfafar greba orokor feminista**BENI AGIRRE**IDAZLEA ETA HISTORIALARIA
HERNANI

Azaroaren 30a euskaldunon oroimen kolektiboan –Herri Oroimenean hobeto– itsatsita geratu beharko litzateke egun gogoangarri moduan. Gaur Euskal Herria deitzen diogun hegoaldeko lau foru-administrazio esparruetan –*probintzia* asmakizun franko-espainiarrari uko egin beharko genioke– lehenengo greba orokor feminista euskalnfafarra aurrera atera zen. Euskalnfafar herriaren hegoaldean gauzatu zelako, ez Frantzian, ez Espainian.

Itsatsita gera beharko litzateke, zaintzaren leloa ardatz hartuta –emakumeek, bereziki, baina, gizonezkoen esku hartze gero eta handiagorekin–, genero ororen berdintasunaren aldarriak gizarte bateratzaile izan daitekeela erakutsi zuelako. Gazteak, ez hain gazte eta zahar samarrak, langileak eta pentsiodunak, emigranteak eta aurreko migranteen seme-alaba bertan jaiotakoak eta oro har, gaur, euskalnfafar gizarte osatzen duten eragile biziak kalera ateratzeko indarra erakutsi zuelako.

Aurreko batean, Hernanin, Burujabetzak jardunaldian, zaintza atalean hauxe aipatu zen: "Zaintza sistema publiko komunitarioa eraikitzeko eragileen arteko saretzea,

koordinazio eta harremana ezinbestekoa da, gaur egungo udal egiturek nekez iristen baitira guk ditugun beharretara". Negozioa eta zerga bidezko diru publikoaren xahutzea ere aipatu izan da; adibideak ez dira falta, nonbait. Euskal erroko kulturak badu oraindik ere bizirik egitura juridiko propioa: Zuzenbide Piriniarra. Bertan jasotzen dira kooperatibismoa, auzolana, herri lurren kudeaketa arauak eta irabazi asmorik gabeko antolakuntza komunitarioa. Beraz, bada non ikasi.

Zehaztasunik gabe hitz egin**PITER ENCINAS**

ARRASATE

Orain dela bi aste, haurtzaroko lagun batekin elkartu nintzen eta gizakion portaerari buruz hitz egin genuen: nola erailtzen ditugun animaliak, landareak nola hondatzen dugun natura eta nola gure artean elkar hiltzen ari garen.

Adibide gehiago geneuzkan, gerrak nonahi, garbiketa etnikoak eta hilketa arrazistak, sexualak, boterea lortzekoak eta abar.

Memento batean, ekologista sena piztu zitzaidan eta aipatu nion nola izan zitekeen izendatutako lehenengo munduan ehiza kirol eta hobby gisa onartuta egotea, zentzu berean, animalien hilketen defendatzaile sutsuak egotea, gainera, ondo pasatzeko; adibidez, zezenketetan. Eta

santamasak hurbil daudenez, nik esan nion karioletan dauden animalien erakusketa guztiak debekatuko nituzkeela. Jakina, lagunak berehala esan zidan ohitura kulturalak zirela, baina erantzun nion ohitura batzuek beste izenorde bat izatea merezi dutela, eta ez *ohitura kulturalak*.

Berotu egin nintzen eta dramatikoago jarri nintzen, eta iragarri nion gizakiok planetaren seigarren iraungipena sortuko dugula, interes ekonomikoagatik; hor daukagu klima aldaketa, berotegi-efektuko gasak (BEG), aztarna ekologikoa eta abar. Ondorio horiek oso garbi ikus ditzakegu, eta garbi dago ekologisten txorakeria izateari utzi diola.

Badakit hori antzara-jokoan ibiltzea bezala dela, badakit elkarrizketa horiek bukaezinak direla, baina uste dut horrek guztiak zentzua duela.

Oñatiko herrigunearen eta Elorregiren arteko autobus zerbitzua**XABIER IGARTUA LOIDI**OÑATIKO UDALEKO ZERBITZU
BATZORDEBURUA ETA EH BILDUKO
ZINEGOTZIA
OÑATI

Amaia Erostarbe Oñatiko EAJren bozeramaileak Oñatiko herrigunearen eta Elorregiren artean Herribusaren linea gehigarri bat egiteko proposamena egin zuen lantzean behin haren izenean astekari honetan gai

desberdinen inguruan hausnartzeko duen zutabea.

Hasteko, esan beharrekoa da zutabeak ez direla alderdi baten bozeramailetzan jarduteko espazio, norbanako moduan gai desberdinen inguruan hausnartzeko bitarteko baizik. Zoritzarrez, Amaia Erostarbe norbanako moduan aurkeztu bada ere, EAJren bozeramailetzarako erabili du. Hori ez da zintzo jokatzea.

Hori esanda, EAJko bozeramaileak esan duenez, "Pesak ematen du" Gipuzkoako autobus zerbitzua. Pesak ematen du? Ala EAJk gobernatzen duen Gipuzkoako Aldundiak ematen du, Pesaren edo gaur egun Avanzaren bidez? Zein esanguratsuak diren erabiltzen diren terminoak, eta erabiltzen ez direnak –zutabea ez da behin ere agertzen *Gipuzkoako Foru Aldundia*–.

Oñatiko herrigunearen eta Elorregiren arteko autobus zerbitzua 2011-2015eko legealdian jarri zuen martxan Gipuzkoako Foru Aldundiak, EH Bilduk gobernatzen zuenean. Gero, legealdia eskuratu eta Gobernu EAJk eskuratu zuenean, desagertu egin zen. Esanguratsua, ezta? Eta orain, Oñatiko EAJren bozeramaileak, EAJk gobernatzen duen Foru Aldundiari beharrez, Oñatiko EH Bilduren Udal Gobernuari egiten dio eskaera. Zein garrantzitsua den testuinguratzea...

Zilegi al da Oñatiko herritarrek 100.000 euro –kopuru hori proposatu du EAJk– ordaindu behar izatea Gipuzkoako garraio publikoari dagokion hutsune bat betetzeko? Ezetz esango nuke. Ez da zilegi, ezta bidezko ere.

Debagoieneko udaletako ordezkariak –Oñati, barne-duela aste gutxi joan ziren Gipuzkoako Foru Aldundira garraio publikoan hobekuntzak eskatzera; izan ere, 2024an berrikusiko da lurraldeko autobus publiko zerbitzua. Beraz, orain da momentua. Gu bagabiltza garraio publikoan hobekuntzak exijitzen Gipuzkoako Foru Aldundiari. Amaia, zuek hasiko al zarete?

Eskerrik asko, Lekaixoka eta Aretxabaletako Udala**ADRIAN MERINO ETA ANE TXAPARTEGI**
PAUSOKAKO GURASOEN IZENEAN
ARETXABALETA

2022an jaiotako Pausokako haurren gurasook eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu Lekaixoka bertso-eskolari eta Aretxabaletako Udalari, herriko haur jaioberriei ongietorria egiteko ekimena benetan polit egiten dutelako. Neska-mutiko bakoitzarentzat eskainitako bertsoetan eta astearteko saio xume bezain goxoan beraien ahalegina eta ilusioa sumatzen da, eta oso-oso pozik eta eskertuta gaude. Benetan zorionak egiten duten lan zoragarriagatik!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrek erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Oñatiko Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROIA!

GARBINE UBEDA



Eguaztenean egin zuten ezohiko osoko bilkura, nagusiki 2024ko udal aurrekontua onartzeko. E.A.B.

"Aurrerakoia" den aurrekontua

Udal Gobernuan dauden EH Bilduren eta Elkarrekin Arrasateren aldeko botoekin onartu du udalbatzak 2024ko udal aurrekontua, izan ere, EAJk zein PSE-EEK aurkako botoa eman dute; hala, 2023koarekin alderatuta, %15eko hazkundera izango du

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE 45.753.138 euroko udal aurrekontua onartu du asteon Arrasateko udalbatzak 2024rako, eta Joseba Ezpeleta Ogasun Saileko zinegotziak zera adierazi du: "Diru-sarrerei dagokienez, esanguratsuen da udal tributuenatik 16 milioi euro jasotzetik 17,5 milioi euro jasotzera pasako garela, ordenantza fiskaletan udazkenean onartutako igoerari esker. Halaber, Foru Funtsa 19,5 milioi eurotik 20,8 milioi eurora pasako da". Azpimarratu du Udalak "gaitasun finantzario nahikoa" daukala dituen erroinei aurre egiteko. Geraikinaren erabilerarekin, bestalde, 2024an ez zorpetzea aurreikusten dutela azaldu du. "Espero dugu 2024an gerakinarekin elikatzea euro batekin dauzka gun partidak, gardentasun ariketa bat eginez. Aldez aurretik,

orain arte ez bezala, adierazten dugu gerakina zertara bideratuko dugun, erabateko gardentasunarekin". Kepa Urteaga EH Bilduren udal bozeramaileak gaineratu du datozen urteak "erabakigarriak" izango direla Arrasaterentzako. "Erronka

berriei erantzun berriak eman beharrean gaude". Elkarrekin Arrasateko Eva Abuinek, era berean, dio erroinei erantzungo dien aurrekontua izango dela. Modu horretan, aurrekontuak hiru lan ildo nagusi ditu, Gobernuaren esanetan: "Ehun-



KEPA URTEAGA
EH BILDU

"Arrasatek azken urteetan izan duen aurrekontu aurrerakoiarena da, herriko ehun osoa ardatz duena. Agintaldiko oinarria jarriko du aurrekontu honek".



AGURNE JULDAIN
EAJ-PNV

"Gure bost emendakinak, ideia gisa, txertatuta daude, baina ez guk nahiko genukeen moduan. Saiatu gara adostasunera heltzen, baina ezin izan dugu".



JOHANNA SANCHEZ
PSE-EE

"Gobernuari ez zaio axola gure iritzia. Gainera, joan den agintaldian hainbeste eskatu zuten parte-hartzea ez dugu ikusten aurrekontu honetan".



EVA ABUIN
ELKARREKIN ARRASATE

"Etorrizunera begira Arrasatek dituen erroinei erantzuten dien aurrekontua da. EAJren ekarpen gehienak daude jasota. PSE-EEK ez du proposamenik egin".

Aurrekontuko partida aipagarriak

Santa Teresa eta Doneztebe Portuko urbanizatzeko.	3.000.000€
Jose Luis Iñarra berritzeko lanen lehen faserako.	2.000.000€
Mojategiko atletismo pista berritzeko.	841.000€
Mojategiko argiak LED sistemara aldatzeko.	520.000€
Musakolako gaztetxoko berria egiteko.	270.000€
Musakolan estalpea egiteko.	250.000€
Uarkape pilotalekuan trantsizio ekologikoaren baitako hainbat egokitzapen egiteko.	170.000€
Kirol klubei dirulaguntzak emateko.	130.000€
Emakume Txokoaren hainbat ekintzatarako.	120.000€
Osasun mentalaren inguruko diagnostikoa egiteko.	100.000€
Landa lurra erosi eta basogintza kudeatzeko.	100.000€
Bedoñaben estalpea egiteko.	60.000€
Azoka eraberritzeko lehen zatia egiteko.	50.000€
Negozioren eskualdatzea errazteko dirulaguntzatarako.	50.000€
Etkezaretaren berreskuratze plan proposamenerako.	50.000€
Aurre-nerabeen aisialdi zerbitzu berrirako.	50.000€
Bedoñaben berdegune berria egiteko.	45.000€
Emakume Txoko berriaren proiektua garatzeko.	20.000€
Ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobarietarako.	20.000€
Aurrekontu osoa:	45.753.139€

dura komunitarioa indartu eta zaindu gura dugu eta, beraz, herritarren bizi-kalitatea, kohezioa eta integrazioa hobetu nahi duten aurrekontua da; bestalde, udal politikak gidatzeko modu berriak ekarri nahi ditugu, gobernatzeko modu kooperatiboa ezarri nahi dugu; azkenik, azpiegiturak hobetu zein berriak diseinatzeko aurrekontua izango da".

EAJ eta PSE-EE, aurka

Jeltzaleek aurkako botoa eman dute, eta Agurte Juldain zinegotziak zera dio: "Hasierako hogeit hamar emendakinetatik bostera pasatu gara, baina ez dugu lortu erabateko adostasunik". Emendakinak honako hauek izan dira: Grupo San Juan berriro urbanizatzeko proiektua idazten hasteko 35.000 euro partida bat; Takolo Goiru proiektuaren baitan Uribarri fasea berrikustea, Biteri eta Gara-gartza arteko bidegorri batekin lotzen jarraitzeko; Mesedetako ikastetxeko *cohousing* proiekturako planteatutako 100.000 euroko inbertsioa handiagoa izatea; kirol erakundeendako dirulaguntzak 30.000 euro handitzea; eta Iturriperen birmoldaketa integralari ekiteko 600.000 euro gehitzea.

Alderdi Sozialistak, azkenik, osoko zuzenketa aurkeztu du eta Johanna Sanchez zinegotziak azaldu du eztabaida falta izan dela "arrasatearren benetako beharrak" zeintzuk diren jakiteko. "Herritarren benetako beharrak ez ditu jasotzen aurrekontuak. Guk hogeit hamar behar identifikatu ditugu eta bakar bat ere ez dago jasota. Bestalde, ez dago prozesu parte-hartzailetan oinarritutako gasturik".

200 bat kilo dituen 'Bibi', herritarren begiradapean

Atzo aurkeztu zuten Aretxabaletako Zaloña baserriko 'Bibi' txerria, santamasetako ikurra, eta gaur, egun handia izanik, askotariko ekintzak egingo dituzte goizetik gauera arte; indarkeria matxistaren prebentziorako eta sentsibilizaziorako gunea ere jarriko dute

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE
Atzo ilunkeran aurkeztu zuten, ohiturari jarraituz, santamasetako txerria. Aurtengoak *Bibi* izena du eta Aretxabaletako Zaloña baserrikoa da. "Txerri lasaia da, gure baserrian guztiak izan ohi diren moduan, eta 200 kilo inguru ditu", azaldu du Ibai Alberdik, txerriaren jabeak. "Espero dugu jendearen gustukoa izatea", gaineratu du.

Atzo moduan, gaur ere jende asko joango da txerria ikustera, ikusmin handia sortzen baitu urtero. Hori baliatu du, hain zuzen, Alberdik baserriaren aldeko aldarrikapena egiteko: "Ikusgarritasuna emateko balio digu horrek, gazteok ere hor gaudela esateko. Izan ere, oso polita da santamasetan baserri-tar janztea eta eguna ospatzea, baina, baserriarroi ez badigute laguntzen, bagoaz. Geroz eta gutxiago geratzen gara".

Egun osoko egitaraua

Egitarau betearekin datoz aurtengo santamasak ere. "Pandemia atzean utzita, ohiko martxa berreskuratzen ari gara", adierazi du Jokin Zubiriak, Santamas Komisiñoko kideak. Hala, goizeko ekitaldietako berrikuntzetako bat ardien ile-mozketa erakustaldia izango da. "Iazko arrakastaren ostean, bi ekitaldi egingo ditu Mikel Velascok. Bestalde, zaldiak ferratuko dituzte ganadu azokan", gaineratu du batzordeko kide Ander Zeziagak. Era berean, azokan parte hartuko duten ekoizle gehienak debagoiendarrak izango dira, bai barazkiak saltzera datozenak eta baita produktu artisauekin datozenak ere.

Askotariko ekintzak egongo dira egun osoan. Batzuk nabarmentzearen, honako hauek: 10:00etan, ganadu, fruta, barazki eta herriko saltokien azoka eta produktu gastronomikoen salmenta egongo dira; 12:30ean,



Aretxabaletako Zaloña baserriko *Bibi* txerria. IÑIGO BARRENA KORTABARRIA

herri kirol desafioa Zaldibar frontoian; 14:45ean, herri bazkaria Musakola kiroldegian (sarrerak agortuta daude); 19:30ean, txerri dantza Herriko Plazan; eta 20:00etan, txerri zozketa, hori ere plazan. Era berean, bihar eta etzi ere egongo da zertaz gozatu (Egitarau osoa, *Goiena.eus*-en).

Indarkeria matxistaren aurka

Arrasateko Udaleko Berdintasun Sailak indarkeria matxistaren prebentziorako eta sentsibilizaziorako gunea jarriko du Arbolapetan, 20:00etatik 00:00etara. "Zerbitzu hau jai eremuan kokatutako informazio gunea da, herritar oro indarkeria matxistaz kontzientziatzeko", diote. Bestalde, eraso matxistekin lotutako arreta eta esku hartzerako puntua ere egongo da Gazte Bulegoan, 00:00etatik 08:00etara.

Bukatzeke, jaietarako propio sortu duten arreta telefono zerbitzua egongo da, 00:00etatik 08:00etara. Telefono zenbakia 688 80 91 37 izango da eta hainbat lekutan egongo da ikusgarri. Eraso matxistei buruzko informazioa eta aholkularitza eskainiko dute.

Eduki pornografikoa duten Whatsapp taldeak Arrasaten

Abendu hasieran kasu bat atzeman dute, eta prebentzio neurriak hartzeko dei egin dute herriko hainbat eragilek

E.A.B. ARRASATE

Azaro amaieran atzeman zituzten Donostiako eduki pornografikodun Whatsapp taldeak, eta Arrasatera ere iritsi direla jakinarazi dute. Ikastetxe batean atzemandako kasu baten harira, harremanetan jarri dira Udala, herriko ikastetxeak, hezkuntza eragileak eta guraso talde edota sareak. Maider Morras alkatearen esanetan, "neurri prebentibo eta hezitzaileak ezartzeko asmoa" agertu dute eragile guztiak. "Garrantzitsua da denok norabide berean lan egitea".

Gabonetan telefonoen erabilera "kontrolrik gabe" hazten dela nabarmendu du alkateak, eta, "erabilera egokia" egiteko asmoz, hainbat prebentzio neurri proposatu ditu; besteak beste, honako hauek: "Seme-alabekin komunikazioa hobetu eta honetan sakondu; zure seme-alaba

honetako txat talde baten parte bada, irten taldetik ahal bezain pronto, baina ez ezabatu mezuak eta jarri salaketa Udaltzaingoa; garrantzitsua da mugikorraren erabilerrari lotutako ohitura osasuntsuak sortzea, eta, horregatik, adinaren araberako erabilera graduala ezarri behar zaie; *Family link* aplikazio modukoak ezartzea, modu horretan, aplikazio bat instalatu aurretik gurasoei baimena eskatuko zaie".

'Altxa burua' ekimena

Horrekin lotuta, haur eta nerabeei eskuo telefonoak oparitzearen inguruko kontzientziazio kanpaina abiarazi du Udalak, *Altxa burua* ekimenarekin elkarlanean; eskuorriak banatu dituzte. "Oso gazte diren haurrei oparitutako mugikorrekin eragin kaltegarriak izan dituzte haien garapenean".



DEBAGOIENEO PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
blasaga@icagi.net

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE
Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA
Araba ibilbidea 20, behea
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ETXE ADMINISTRATIOAK

**URIBESALGO
ADMINISTRATIOAK**
ARRASATE
Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

Txikilandia eta ekintzen laborategia batera datoz

Jolasa eta euskara ardatz dituen Txikilandia ekimenak 33 urte beteko ditu 2024an, Txatxilipurdiren eskutik. Urtarrilaren 2an, 3an eta 4an gauzatuko dute, eta, oraingoan, gainera, ekintzen laborategia ere eskutik joango da, 9 urtetik gorakoei zuzenduta

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE

Orain arte Uarkape pilotalekutik atera izan dute ekintzen laborategia, antolatzaileek azaldu dutenez, baina aurten aldaketa txiki bat egingo dute. "Haien-tzako espazio propio bat izatea nahi izan dugu orain arte, baina, haien iritziak aintzat hartuz, Txikilandia egitasmoan txertatuko dugu ekintzen laborategia, eta Uarkapeko eskuineko errebotea erabiliko dugu 9 urtetik gorakoei tailer bereziak eskaintzeko", nabarmendu dute Txatxilipurdiko kideek.

Tailerak aurrenerabeek erabakitakoak izango dira; izan ere, Haurren Kontseiluan parte hartzen duten ordezkariekin baturik landu dute gaia. "Ordez-kariak zein gelakideak izan dira ideiak proposatu dituztenak. Aurten, guztien iritziak kontuan hartuz antolatu dugu ekintzen laborategia".

Txikilandiaren eta ekintzen laborategiaren baitan, askotariko ekintzak egingo dituzte Uarkapen, Musakolako igerilekuan eta gaztetxean (Egitarau osoa, Goiena.eus-en).

Potx eta Lotxen emanaldia

Azken egunean, 10:30etik 13:30era eta 16:30etik 18:00etara, Uarkapeko jolas parkean eta gaztetxean



Astelehenean egin zuten Txikilandia aurkezteko prentsa agerraldia. OIHANA ELORTZA

aritzeko aukera egongo da, eta 19:00etan, Txikilandiari itxiera emateko, Potx eta Lotx pailazoan ikuskizuna egongo da Uarkapen-arratsaldean gaztetxean ez da tailerrik egongo-. Era berean, ekintzen laborategian goizez erronka jolasak egongo dira, eta arratsalde, eskalada tailerra. Ekintzen laborategiari itxiera emateko, aldiz, DJ Goikorekin disko festa egingo dute gaztetxean. "Uarkapeko ikuskizuna eta gaztetxeko disko festa ekintza irekiak izango dira eta ez da sarrerarik ordaindu beharko.

Hala ere, gonbidapenak leihatilari eskuratu beharko dira urtarrilaren 4an bertan eta mugatuak izango dira".

Sarrerak eta bonuak

Sarrera 3 eurokoa izango da 1-3 urte artekoentzat eta 4 eurokoa, berriz, 4 urtetik aurrerakoentzat -helduak, doan-. Edozelan ere, hiru egunerako bonuak eskuratu ahal izango dira: 1-3 urte artekoentzat, 5,5 euro; eta 4 urtetik gorakoentzat, 9 euro. Bi emanaldiak doakoak dira, baina sarrera mugatua izango da.

Ekin Emakumeak Elkartek prest ditu ikastaroak

Bigarren hiruhilekorako sei ikastaro prestatu dituzte, eta dagoeneko eman daiteke izena

E.A.B. ARRASATE

Ekin Emakumeak Elkartek sei ikastaro egingo ditu urtarriletik martxora arte: joskintza ikastaroa, puntuarena, kakorrazarena, *yin tao*, yoga eta *ecstatic dance*-a. Dagoeneko eman daiteke izena, eta horretarako hainbat bide dituzte: elkartean bertan (Pablo Uranga kalea, 4, behe), 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 telefono-zenbakietara deituta edo emakumeak@ekinemakumeak.eus helbidera idatzita.

Joskintza ikastaroko saioak martitzenetan eta eguenetan egingo dituzte, urtarrilaren 9tik martxoaren 14ra arte; puntu ikastarokoak, berriz, astelehenean, urtarrilaren 8tik martxoaren 18ra arte; kakorraz tailerak eguaztenetan izango dira, urtarrilaren 10etik martxoaren 20ra; norbere burua sendatu eta barne bakea lantzea helburu duten *yin tao* saioak hileko lehen eguenetan egingo dituzte; yoga saioak astelehenean izango dira; eta *ecstatic dance-souldance* saioa, azkenik, bakarra izango da, urtarrilaren 26an, Mesedetako ikastetxean.

Michelle Lenoire, Arantzazu Gonzalez, Kontxi Garmendia, Itziar Perez eta Agurtzane Al-tuna izango dira saioen gidariak.



NIRE USTEZ

ANDER GARAY

Oposizioari oposizio

Oposizioari oposizio egitea, hori izan zen Martin Garitanoren Foru Gobernuaren estrategia, eta hori izaten ari da EH Bilduren Udal Gobernuaren lehen sei hilabeteetako estrategia ere.

Estrategia honen atzean gestionatzeko gaitasun falta dago, gestionatzen ez dakizunean, arazoan aurrean, oposizioari oposizio egitea bakarrik geratzen zaizu eta. Argi ikusi ahal izan zen abendu osoko bilkuran, oposizioaren galderei alkateak emandako erantzun erasokorrekin.

Mecara bidean zuhaitz batzuk mozten dituztela, oposizioaren kulpak; antzokia urak hartu eta hilabetez itxita egon behar izan zela, errua oposizioarena; kale garbiketa kontratua denboraz ateratzen ez dutela, hau ere oposizioaren erantzukizuna; Iturripeko kiroldegia egin nahi ez dutela eta 2024ko aurrekontuan dirurik jarri ez dutela, oposizioa errudun.

Hala dabil EH Bilduren Udal Gobernua legegaldi hasieratik, oposizioari oposizio egiten, Martin Garitanoren estrategia bera erabiliz, gestionatzeko dituen gabeziak ezkutatzeko. Ordua da estrategia hori alde batera utzi eta arrasatearren beharrei erantzuteko, gestionatzen hasteko.



"Inoiz baino hobeto nagoela esango nuke"

ANDER MURUA PILOTARIA

Abanca-DV torneoa irabazi berri, Arrasatekoak urtea agurtu aurretik beste bi finalerako sailkatzeko aukera dauka: Zaldibarren eta Soroan finalerdietan da jada

Xabier Urtzelai Atxa ARRASATE

Ander Muruak (Arrasate, 24 urte) Abanca-DV txapelketako finalean txapela jantzi du Azpirozekin batera. Hala, 2018an galdutako finaleko arantza atera ahal izan du. Amateur mailan dihardu, eta urte borobila egin du, nahiz eta 2023a errematatzea falta zaion. Bi final joka ditzake oraindik.

Egubakoitzean Uarkapeko harmailetan Eskuz Binakakoa ikusteko asmorik bai?

Bai; bezperan partidua daukat, eta baita zapatuan ere. Horrenbestez, ezingo dut parrandarik egin. Baina frontoian sekulako giroa egoten da eta joateko asmoa dut, bai.

Norberaren herrira profesionalak datozenean... inbidia izaten da?

Egia esan, apur bat bai. Kantxan egon nahi izaten du norberak ere, baina tira, partidua ikusten gozatuko dugu.

Esan duzu ezingo duzula parrandarik egin...

Urtero pasatzen zait gauza bera. Edo sanjuanetan, edo maritxutan, santamasak... Torneoren bat beti egokitzen zaigu parean. Tira, ohituta gaude, eta pilotak du lehentasuna.

Profesionalekin ere ibiltzen zara entrenatzen... Altunak Lau eta Erdiko finala zurekin prestatu zuen.

Hutsuneren bat baldin badute deitzen naute, bai, eta ni pozarren joaten naiz. Halaxe da, Etxeberraren kontrako finala jokatu aurretik, Altunarekin entreatu nintzen aste barruan. Halakoak bizitza osoan gogoratzen diren momentuak dira; finala bera ere beste modu batera bizi izan nuen.

Zer moduzko urtea izan da 2023a?

Oso ona izan da; esango nuke inoiz baino hobeto nagoela. Ekainera arte maila politean jardun nuen eta udan ere ondo ibili nintzen. Abuztuan, baina, hiru astez gelditu behar izan nuen, atzamarrean nuen fisura bat osatzeko, eta gelditze hark on egin zidan. Esango nuke udan geratu izanagatik nagoela orain txispa politarekin.

Kazetariok nekagarri samarrak ere bagara, baina profesioaletara salto egiteko ametsak hor segitzen du?

Duela bi urte galdetu izan bazenit, ezetz esango nizun, baina azken urtean pilotari helduagoak ikusi ditugu profesioaletara salto egiten. Inoiz ez da esperantza galtzen, nahiz eta horrek ez nauen itsutzen.



Muruak -eskuman- eta Azpiroz -ezkerrean-, sari banaketan, Urretxun. A.M.

Aranes eta Vallejo onenak

Santamasetako Padel Txapelketako finalean, beste urte batez, Jorge Aranes eta Patxi Vallejos nagusitu dira. Norgehiagoka erabakigarrian, Aitor Magallanesi eta Ander Barrosori 7-6, 5-7 eta 6-2 irabazi zieten. Partidu parekatua izan zen, bi ibili egon ziren jokatzeko. Hala, bergarrek dagoeneko lauzpabost edizio irabazi dituzte: "Maila oneko kontrarioak izan ditugu".



IDOIA AZURMENDI



Zure gabonetako ezinbestekoak, prezio berean 2021az geroztik



EROSKI
Otarrainka basati gordin handia 18/26 ale 800 g



EROSKI
Olagarro egosiaren hankak 200 g

8,95
c/alea
44,75 €/Kg

2.alea
-50%
deskontuarekin

2.alea
4,47
c/alea
2.alea
33,55 €/Kg



EROSKI

ARRASATE

Prezio baliadunak
23/12/14tik
24/01/02ra,
freskoetan izan
ezik (kontsultatu
indarraldia
barrualdean).



Musakola z/g ARRASATE,

Tel.: 943 71 10 30



Beatriz Arzamendi eta Unai Urretxo. IDOIA ARANBARRI

Emozioak gainezka urteurren ekitaldian

'Ametsak betetzen' kontzertu berezia egin zuen Arrasate Musikaleko Orkestra Sinfonikoak domekan, Arrasate Musikalen 50. urteurrenaren ekitaldien barruan. Saioa zuzentzen bi arrasatear izan ziren: Beatriz Arzamendi eta Unai Urretxo

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE Arrasate Musikaleko Orkestra Sinfonikoak *Ametsak betetzen* kontzertu berezia egin zuen domekan Arrasateko Uarkape frontoian. Arrasate Musikalen 50. urteurrenaren ospakizunen barruan, egungo kideak nahiz kide ohiak elkartu ziren Beatriz Arzamendi eta Unai Urretxo arrasatearrek zuzendutako emanaldian.

Beatriz Arzamendik, Juan Arzamendi zenaren alabak, ez du berehalakoan ahaztuko domekan bizitakoa: "Esan dezaket aste osoan ametsetan nagoela, laino baten gainean bezala". Emanaldia oso hunkigarria izan zela nabarmendu du, eta gaine-

rako musikariekin partekatu duen mezueta ere gauza bera nabarmentzen dela: "Fantastikoa izan da, esperientzia sinestezina". Uarkapeko pilotalekuan 110 bat musikari elkartu ziren, egun musikan dabiltzanak eta musikari ohiak izandakoak; eta haien buru, mailako handiko bi zuzendari arrasatear: Unai Urretxo eta Beatriz Arzamendi.

Emozioz betetako ekitaldia

Emozioz hitz egin du Arzamendik domekako ekitaldiaz. Orkestra Sinfonikoaren ibilbidearen nondik norakoak jarraitzen dituela dio Madrilen bizi den zuzendariak, nahiz eta zehaztasun guztiak ez jakin: "Gaur egun

Orkestrak egiten duen guztiaren berri ez dut, baina badakit domekako kontzerturako jende asko etorri zela; adibidez, Bilboko Orkestra Sinfonikoan dabiltzanak, Bartzelonatik etorri zen jendea, Herbehereetatik, Bruselatik, Santandertik... Haie-tako asko, gainera, gaur egun profesionalak diren musikariak".

Arzamendik nabarmendu nahi izan du emanaldi nostalgikoa izan zela: "Orkestraren hasierako urteetan jotzen genituen obrak izan ziren emanaldian eskainitakoak. Gure aitak moldatzen zituen lanak; jostun lanak egiten zituela esan daiteke, garai hartako mailara egokitzeko. Ondoren, poliki-po-

liki bertsio originalak jotzen genituen". Aitak "miraria" egin zuela gehitu du, orduan zegoen mailarekin orkestra bat sortu zuelako.

Arrasate Musikaleko familia

Arzamendirendako familia bat izan da Arrasate Musikal: "1972ko azaroaren 2an jarri zen martxan Arrasate Musikal, 363 ikaslerekin; ni haietako bat nintzen. Nire ume garaiko oroitzapen guztiak Arrasate Musikalekin lotuta daude: orkestra, balleta, solfeoa... Egubakoitzetan, zapa-tuetan eta domeketan entseatzen genuen. Familia bat zen".

Unai Urretxo musika zuzendari arrasatearra ere iritzi berekoa da. Ilusioz bizi izan zuen domekako emanaldia. Gaur egun, Hego Koreako Suwon Unibertsitateko orkestrako zuzendaria da Urretxo, baina oso gogoan du non hasi zuen musika ibilbidea: "8 urterekin hasi nintzen musika munduan. Gogoan dut Juanito Arzamendik test bat egiten zuela solfeoa ikasten has-teko; bada, horri esker ikasi nuen eta gaur egun nagoen lekuan nago". Domekako emanaldia oso egun berezia izan zela aitortu zuen kontzertua amaitu eta berehala, eta oso eskertuta zegoela nabarmendu zuen. "Arrasate Musikalen tronboia jotzen hasi nintzen; hortaz, 50. urteurreneko ekitaldirako deia jaso nuenean uste nuen tronboia jotzeko izango zela, eta izugarritzko ilusioa egin zidan zuzentzeko eskatu zidatenean".

Dio Arrasatek altxor berezia duela Arrasateko Musikalekin, eta herritarrei eskatzen die jarraitzeko parte hartzen eta musika ikasten. Marta Izagirrek eta Edorta Aiastuik egiten duten lana goraiatu du.

Udal bibliotekak Gabonetako lehiaketa dauka martxan

Arrasateko Udal Bibliotekak Gabonetako lehiaketa jarri du martxan. Urtarrilaren 7ra arte egongo da aukera online dagoen edo bibliotekan bertan eskura daitekeen galdetegi betetzeko. Galdetegiak Arrasateko historiari eta kulturari buruzko zapi galdera ditu: zozketa egingo dute galdera guztiak ondo erantzuten dituzten herritarren artean. Adin guztiei zuzendutako lehiaketa izango da. Zozketatuko dituzte 60 euroko sei bonu Elkar Arrasate saltokian erabiltzeko eta zozketatuko dituzten sei bonuetatik erdiak adin txikikoei emango zaizkie. Udal Bibliotekak herritarrek animatu nahi ditu lehiaketan parte hartzera.

Kooltur ekimenaren barruan, Belako taldeak joko du

Belako taldeak kontzertua egingo du abenduaren 28an Arrasateko gaztetxean, Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan. Mungiako taldeak *Sigo regando* diskoa aurkeztuko du, aurtengo udan Londresko Tamesis ibaian aurkeztutakoa, itsasontzi baten gainean. Horrez gain, kantu zaharrak ere joko dituzte. Belako taldeari etiketak jartzea zaila da, baina taldeak berak rock alternatibo moduan aurkezten du bere burua, etiketa orokorra delako. Bada, Mungiako laukotearen musikaz gozatzeko aukera egongo da gaztetxean datorren astean. Emanaldia 22:00etan izango da eta sarrera 7 euro kostako da.



Dantza taldearen historia, dokumentalean

Mikel Serrato aramaioarrak egin du taldearen ibilbidea jasotzen duen ikus-entzunezkoa. Pandemia aurretik hasi ziren grabatzen. Abenduaren 30ean estreinatuko dute, omenaldi xume baten barruan, 18:00etan, kultura etxean

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Gabonetako egitarauaren barruan, Lagun Artean dantza taldearen dokumentala iragarrita dago. Abenduaren 30ean estreinatuko dute ikus-entzunezkoa, 30 minutu inguru irauten duena. 67 urte dituen dantza taldearen ibilbidea jaso dute, elkarrizketa eta irudi bidez.

Maitane Gomez de Segurak azaldu du aspalditik zutela dantza taldearen ibilbidea jasotzeko asmoa, eta, bide batez, omenaldi sinbolikoa egiteko dantza taldea sortu zutenei eta urte hauetan guztietan bizirik mantendu dutenei. "Udaletik dirulaguntza jaso genuen ikus-entzunezkoari forma emateko", dio Gomez de Segurak. Bada, urte hauetan guztietan dantzari izan direnak, irakasle izan direnak... Ahots horietako batzuk jaso dituzte ikus-entzunezkoan.

Ahotsen bilketa

Orain dela hiru urte hasi ziren grabazioarekin. Mikel Serrato aramaioarrak grabatu eta editatu du lana eta Rosa Mondragonek egin ditu elkarrizketak. Elkarrizketatu dute dantza taldearen sortzaile izan zen Ramon Ormaetxearen alaba Izaskun; Mertxe Mondragon; Patxi Aias-tui txistularia; Juan Mari Urizar; Ibon Kortabarria; egungo irakasle Oihane Vicente; Ainara Inuntziaga...

Elkarrizketak irudiekin janzteko, garai bateko argazki zaharrak erabili dituzte, eta baita azken urteetan egindako dantza erakustaldietako bideoak ere. Azken irudiak orain dela hila-bete eskas grabatu zituzten.

Taldearen ibilbidea jaso dute, batetik; baita taldea bultzatu dutenen lana omendu ere. Gainera, ikus-entzunezkoak erakusten du taldeak izan duen bilakaera; besteak beste, dantzarien janzkeran ikus daiteke hori, eta baita koreografiatan ere.



Dantza taldeko umeak eta irakasleak. ARAMAIOKO UDALA



Elizako eskaileretan hartutako irudia. A.U.



Neska-mutilen talde bat. A.U.

Asier Agirre izango da Aramaioko alkate berria

Atzo egin zuten ezohiko osoko bilkura: EH Bilduren aldeko botoak jaso zituen Agirreren aldeko hautagaitzak

A.E.G. ARAMAIO

Abenduaren 5ean jakinarazi zuen Iban Herrartek alkate kargua utziko zuela; eta astelehenean, abenduaren 18an, eman zion udal idazkariak erabakiaren berri gainerako udal ordezkariari presazko ezohiko bilkuran. Jarduneko alkate kargua Libe Ramilak hartu zuen astelehenean, behin-behinean.

Atzo, eguena, ezohiko osoko bilkura egin zuten alkate berria izendatzeko. EH Bilduk Asier Agirre aurkeztu zuen eta EAJK, Alberto Amenabar. EH Bilduren aldeko botoekin –bost boto– Asier Agirre izango da Aramaioko alkate berria. Ondo ezagutzen du kargua Agirrek, 2007tik 2011ra arte izan zen-eta Aramaioko alkate.

Atzo, alde batetik, Libe Ramilak uko egin zion astelehenean hartutako behin-behineko alka-



Asier Agirre. GOIENA

te karguari, eta ondoren egin zuten bozketa alkate berria izendatzeko. Gaur-gaurkoz, Iban Herrartek zinegotzi izaten jarraitzen du: urtarrilean egingo dio uko karguari eta orduan beste zinegotzi bat sartuko da udalbatzara.

Gabon kanten saioa Bizente Goikoetxea abesbatzaren eskutik

Bizente Goikoetxea abesbatzak *Gabon kantak* kontzertua egingo du domekan, hilaren 24an, Ibarako elizan. 12:00etan izango den meza nagusiaren ostean egingo dute emanaldia. Anton Herrarte da Bizente Goikoetxea abesbatzako zuzendaria. Abesti tradizionalak aurkeztuko dituzte abesbatzako kideek, entzuleen gozamenerako.

Berdintasun Sailak 2024a prestatzen dihardu, herritarrekin

Gorbeialdeko Berdintasun Zerbitzuak urteko programazioa eta helburuak osatzeko galdetegi bat jarri du herritarren eskura. 2024ra begira eskualdeko emakumeen, mugimendu feministaren eta berdintasunaren alde lan egiten duten eragile sozialen, ikastetxeen... beharri-zanak ezagutu nahi ditu. Web atarian dago galdetegia.

Kintelena janari-denda hartzeko interesa dutenei deia

Kintelena janari-denda hartzeko interesa dutenen bila dabilta. Oharra argitaratu dute Udalaren web atarian: Kintelena hartzeko interesa dutenek 688 69 57 63 telefonora dei egin dezatela adierazi dute. Herriko janari-dendaren etorkizuna kolokan dago; hala adierazi zuten apirilean egindako bileran, eta lantaldea sortu zuten gaiaz hausnartzeko.

Domekan etorriko dira Olentzero eta Mari Domingi

Frontoian egingo zaie aurten ongiatorria Olentzerori eta Mari Domingiri. Etzi, domeka, izango da, 18:00etan, guraso elkarteak antolatuta. Gabonetako egitarauari begira jarrita, nabarmendu behar da abenduaren 29an Kultura etxean egongo den antzezlan: 14 urtetik gorakoei zuzenduta, *Kris eta Krash ile-apaindegian* aurkeztuko dute.

Ekitaldi mordoa Gabon giroan murgiltzeko

Hainbat kontzertu, antzezlan eta bertso saio izango dira egunotan, eta bihar, erakusleihen lehiaketaren sarien berri emango dute; Olentzero eta Mari Domingiren etorrerarekin, bete-betean sartuko dira herritarrak sasoiko ospakizunetan

Mirari Altube ARETXABALETA

Gabon garaia erakusgarri dira egunotan herriko saltokietako erakusleihen. Ahalegin handia egin dute merkatariak horiek apaintzen, eta lehiaketako sarrituen berri bihar emango du Udalak.

Kontzertuak eta antzerkiak

Egunotako kultur ekitaldiei, oster, bihar, abenduak 23, ekingo diete, Arkupen; etxeko Nhil taldeak bigarren diskoaren birako azken kontzertua emango du, hainbat gonbidatuk lagun eginda, baina sarrerak agortuta daude -33. orrian artikulu osatua-.

Abenduaren 26an, oster, Txalo Produzkoak konpainiak *Sagastitarrak* antzezlan umoretsua ekarriko du eta oholtzan izango dira Joseba Apaolaza, Ainhoa Etxebarria eta Koldo Olabarri.

Bertsoei ere egin diete lekua, beste urte batez, eta abenduaren 27an honako bertsolari hauek elkartuko dira: Aitor Mendiluze, Joanes Illarregi, Miren Artetxe eta Ane Zuazubiskar. Aretxabaletan bizi den Aitor Lizarazu bertso-zaleak jarritako gaiekin egin beharko dute lan haiek.

Eguenean, abenduaren 28an, Goiko Gela taldeko Karlos Etxaniz, Jon Imanol Etxabe, Olatz Otxoa eta Santi Romano ahotsak Elvis Presleyren gospel abesti ospetsuenak interpretatutako dituzte *Elvis gospel* ikuskizunean.

Umeek *Munduari itzulia 80 egunetan* antzezlan izango dute Sustrai Teatroaren eskutik hilaren 29an; Eriz Alberdi aktoreak Phileas Fogg-en istorioa kontatuko die, zakar poltsak, erratzak, zoru-garbigailuak eta trapuak erabilita.

Aretxabaleta Abesbatzak ere egingo du Gabonetako kontzertua; abenduaren 30ean izango da, parrokan. Bi zati izango ditu emanaldiak: lehenengoan, Mozarten *Koroazio meza* abes-



Herritar bat saltoki bateko erakusleihen begira. MIRARI ALTUBE

Kontzertuak eta antzerkiak

Abenduak 23
19:00 Kontzertua: Nhil taldea -agortuta-.

Abenduak 26
19:00 Antzerkia: *Sagastitarrak*.

Abenduak 27
19:00 Bertso saioa: Aitor Mendiluze, Joanes Illarregi, Miren Artetxe eta Ane Zuazubiskar.

Abenduak 28
19:00 Gospel kontzertua: Goiko Gela.

Abenduak 29
17:00 Antzerkia: *Munduari itzulia 80 egunetan*.

Abenduak 30
20:00 Kontzertua: Aretxabaleta Abesbatza - parrokan-.

tuko dute; eta bigarren, Gabonetako kanta ezagunak.

Olentzero eta Mari Domingi
Gabon jaietako izarrak, baina, Olentzero eta Mari Domingi dira, eta, ohi legez, abenduaren 24 eguerdian (12:00) iritsiko dira Herriko Plazara, umeen gutunak jasotzera. Aurretik, Lekaixoka bertso eskolako kideak eta Ixotu euskara taldekoak koplak kantatzera joango dira auzorik auzo; 08:30ean elkartuko dira Aretxabaleta okindegian lanari ekiteko -baserritar jantzita-. Geroago (10:30), umeek ere egingo dute kantuan herriko kaleetan, eta balkoietatik botatuko boloa jasoko dute sarritzat. Iluntzean (18:30), eguneko bi pertsonaiek herria zeharkatuko dute gurdian, kiroldegitik abiatuta.

Abenduaren 31n, Bizarzuriren txanda izango da, eta hark ere herria zeharkatuko du (18:30). Berdin egingo dute urtarrilaren 5ean Errege Magoek. Urtarrilaren 3an eta 4an, oster, Gabonetako parkea izango dute 3 eta 12 urte arteko neska-mutikoen kiroldegian (11:00-13:00 eta 17:00-20:00).

Gabon garaiko ospakizunekin bukatuko du urtea Basotxok

Mus eta tute txapelketak jokatu dituzte, hogeitau otarre zozketatu, eta txistor-jana izan dute San Tomas egunean

M.A. ARETXABALETA

Gabonen atarian, mus eta tute txapelketak jokatu zituzten Basotxoko bazkideek. Irabazleak izan ziren Miguel Rico eta Antonio Vidriales, eta txapeldunordeak Jose Ramon Ugarte eta Jose Mari Castellanos. Tutean ere Rico eta Vidriales nagusitu ziren, eta bigarren geratu Jesus Mari Galdos eta Justo Guruzeta.

Urtearekin batera amaitu egingo da Udalak, Basotxok eta Gurea tabernak egindako akordioa. "Luzatu egingo dugu, eta, komentuko lanak bukatu artean, apiril arte, Gureak jarraituko du izaten erretiratuen taberna", azaldu du Migel Elortzak, Basotxoko presidentek.

Triziklo bi ALErekin elkarlanean
Datorren urterako ekimenen berri ere eman dute. Aretxabaleta Lanbide Eskolak triziklo



Vidriales eta Rico, antolatzaileekin. BASOTXO

bi eskuratuko ditu eta horiek Basotxo erretiratuen elkarte kideek erabili ahal izango dituztela adierazi du Elortzak: "Adinekoak hara eta hona eramateko izango lirateke; adibidez, eguneko zentrorra joan-etorriak egiteko, paseoan irteteko..."

Fernandez finalean

Errendimendu mailako pilotariak eskuz banakako finalurrekoak jokatu dituzte, eta finalerako sailkatu den bakarra Andoni Fernandez izan da, Soralezeko pilotari bati irabazita. Akizu eta Belako alebinez azkoitiarren aurka jardun zuten, eta ez bata ez besteak ez zuen aurrera egiterik izan; infantil mailan, Assham-ek ere galdu egin zuen, lazkaotar baten aurka.



ARETXABALETA KIROL ELKARTEA

Karmele Igartua bekaren saria abenduaren 30ean

Bergarako Idazle Eskolak eta Udalak elkarlanean antolatutako XIII. Karmele Igartua sorkuntza lehiaketaren sari bana-keta ekitaldia abenduaren 30ean egingo dute, 12:30ean, Arkupen. Gazteei eta hurrei bideratutako antzezlanak eta gidoiak aurkeztu behar ziren eta sei lan jaso dituzte. Irabazleak 2.500 euroko saria jasoko du.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

'Konponbiderako giltzak' izatera dei egin du Sarek

"Presoen etxeratze bideari jarritako oztopoak" salatu eta konpontzeko ekimenarekin bat egitera gonbidatu dituzte herritarrak: abenduaren 30ean, puzzlea osatuko dute; eta 31n, Kurtzebarri tontorrean argazkia atera eta iluntzean elkarretaratzea egin

Mirari Altube ARETXABAETA

Sakabanaketa politikaren amaierarekin fase berri bati ekin zion Sarek urte hasieran, presoen etxeratzea eskatuta. Bide hori, baina, ez dabilela erraza izaten dio Aretxabaletako Sareko kide Txarli Garciak: "Presoek baldintza guztiak beteta izan arren graduen progresioa eskuratzeko, baldintzapeko askatasuna lortzeko edo baimen bereziak izateko, oztopoak izaten dabilta behin eta berriz Auzitegi Nazionaletik". Ildo horretatik, Gari Garcia Arrieta aretxabaletarraren egoera ekarri du gogora: "Baldintza guztiak beteta baditu ere hirugarren gradua eskuratzeko, oraindik bigarren graduan jarraitzen du".

"Konponbidea sustatu"

Sakabanaketaren amaiera "urteetan egindako lanari esker" eta, bereziki, "azken urteetan lortutako akordio zabalari esker" izan dela dio, eta horren ondorioz

gertatutako aktibazio sozialaren eraginez. Fase berrian ere ildo beretik jarraitu gura dute, eta helburu horrekin aurkeztu zuten urrian *Konponbiderako giltzak* manifestua: "Gehiengo sozial, politiko eta sindikalak bat egin zuen eta 2.000 atxikimendu baino gehiago jaso ditu. Manifestu horren helburua da akordioa bultzatzea, bi eskaerarekin: euskal presoei lege arrunta aplikatzea eta biktima guztientzat erreparazioa".

Bide hori urratzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte: abenduaren 30ean (19:00), kalejira egingo dute Mitarte kaletik plazaraino, eta han puzzlea osatu; abenduaren 31n, Kurtzebarri argazkia aterako dute (11:00), eta iluntzean (19:00), plazan elkartuko dira urtea agurtzeko.

Halaber, urtarrilaren 13ko Bilboko manifestaziora gonbidatu dituzte herritarrak; autobusa antolatuko dute, eta txartelak Urbaltzen egongo dira salgai.



Hainbat herritar, giltzak eskuartean, Sarek egindako deialdiara gonbidatzen. M.A.



Aretxabaleta Lanbide Eskola eta Gu Haziak Gara elkarteak bat eginda, Gabonetako zuhaitza eraikitzen

Oinarritzko Lanbide Heziketako zikloko ikasleek zuhaitzaren oinarria egin dute galdaragintzako tailerretan, eta apaintzeko, gantxilozko oihalak erizaintza zaintza osagarrikoek.

Gu Haziak Gara elkarteak proposatutako Gabonetako zuhaitzaren zati bat Aretxabaleta Lanbide Eskolan egin dute. Ikastetxeak oinarritzko Lanbide Heziketako zikloa du aurtan, lehen aldiz, eta hamabi ikaslek askotariko lanak egiten dihardute. Horietako bat izan da Gabonetako zuhaitzaren oinarria egitea, galdaragintzako tailerretan. 15 eta 17 urte arteko neska-mutil gazte horiek lehen aldiz aritu dira lanean tailer batean, baita lan

bikaina egin ere. Gainera, eskatu barik, oparia ere egin diote zuhaitzari.

Bestalde, erizaintza zaintza osagarriko ikasleek zuhaitza atontzeko gantxilozko oihalak egin dituzte. Horretarako, Gu Haziak Gara elkartearen egoitzan egon dira ikasleak hainbat egunez gantxiloa egiten ikasten. Elkarlan polita izan da eta asko ikasi dute elkarrengandik; Gabonetako ALEa jarri dute.



MIRARI ALTUBE

Bertsoak 2022an jaiotakoentzat

Lekaixoka bertso eskolak eta Udalak elkarlanean, oparia banatu diete 2022an jaiotako umeen familiei: bertso liburua. 32 neska-mutikoren familiek jaso zuten hori, martitzenean Arkupen egindako ekitaldian. Ume bakoitzari eskainitako bertsoarekin eta argazkiarekin osatutako bilduma da, eta familiek pozik jaso zuten.



laz, Olentzero eta Mari Domingi, Eskoriatzako erdigunera iritsi berri, traktore gainean eserita. IMANOL BELOKI UNAMUNO

Traktore gainean iritsiko dira ilusioa banatzera

Domekan, goizean hasita izango dira ekintzak herriko plazan, eta 18:00etan iritsiko dira Olentzero eta Mari Domingi. Hiru egunetan izango da haurrentzako jolas-parkea kiroldegian, eta Silbestradiek ere ez du hutsik egingo urtea amaitu aurretik

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Gabonetara begira hitzordua ugari antolatu ditu Eskoriatzako Udalak, eta horietan kuttunena abenduaren 24rako prestatzen den egitaraua izaten da. Egitarau xume baina berezia; batez ere, herriko txikientzat. Izan ere, 12:00etan, Fernando Eskoriatza plazara iritsiko dira Olentzeroren eta Mari Domingiren laguntzaileak haurren eskutitzak jasotzera. Horrekin batera, Gabon kantak abesteko tartea hartuko dute, baita bertan prestatuko dituzten gaztaina erreka jateko ere. Ondoren, 13:00etan, Trikitixa Eskolako ikasleekin kalejira izango da.

Arratsaldean, berriz, 18:00 aldera, Olentzero eta Mari Domingi traktorean iritsiko dira herrira Apotzagan behe- ra, eta herrian zehar ibilbidea egingo dute. Gozokiak botako dituzte traktore gainetik, eta haurrek eurekin argazkiak ateratzeko aukera ere izango dute, bide batez, urte osoan

zein ondo portatu diren azpimarratzeko.

Gabonetako parkea kiroldegian Abenduaren 26an, 27an eta 28an Gabonetako jolas-parkea izango da Manuel Muñoz kiroldegian. Jokoak eta jolasak abenduaren 26an igerilekuan izango dira eta 27an eta 28an, berriz, kiroldegiko kantxan. Bi txandatan banatuko da parkerako sarrera: 3 eta 8 urte bitartekoak 17:00etatik 18:30era bitartean heldu batekin lagunduta joan beharko dute; eta 9 eta 12 urte bitartekoak, berriz, 18:30etik 20:00etara bitartean. Bertan, puzgarriak, tailerrak, ohe elastikoa, Wii eta Xbox-ekin jolas- teko aukera izango dute berta-

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI 18:00 ALDERA IRITSIKO DIRA HERRIGUNERA, TRAKTOREAN

ratzen direnek, eta, kantxarako egun baterako sarrera bost euro bada ere, jolas-parkean eskainiko duten zerbitzu osorako bonua ere erosi ahal izango dute, hamar eurotan; hau da, igerilekuko parkera sarrera eta bi eguneko kantxako parkerako sarrera.

Silbestradie, beste urte batez Aurten, XIV. Silbestradie eta XI. Manuel Muñoz Milia jokatuko da, abenduaren 31n. Herri lasterketa da, eta lagunartean moztortuta irteteko ohitura ere izaten da -kasu horretan, moztorro onenari saria ere izaten da-. 11:00etan, haurren izen-ematea eta aurpegi margotzea izango da, eta 12:00etan hasiko da 14 urtetik beharkeko lasterketa. Txistor-jana izango da 12:30ean, eta arratsaldean, 17:00etan, helduen izen-ematearen ostean, topa egin eta 17:30ean hasiko da lasterketa. Proba amaitzean, berriz, luntxa izango da.

Material informatikoa eta instrumentuak ostu dituzte

Laguntza ekonomikoa eskatu dute Beheko Errota musika eskolak "egoera kritikoari" aurre egiteko

I.B. ESKORIATZA

Abenduko zubian lapurreta izan zen Beheko Errota musika eskolan. Material informatikoz gain, instrumentu asko lapurtu zituzten, eta egoerari aurre egiteko laguntza eskatu dute. Araceli Telletxea Beheko Errota musika eskolako zuzendariak azaldu duenez, lapurretak egoera kritikoan utzi du musika eskola: "Lapurtu duten materiala musika eskolako da, eta, beraz, eskolak emateko arazoa dugu orain. Abenduko zubiaren ostean, apurka-apurka hasi ginen lapurtu zituzten konturatzen. Material informatiko berria genuen jarrita; izan ere, ekainean musika eskola urez bete zitzailen, eta jarri berri genuen ordenagailu berria lapurtu digute; horrez gain, bi akordeoi, bost biolin, hiru gitarra elektriko, gitarra klasikoa, anplifikadorea...

Ez dakit nola egingo diogun aurre egoerari. Behintzat, ez dizkiete lapurtu instrumentu pertsonalak ikasleei".

Ekarpen ekonomikoak egiteko Lapurretaren ostean, ez dakite nola jarraituko duten eskolak ematen instrumentu barik. Hori dela eta, musika eskolak laguntza eskaera egin dio herriari, dirua behar baitute instrumentuak erosteko, nahiz eta bigarren eskukoak izan, eta eskoriatzarrei eskatzen diete bakoitzak ahal duen neurrian egin dezala ekarpen ekonomikoa. Musika eskolatik azpimarratu dutenez, "edozein kopuru ongiatorria izango da". Bi kontu-zenbakietako edozeinetan egin daiteke diru-sarrerera, *Dohaintza* kontzeptu gisa jarrita. Laboral Kutxa: ES88 3035 0044 86 0440004015; edo Kutxa-bank: ES33 2095 5038 45 1061029202.

Frontenis eta eskupilota txapelketak hilaren 23an eta 30ean

Marixol Eskoitzara! lelopean, Gabonetako Elkartasun frontenis eta eskupilota txapelketak antolatu dituzte Eskoriatzako Sarek eta Ernaik: abenduaren 23an, frontenis txapelketa jokatuko da; eta hilaren 30en, eskupilotakoa. Biak bikoteka, Joseba Inurrategi frontoian. Hamabost euro ordaindu beharko da parte hartzeko eta aurten ez dela txapelketa mistoa izango adierazi dute antolatzaileek. Izena emateko, berriz, karteletan dagoen QR kodearen bitartez bete beharreko formularioa bete beharko da, nahiz eta txapelketa egunetan ere egongo den aukera izena emateko.

Partiduak 09:00etan hasiko dira eta finalaurrekoa eta finala 16:00etan jokatuko dira. Partida bakoitzak hamabost minutu iraungo du. Sariak honako hauek izango dira: Bergarako Zumelaga jatetxean bi pertsonarendako bazkaria irabazleentzat, Gerrigardo garagardo-sorta eta Atxaldeko gazta bat.

Kontzertuak antolatu dituzte Aldatz eta Inkernu tabernetan

Abenduaren 25erako, urteroko ohiturari jarraituz, kontzertua antolatu dute Atxorrotz Kultur Elkarteko kideek, Inkernun. Aretxabaletako eta Eskoriatzako musikariek ostaturako Jasantaldea arituko da, 22:00etan. Abenduaren 30ean, berriz, Arrasateko Aggressive Combat taldeak eskainiko du kontzertua, 19:00etan, Aldatz tabernetan.

Areto futboleko txapelketa jokatuko da hilaren 30ean

18 urtetik gorakoei zuzenduta, *Futbarrio* izeneko areto futboleko txapelketa jokatuko da abenduaren 30ean, Manuel Muñoz kiroldegian. Hain zuzen, 7-12 jokalariz osaturako taldeak izan behar dute, eta izen-emateak hilaren 25a baino lehen egin beharko dira. Talde bakoitzak 50 euro ordaindu beharko ditu.

"Gure sekretua etxeko jana ematea izan da"

JUAN ROKE ELORZA AGIRRE TXALAPARTA JATETXEKO JABE OHIA
40 urteren ostean, erretiroa hartu du Rokek, emazte Txarorekin batera. Hala, Txalaparta jatetxeko jarduna utzi dute, baina, alokatu egin dutenez, izango du jarraipena

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA
Juan Roke Elorza Agirre (Aretxabaleta, 1960) Txalaparta jatetxeko jabea izan da 40 urtez, eta erretiroa hartzeko ordua iritsi zaio. Urteak zeramatzen erretiroa hartuko zuela esaten, baina, aurreikusitako baino lehena, halabeharrez, eta lokala alokatzeko aukera suertatuz, uztea erabaki du.

40 urtez izan zara Eskoriatzako Txalaparta jatetxeko jabea. Nolako esperientzia izan da?

Ba, imajinatu aretxabaletar bat Eskoriatzan lanean... Ez... serio jarrita, oso esperientzia aberasgarria izan da, eta eskuak zabalik hartu ninduten hasieratik. Izan ditudan bezeroak oso jatorrak izan dira, eta, lan oso lotua eta sakrifikatua bada ere, lan egiten disfrutatzen ikasi dut; lanbide honetan ez dago beste erremediorik.

Nola hartu duzue Txalaparta uzteko erabakia?

Urte bat gehiago irekita mantendu nahi nuen, baina azken urteak gogorrak izan dira. Duela zazpi urte, koloneko minbizia izan nuen, eta, urtebete lan egin gabe egon ostean, aurrera jarraitu genuen; gainera, nire emazteak, Txarok, belaun bat txarto zeukan, eta zenbait hila-betez egon zen lan egin gabe; eskuekin ere bai, karmo-tunel delakoarekin... Operazioa zuen, baina egiten bazuen beste sei hilabete bazen beste sei horrela, alokatzeko aukera izan dugu eta urratsa egin dugu.

Nolako izan zen Txalaparta jate-txarearen hasiera?

Soldaduskatik iritsi berri, Coprecin lan aukera izan nuen, baina lana jaitsi zen eta Juan Felix Iregiri esan nion taberna bat zabaltzeko. Hura lau urte inguru izan zen nirekin, eta, hark ez zuenez jarraitu nahi, ni geratu nintzen. Hasiera gogorra izan zen, baina garai hartan lan gehiago egiten zen tabernetan,



Roke Elorza, Txalaparta barruan, asteen. IMANOL BELOKI

"BEZEROEI EMAN NAHI NIZKIEKE ESKERRAK; LANGILEEI ETA, BATEZ ERE, TXARORI, EMAZTEARI"

jendea gehiago aritzen zen egunerokoan eta mugimendu handiagoa izaten zen.

Pertsona ezagun asko ere izango ziren Txalapartan bazkaltzen. Bazu inor bereziki gogoan?

Alkate asko izan dira, esaterako, gurean; batzuk zerbait hartzen, beste batzuk bazkaltzen. Eneko Goia, Juan Mari Aburto, Joseba Asiron... Joseba Argiñano ere izan da bertan. Zenbait txirrindulari ere izan dira, eta pilotari asko ere bai: Aimar Olaizola, aspaldi, esaterako.

Eskoriatzan menu bat jateko aukera gutxi daude, eta beharra badago.

Eskoriatzak behar du 50 lagun inguru batzeko leku bat. Nik ere pena hori badut; izan ere, gurean 28 lagun sartzen ziren, eta barran beste hamar sartzea posible zen, baina talde handiei ezetz ere esan behar izan diegu

askotan. Horrekin batera, etxeko jana da bezeroek baloratzen dutena. Guk menua eta karta izan dugu beti; plater konbinatuak ez genituen ematen. Buztana, tripakiak -lehen prestatzen ziren moduan, amaren errezeptarekin- eta bakailaoa. Horiek ziren plater izarrak.

Huizeki unibertsitatea parean izatea ere lagungarri izango zenuten.

Eta eskerrak horri. Herriko ostalari askok eskertu dugu unibertsitatea izatea. Egutero menua jatera ere etorri izan dira asko, baita gremioetako langileak ere; haiei esker egin dugu aurrera. Oso gustura izan naiz izan ditudan bezeroekin.

Esker mezurik eskaini nahi duzu?
Batetik, izan ditudan bezero guztiei eman nahi dizkiet eskerrak, eta baita Txalapartan lanean izan diren pertsona guztiei. Nire seme-alaba Aitorri eta Nereari, eta, amaitzeko, batez ere, Txaro Ancin nire emazteari. Hura izan da Txalaparta aurrera eraman duena urte hauetan guztietan; sukaldeko motorra. Horrez gain, negozioa hartu duenari pazientzia izateko eskatzen diot, eta jarraitu dezala beste 40 urtez Txalapartak bizirik.



2018an Dorletako Santutegian egindako erakusketa batutako zenbait kide. GOIENA

Mailloten erakusketa finkoa ezartzeko oniritziaren zain

Dorletako Ama Txirrindulari Elkarteak gordeta dituen ziklista esanguratsuen maillotak erakutsi nahi ditu

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA
Dorletako Ama txirrindularien zaindaria da 1958az geroztik, eta ziklista ugarik utzi dituzte maillotak han oroigarri gisa. Horiek ondo mantentzeko eta jendeak ikusteko erakusketa finko bat ezarri nahi dute Dorletako Ama Txirrindulari Elkartearen kideek. "Ziklistek garai batean ekarri zituzten eta ekarriko dituzten maillotak egongo dira ikusgai. Tokia elizak utzi digun zati bat da, eta gure asmoa da gehitzen joatea", adierazi du Dorletako Ama Txirrindulari Elkartearen Alberto Altubek. "Proiektua egin-

da dago. Aldundian eta Eliza erakundean aurkeztuta, azken diktamenaren zain gaude", gaineratu du Joxerra Agirreurretak, Dorletako Ama Txirrindulari Elkartearen kideak.

Erakusketa harrera ona
Euskal Herriko txirrindulariak izeneko erakusketa ireki zuten, denbora mugatu batez, 2018an. Maillotak eta argazkiak jarrita, arrakasta ederra izan zuten. Bisitan izan ziren, esaterako, Jesus Aranzabal, Paco Galdos, Txomin Perurena, Marino Lejarreta eta Joseba Beloki.



IMANOL BELOKI

Berreskuratuta eta erabilgarri

Amaitu dituzte Tellerixa (Arlaban mendatea) bidegurutzetik Gure Ametsa jatetxeraino egiten ari ziren lanak, zapaltzea falta den arren. Leintz Gatzagako Udalak eskatuta eta Foru Aldundiak babestutako lan horiek bukatuta, Vasco-Navarro bide berdeko zati hori egokitu dute, eta urrats bat egin da Gatzagako biztanleen mugikortasunaren alde.

Egitarau oparoa, ilusioa ezin da-eta programatu

Gabonetako egitarauaren barruan ia egunero egongo da zertaz gozatu urtarrilaren 7ra arte, bereziki familiei zuzendutako askotariko ekintzekin. Bestalde, bihar San Antonion egingo den Napar Feriak 25. edizioa biziko du, azokaz haragoko goiz osoko egitarauarekin

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Aurtengo Gabonetan ere ia egunero egongo da zertaz gozatu, bereziki familiei eta umeei begira. Jolas parkeak Labegaraietan eta Udal Pilotalekuan, ur jolasak Agorrosin Kirol Gunean, ohe elastikoak Munibe plazan, Potx eta Lotx pailazoan ikuskizuna Seminarixoa...

Oparirako gutunak non utzi

Etxeko txikienentzat egun bereziena domekakoa izango da, abenduaren 24a. Mari Domingik eta Olentzerok herrigunera, Osintxura eta Angiozarrera egingo dute bisita. Hain zuzen ere, domekara arte utzi ahalko dira gutunak udaletxe atarian dauden Mari Domingiren eta Olentzeroren pampinen saskian. Hezur-haragizko Mari Domingik eta Olentzerok domekan bertan jasoko dituzte gutunak udaletxean bertan, 18:00etan.

Bestalde, Bergaran tradizio berezia duten Errege Magoen desfilearen aurretik ere gutunak utzi ahalko dira udaletxe atarian, urtarrilaren 5ean. Izan ere, Errege Magoek postontzia utziko dute bertan alde aurretik, eta desfilearen ostean jasoko dituzte umek postontzi horretan utzitako gutunak. Honako hau izango da desfilearen ibilbidea: udal biltegia, Masterreka, Bideberri, Ibargarai, Herrilagunak, Irala, Irizar, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekalea, Arruriaga eta udal biltegia.

25. Napar Feria egingo dute bihar

Gabonetako klasikoetako bat bihurtu da dagoeneko San Antonio auzoko Gure Ametsa elkarteak antolatutako ohi duen Napar Feria, hainbat bergararrek ohitura dute-eta Gabonetako otorduetara begira Nafarroako produktuak han erosteko. Bihar, hilak 23, jarriko dute azoka, bederatzi posturekin eta Nafa-

rruako askotariko produktuekin: pastak, gazta, txokolata, askotariko kontserbak, hestebeteak... Denetarik erosteko aukera egongo da.

Aurtengoa, gainera, 25. edizioa izango da, eta honako egitarau hau prestatu dute: Bergarako Txistulari Bandaren eta Bergarako Erraldoi Taldearen kalejira (10:45); hildako auzotarren omenezko meza ermitan (11:00); 25. Napar Feriaren irekiera (11:15); marmitako lehiaketa, elkarre hauen parte-hartzearekin: Umore Ona, Artatse, Lasai-Toki, San Migelpe, Gure Ametsa, Sagarpe, Madura eta Altxasu elkarteak (10:00etatik 12:00etara);

marmitako lehiaketaren ondoren, azokan erosi izana erakusten duen txartela dutenei platerkada bat marmitako banatuko zaie; 13:00etan, Jon, Jaione eta haien seme-alaben emanaldia egongo da Canalejasko plazatxoan; eta 12:00etatik 14:00etara, erraldioen gunea, poneyak eta zezentxoak jarriko dituzte.

Kirola eta kultura barra-barra

Kirol eta kultura hitzordu ugari ere egongo dira. Kirol arloan honako hauek, besteak beste: futboleak, gazte mailako 33. Alfredo Najera Gabonetako txapelketa abenduaren 23an (Ikus 23. orria); saskibaloian, Gabo-



Mari Domingi eta Olentzero udaletxeko balkoian, iaz. ENEKO AZKARATE

netako hiruko txapelketa abenduaren 27an udal pilotalekuan; pilotan, Reyes Azkoitia txapelketa finalak abenduaren 30ean.

Kultura arloko ekintzen zerrenda ere luzea da oso. Musika eskolako kontzertu berezia, Gabonetako kontzertu handia (Ikus 23. orria), Koplak Barik bertso eskolak urtero antolatutako ohi duen bertso saio berezia (Ikus 23. orria)...

Hiru erakusleho bakarrik

Galtzeko arriskuan dagoen Gabonetako ohiko ekintza bat da komertzioendako Udalak antolatzen duen erakusleho lehiaketa. Azken urteetan behera egin du parte-hartzeak, baina aurten itzela izan da beherakada; bederatzi izatetik hiru izatera pasatu dira: Zare, Gorosti eta Wood Uhuru. Sari banaketa atzo iluntzean zen egitekoa.

Gabonak: urtarrilaren 7ra arteko egitaraua

Abenduak 22, egubakoitza

- 18:00-20:00 Errekortari eskola seminarioran.
- 18:30 Musika Eskolako kontzertua udal pilotalekuan.

Abenduak 23, zapatua

- 11:00 Emakumeak botanikan erakusketara bisita gidatua eta tailerra (Laboratorium).
- 12:00 Kokoxa antzerki taldearen emanaldia, San Martin plazan hasita.
- 18:00 Gabonetako kalejira Aranerrekatik Boluko frontoiraino, Olentzerorekin eta Mari Domingirekin.
- 20:30 Gabonetako kontzertua udal frontoian (Ikus 23. orria).

Abenduak 24, domeka

- 12:30 Olentzero eta Mari Domingi plazan.
- 18:00 Olentzero eta Mari Domingi gutunak udaletxean.
- 19:00 Olentzeroren agurra Osintxuko zubian.
- 19:00 Olentzero eta Mari Domingi Angiozarko plazan.

Abenduak 26, martitzena

- 11:00-14:00 eta 17:00-20:30 Txutxu tren Fraiskozuri plazatik.
- 11:30 Zientzia sukaldean tailerra Laboratoriumen.
- 18:00 Potx eta Lotx pailazoan Aireportuan ikuskizuna Seminarixoa.

Abenduak 27, eguaztena

- 09:00 Hiruko saskibalo txapelketa udal frontoian.
- 11:30 Bisita Laboratoriumen.
- 17:00 Kutxak askatu tailerra. Edukiera mugatua.

Abenduak 27, 28 eta 29

- 11:00-14:00 eta 17:00-20:00 Jolas parkea Labegaraietan.

Abenduak 28, eguena

- 11:00 Emakumeak botanikan erakusketara bisita gidatua eta tailerra (Laboratorium).
- 14:00 Pilotalekuan, umeentzat Eskubaloia Kalera Eguna.
- 18:00 Teatro Paraiso taldearen Kutxartean obra Seminarixoa.

Abenduak 29, egubakoitza

- 11:00-14:00 eta 17:00-20:30 Txutxu tren Fraiskozuri plazatik.

Abenduak 30, zapatua

- 16:00 Reyes Azkoitia pilota txapelketa finalak, frontoian.
- 17:00 Wonka pelikula.
- 17:00-20:00 Errekortari eskola seminarioran.
- 19:30 8 apellidos marroquis filma Seminarixoa.

Urtarrilak 2, martitzena

- 18:00 Familiei zuzendutako Ping Pang umorezko zirku ikuskizuna Seminarixoa.

Urtarrilak 3, eguaztena

- 11:00, 12:30 eta 17:00 Itzal antzerki laborategiak haurrentzat, Seminarixoa, Zurrunka antzerki taldearen eskutik. Izena emateko: seminarixoa.eus.
- 11:30 Scape the museum Laboratoriumen. Scape room-a.

Urtarrilak 2, 3 eta 4

- 11:00-14:00 eta 17:00-20:00 Jolas parkea frontoian.

Urtarrilak 3 eta 4

- Egun osoan zehar Ur jolasak Agorrosinen: bergarakirola.eus.

Urtarrilak 5, egubakoitza

- 11:00-13:00 Nire eskutik txotxongilo tailerra Laboratorium museoa.
- Goizean zehar Errege magoei zuzendutako gutunak udaletxeko atarian uzteko aukera egongo da.
- 18:00 Txokolate beroa San Joxeperen eskutik, Seminarixoko arkupeetan.
- 18:00 Elosuko kabalgata.
- 19:00 Errege kabalgata herriko kaleetan zehar.

Urtarrilak 7, domeka

- 17:00 Wonka filma Seminarixoa.
- 19:30 8 apellidos marroquis pelikula Seminarixoa.

Txuringo erostea, Osintxu biziberritzeko lagungarri

Udalak Osintxuko Txuringo taberna eta jatetxea zena erosiko ditu 183.000 euroren truke, auzotarrendako elkargune bat izan dadin. Bestalde, Jaurlaritzak gune degradatu izendatu osteko dirulaguntzetako bat Osintxura bideratuko duen hilabete inguru barru jakingo dute

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA 2019ko ekainean jaso zuen Osintxuk Eusko Jaurlaritzaren gune degradatu izendapena. Oraingoz, baina, izendapena jaso izanak ez du emaitza ukigarri aipagarrikerik eroan auzora. Hain zuzen ere, auzotarrek GOIENari adierazi diotenez, 2024ko urtarrilean jasoko dute gune degradatuentzat bideratutako dirulaguntzen gaineko erantzun bat: "Badirudi bideratuta dagoela, baina konfirmazioa jaso arte ezin ziurtatu...". Dirulaguntzak heldu bitartean, Udalak urrats esanguratsu bat egin zuen asteleheneko bilkuran, auzoan erabateko erreferentzia den Txuringo taberna eta ondoko lokalak erosteko 183.000 euroko inbertsioa onartuta.

Txuringoren erosketa ulertzeke ezinbestekoa da jakitea 2021ean Osintxu Biziberritzeko Lantaldea sortu zutela, honako kide hauekin: Txuringo kultur elkarteko ordezkariak, Osintxuko eskolako gurasoen ordezkariak, Soraluze kooperatibako ordezkaria, Soraluze kooperatibako bazkide osintxuarrak eta Udala -Alkatetza, Hirigintza eta Partaidetza saila-. Lantalde horrek zehaztu duen erronka nagusia izan da hasieratik Osintxuko biztanleria mantendu,



Herritar talde bat Txuringo tabernaren atarian, 2022ko maiatzean. GOIENA

errotu eta haztea, auzo "atsegina eta bizigarriagoa" eraikiz.

Txuringo, "estrategikoa"

Izan ere, Osintxu Biziberritzeko Lantaldeak orain arte egin izan dituen bilera guztietan "oso argi" gelditu da osintxuarentzat "ezinbestekoa" dela auzoko plaza indartu eta biziagoa izatea, eta, helburu horretarako, auzo giroa plazan kontzentratzea "estrategikoa" da. Horretarako Txuringo tabernak ezinbesteko funtzioa betetzen du eta taberna ondoko lokaletan herritarrei zuzendu-

tako zerbitzu publiko eta balio-nitza eraikitzea garrantzitsua da, liburutegiarekin batera plazar zentralitate hartu eta auzo-giroa pixkanaka indartzeko. Horregatik, Udalaren asmoa litzateke, batetik, lokalak erosi eta tabernaren ustiaketa lizitazio prozedura baten bidez gauzatzea eta, bestetik, taberna ondoko lokaletan zerbitzu publikoa sortzea auzotar guztiei irekia.

EAJ abstenitu egin zen

EH Bilduren Udal Gobernuak "estrategikotzat" dauka Txuringo

erostea Osintxu biziberritzeko bidean, Maite Usabiaga eldunaren arabera: "Osintxu biziberritzeko lanketaren barruan askotariko urratsak egin dira eta horrek ahalbidetu du Txuringo erosi ahal izatea. Osintxuko eguneroko bizitzarako puntu estrategiko bat dela iruditzen zaigu, eta, horregatik, erosketa bera estrategikoa zen. Osintxuarentzako elkargune bat izateko ezinbestekoa zen lokala erostea; orain suertatu da aukera eta aprobetxatu beharra zegoen, argi dugu eta etorkizunean espazio horrek auzotarrena izan behar duela". Usabiagaren arabera, 2024ko maiatz ingurura arte ez da eskualdaketak gauzatu: "Gaur egun, Soraluze kooperatibak erabiltzen du Txuringo jatetxea zenaren espazioa, eta asmoa da Udalaren jabetzakoa izatera pasatzea datorren urteko maiatzean edo. Orduan abiaraziko dugu erabileraren gaineko prozesua auzotarrek batera".

EAJ abstenitu egin zen osoko bilkuran, Txuringoren erosketarekin ados egon arren, lokalari ze erabilera emango zaion ez dagoelako zehaztuta. Jeltzaleen bozeramaile Mikel Letek "proiektu sendoagoa" eskatu zuen: "Erosketa aukera moduan ikusten dugu auzoko beharrak asetzen laguntzeko, baina erosketarekin batera faltan igartzen dugu Udal Gobernuak ze proiektu garatu nahi duen zehaztea. Guk ez dakigu zer egin nahi den Txuringon, eta horregatik jo dugu abstentziora; betiere, jakinda Osintxuk baduela gune degradatu izendapena eta lanketa handia egin behar dela, auzotarren, Udalaren eta gainerrako erakundeen arteko elkarlanean oinarrituta. Denon inplikazioa beharko dugu".

Organoa berritzeko partida handitzearekin pozik dago PSE-EE

PSE-EE pozik dago San Pedroko organoa zaharberritzeko dirulaguntza handitu izanagatik; auzoan 78.000 euro gehitu zitzaizkien Diputazioak hasiera baten jarritako 234.000 euroei. PSE-EEren arabera, Kultura diputatu Goizane Alvarezen konpromisoari esker izan da. "Oso garrantzitsua da organoa kontserbatzea. XIX. mendeko salbuespeneko ondarea da; funtsezkoa da ondare publikoa berreskuratzea. Gure historiaren harribitxi bati buruz ari gara. Eskerrak eman nahi dizkiogu Aldundiari Bergaran halako tresna bat baldintza onenetan mantentzearen alde egiteagatik". Lanak 2024ko udazkenean amaitzea espero dute.

OHARRAK

Euskal presoan alde

Abenduaren 24an, gazteen argazkia aterako dute plazako eskaileratan (12:30), eta ondoren, kantuan egingo dute (13:00); abenduaren 29an, Azken Ostirala egingo dute plazan (19:30); eta hilaren 30ean, mosaikoa egingo dute epaitegi aurrean (13:30).

Liburu aurkezpena

Asisko Urmenetaren *Gora euskal herrientsak* liburua aurkeztuko dute bihar, kartzela zaharrean (19:00).

2024ko udal egutegia

Etxean jaso ez dutenek edota beste ale bat nahi dutenek udaletxera joan beharko dute udal egutegia jasotzera.

URTE BERRI ON! 2024

Urte hasieran dutak dauzugu bide berririk badenik hilabeteak pasatu ahala pausok ez du etenik denboran zehar kostata baina eskuratzen da loperik urte bikaina denean norik ez du eman nahi azkenik baina bikainak ez du esan nahi hobetu ez litzatek

MIGUEL ALTUNA
Lanbide Heziketa

Agirrebidea 2. 20570 Bergara
943 899 270 - 943 899 271
info@maltuna.eus
www.maltuna.eus

Fp

Beste lursail bat erosiko dute, bertakoa landatzeko

Gorlara bidean dagoen Itsasmendi basoan sei hektarea eta erdiko lur eremu bat erosiko du Udalak, Foru Aldundiarekin batera, bertako basoa pixkanaka berreskuratzen joateko helburuaren barruan; 82.600 euro inguruko inbertsioa eskarriko du urrats berri horrek

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Bertako basoa berreskuratzeko epe luzerako helburuaren barruan, beste urrats bat egingo du Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera. Gorlara bidean dagoen Itsasmendi basoan sei hektarea eta erdiko eremua erosiko dute, bertako baso ekosistemak berreskuratzeko, ekosistema zerbitzuak indartu daitezten eta ingurumenaren erresiliencia hobetu dadin.

"Basogintza eredu eraldatzailea" Horretarako, Udalak Aldundiarekin hitzarmena sinatzea aho batez onartu zuen udalbatzak asteleheneko bilkuran. EH Bilduko bozeramaile Maite Usabiagaren arabera, iaz abiatutako lanaren emaitza da erosketa: "Iaz hasi zen Udala pixkanaka lursailak bereganatzen. Itsasmendi bera erostea iaz planteatu zen, baina ez zen posible izan, iaz gauzatzeko eremu oso handia delako, sei hektarea eta erdi. Horregatik, aurtun Foru Aldundiarekin batera egin dugu lan-keta; Aldundia arduratuko da eremua garbitzeko lanez eta Udala, mantentzeaz. Bertako basoaren eta biodibertsitatearen aldeko gure konpromisoa berresten dugu erabaki honekin, basogintza eredu eraldatzailean sinisten dugulako".

"Kontu handiz" egin beharrekoa Esandako moduan, 6,5 hektarea inguru dituen lursailean bertako espezieak landatuko dira eta Udala mantentze-lanak egingo ditu. 82.600 euro inguruko inbertsio ekarriko du proiektuak; gauzatzeko fasea hasi garbitzeko lanekin hasiko da. Garbiketa lur eremu osoan egingo da, "kontu handiz", birsortze naturala kaltetu ez dadin. Fase honetan espezie inbaditzaileak ere moztuko dira. Jarraian, itxitura jarriko da landaketaren perimetro osoan, eta, ondoren, landa-



Bertako basoaren aldeko Kukubaso elkarteak Agirretxeberrin, urriaren 28an. KUKUBASO

FORU ALDUNDIA ARDURATUKO DA LUR EREMUAREN GARBIKETAZ; ETA UDALA, MANTENTZEAZ

keta egingo da, zuhaitzak geldialdi begetatiboan daudenean. Hektareako 600 zuhaitz landatuko dira. Azkenengo lana babesleak jartzea izango da.

Pinuditik hariztira

Itsasmendiko lur eremua Gorlara bidean dago, Aingelu ton-torraren hego-ekialdean. Hego-mendebaldean Itsasmendi izeneko baserria du, eta hego-ekialdean Irutxaboleta izenez ezagutzen den eremua. Saila *insignis* espezieko pinu ekoizpenerako erabili izan da ia 100 urtez, 1930eko hamarkadan egin zen eta lehendabiziko landaketa. Orduetik, hiru pinu belaunaldi hazi dira bertan. Horrek esan nahi du Bergarako eta inguruko pinudi goiztiarrenetariko bat izan dela Itsasmendikoa, 1950eko eta 1960ko hamarkadetan landatu zirelako lehenengoz ingu-

ru haietako pinudi gehienak. Gaur-gaurkoz, sailaren egoera ekologikoa kaxkarra da, lur egiturek eta berezko landarediak kalte handiak jaso dituztelako.

Horri pixkanaka buelta ematen joatea "garrantzitsua" dela adierazi zuen udalbatzaren aurrean EH Bilduko zinegotzi Markel Azkargortak: "Hitzarmen honekin, iaz baso-lurrak bertako espeziekin landatzeko hasi genuen bideari jarraipena eman nahi diogu. Gure iritziz, garrantzitsua da gure eskumeneko udal jabetzako basoetan espezie autoktonoak landatzea, eta Udala eredu izan nahiko luke horretan. Interes ekonomikotik haratago doan eta biodibertsitatearen alde dugun konpromisoan oinarri sendoak jartzen laguntzen duen estrategia baten barruan kokatzen da proiektua".

Itsasmendiko basoko berezko basoa, Udaleko teknikarien arabera, harizti azidofilo misto atlantiko behar luke, *Hyperico pulchri-Quercetum roboris* asoziazioari dagokiona; hau da, haritz kanduduna nagusi den basoa, zeinetan lur azidoetan hazten diren beste hainbat espezie biziko lirakeen.

HERIOTZA-OHARRA

EAJko zinegotzi ohi Ander Alberdi hil da, "abertzale konprometitua"

J.B.L. BERGARA

Abenduaren 17an hil zen Ander Alberdi Lete, 56 urte zituela. EAJko zinegotzi izan zen 2011-2015eko agintaldian eta 2015etik 2018ko urtarrilera, lan kontuengatik kargua utzi behar izan ostean. EAJko zinegotzi ohi Maite Barrenak honako berba hauek izan ditu Alberdirentzat: "Ander pertsona abertzalea, ona, ausarta, ekintzailea eta konprometitua izan da. Bergarak aurrera egin zezan gogor egin zuen lan, haren umiltasunean. Oso maitekorra zen". Alberdik berak honako hau esan zuen 2018ko urtarrilean: "Aukera izan dut herrigintzan



Alberdi, artxiboko argazki baten. GOIENA

eta kudeaketan parte hartzeko, baita erabaki garrantzitsuetan ere. Esperientzia benetan aberasgarria izan da, eta pertsona bezala hazten lagundu didate; beraz, benetan merezi izan du".



B.U.

Lehen fasearekin bukatu dute

Ibargarai eta Urteaga arteko bidegorriaren lehen faseko lanak bukatu ostean, 2024an bigarren faseari ekingo dio Udala. Bigarren fase horrek lehen fasearen amaiera gunea San Antonioko biribilgunearekin lotuko du eta lan horietarako 350.000 euro aurreikusten dira. Lehen fasea Construcciones Artzamedi enpresak gauzatu du, 380.023 euroko aurrekontuarekin.

UGARTE
AROEZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurrira
 Ateak · Eskailerak ·
 Leihoak · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROEZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Empresa Registrada Nº90/025

Ohikoa izanda ere, kontzertu berezia beti

Gabonak ate joka, 43. Gabonetako Kontzertuaz gozatu ahal izango dute ikusleek Bergarako Musika Bandarekin, Orkestra Sinfonikoarekin, Aritzeta abesbatzarekin eta bi orfeoiekin bihar, 20:30ean, frontoian; sarrerak salgai daude 'seminarixoa.eus'-en

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
43. Gabonetako kontzertua eskainiko dute Bergarako Musika Bandak, Orkestra Sinfonikoak, Aritzeta abesbatzak eta Orfeoiek eta Orfeoi Gazteak bihar, 20:30ean, frontoian. Enrike Txurruka Bandako eta Orkestra Sinfonikoko zuzendariak aurreratu duenez, talde bakoitzak hamabost minutuko ekitaldia egingo du: "Beti zerbait berezia antolatzen dugu, ahal dugun onena". Bandak zabalduko du kontzertua, *The Legend of Maracaibo* abestiarekin; Aritzetak *Game of Thrones*, *Bésame mucho*, *Suite Comercial Navideña* eta *White Christmas* kantatuko ditu; Orkestra Sinfonikoak *Huapango* interpretatuko du; eta Orfeoiek eta Orfeoi Gazteak *Bi bihotz*, *Every time I feel the Spirit*, *Lau teilatu* eta *Jai ho!* joko dituzte. Zuzendari izango dira Enrike Txurruka, Imanol Urzelai, Nerea Parra eta Aitor Biain.

Amaitzeko, Enrike Txurrukak moldatutako James Horner-en *Glory* filmaren soinu-bandaren suitea joko dute partaide guztiek, Txurrukak zuzenduta.

Jatorrian, Bandaren kontzertua
Kontzertu "berezi" bezala definitu du Txurrukak, Gabon giroagatik eta elkartzen den mu-

sikari eta ikusle kopuruagatik. 43. edizioa izango dela nabarmendu du: "Egiten jarraitzea bera oso aipagarria da. Jatorrian Bandaren Gabonetako kontzertua zenera taldeak gehitzen joan, eta egungo kontzertura arteko bilakaera ederra izan da. Gure lana da aurrekoek lortutakoa mantendu eta indartzea".

Dioenez, ez da erraza halako kontzertu bat prestatzea: "Denok batera egiten dugun obra muntatzea ere ez da erraza. Formatu handirako obra aukeratzea eta moldatzea. Talde bakoitzak

bere aldetik entseatzen du eta azken entsegu orokorrera arte ez dugu obraren osotasuna eza gutzen. Baina gogoz eta ilusioz lan egiten dugu eta urtero emaitza txukuna lortzen da".

Ate itxiera, 10 minutu lehenago
Sarrerak *seminarixoa.eus*-en daude salgai. Halaber, emanaldiaren egunean sarrerak geratzen badira, 19:00etan zabalduko dute txarteldegia. Kontzertu egunean 20:20an itxiko dituzte ateak eta ordu horretatik aurrera inor ezin izango da sartu frontoira.



lazio Gabonetako kontzertuaren une bat. IMANOL SORIANO

'Txapeladunen Ligako bertso-saioa' kartzela zaharrean

Hamaika bertsolarik hartuko dute parte hilaren 28an, 22:00etan, egingo den bertso-saioan

I.A.A. BERGARA

Kopla Barik bertso-eskolak *Txapeladunen Ligako bertso-saioa* antolatu du hilaren 28rako kartzela zaharrean, gaueko hamarretan. Urteroko bertso-saioa da eta iaz parte hartu zuten Patxi Aiausti, Jon Altuna *Oxan*, Iraitz Artola, Eñaut Uriarte, Enaitz Alustiza, Asier Arriaran *Txie*, Unai Arantzabal, Mikel Mendiartz, Iñigo Arzelus eta Gari Lopez Munainekin batera izango da Jon Mata antzuolarra; gai-jartzailea, berriz, Ibon Leibar *Txinbo*, eta adierazi du gai umoretsuak nahiz Bergararekin lotutakoak izango direla.

Saioan zehar bertsolariak "kanporatzen" joango da epaimahaia, buruz burukora bi heldu arte, eta haien artean erabakiko da nor den irabazlea. *Txinbo*-k dio ez dela txapelketa, "jolas moduko" zerbait dela.



Arantzabal eta Oxan. GOIENA

Bertso-eskolako lana, argitan

Gau "polita" izaten dela azaldu du *Txinbo*-k, eta, bidez batez, bertso-eskola aktibatzeke balio duela: "Udan gutxiago elkartzen dira, eta orain, egun horren prestaketekin, astero elkartzeko aitzakia dute".

Alfredo Najera memoriala eta BKEren Gabonetako zozketa

Alfredo Najera Memoriala bihar jokatu da, Ipintzan eta Agorrosinen, 17:30ean hasita. Nazional mailako Bergara eta Zarautz nahiz ohorezko gazte mailako Real Sociedad eta Vasconia taldeek jokatu dute. Sarrerak bost euro balio du.

Bestalde, BKEren urteroko Gabonetako zozketa martxan da. Sariak Bidekurutzeta kaleko

erakusleihoan, Depor tabernaren ondoan, ikus daitezke, eta hauek dira: Gabonetako saski erraldoia, patinete elektrikoa, asteburu baterako opari-txartela, telebista eta BKEko kirol materiala. Txartelak salgai daude jokalarien artean eta Deporren, Irrintzin, Labegarrietako tabernan eta Agorrosingo kantuan. Zozketa hilaren 31n egingo da, 20:00etan, Bidekurutzetako egoitzan. 30 eguneko epean irabazlerik ez bada, erreserba zenbakira pasako litzateke saria.

**EREIN
DĀ
JAN**

**SASKI
PERTSONALIZATUAK
PRESTATZEN DITUGU
KALITATEZKO
PRODUKTUEKIN:
SASOIKOAK,
BERTAKOAK ETA
EKOLOGIKOAK**

Joan XXIII plaza • Bergara • 681 66 08 63 • www.ereindajan.eus

Urteroko ekintzak izango dira Gabonetako hitzordu

Haur eta helduen kalejira izango da domekako lehen ekintza, eta arratsaldean iritsiko dira Olentzero eta Mari Domingi, San Josetik, 18:30ean. San Esteban krosa, berriz, martitzenean egingo dute: lehendabizi, haur eta gazteena; ondoren, helduena

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

Urteroko hitzorduei hutsik egin gabe, ekintzaz beteriko Gabonak izango dira, beste urte batez, herrian. Hilaren 24an, domeka, izango da lehena. Pausoka guraso elkarteak antolatuta, Gabonetako kalejira egingo dute, 11:00etan hasita. Antigua auzoan hasiko dira, eta herriaren behealderaino joango dira kantuan.

Ez da, ordea, goizeko ekintza bakarra izango, herriko artisauen eta bigarren eskuko produktuen Gabonetako azoka egingo baita lehenengo aldiz, Zurrategi plazan. 11:30etik 14:30era izango dira salgai ekoiztutako lanak. Horrez gain, Ez Dot Moztuko Bizarra taldeak hamaiketako antolatu du 12:30erako, eta aldi berean egingo dute saskiaren zozketa eta argazki herrikoia. Are gehiago, Andramauelak emakume taldeko kideak ere alboan izango dira plazeraren saski feministarekin batera.

Arratsaldean, berriz, Olentzerori eta Mari Domingiri ongiatorria egingo diete. Ohikoa den legez, San Josetik jaitsiko dira, iratxoak lagun dituztela. 18:30ean izango da hori, eta kalejiran joango dira plazara. Han jasoko dituzte herri-



Olentzerori eta Mari Domingiri iaz eginiko ongiatorria. A.R.K.

HERRIKO ARTISAUEN ETA BIGARREN ESKUKO PRODUKTUEN GABONETAKO AZOKA EGINGO DA ETZI

tarren gutunak, txistulariak eta abesbatza lagun dituztela.

San Esteban krosa

Hilaren 26an, martitzena, San Esteban krosa egingo dute. 17:45ean hasiko dira 16 urtetik

beherakoen lasterketak eta 18:00etan helduenak. Udalak, gainera, boluntarioak eskatu ditu. Prest egonez gero, udala@antzuola.eus helbidera bidali behar da mezu bat.

Are gehiago, arratsalde horretan zozkatuko dira Antzuolako 8 Miliak lasterketarako –otsailak 17, zapatua– hamar dortsak antzularren artean, baina aurretik eman behar da izena: antzuola-ko8m@gmail.com. Gazteen artean beste bost dortsak banatuko dira.

Gauean, Inguma eta Borla taldeak izango dira gaztetxean.

Trekutz parke eolikoa dela eta, zabalik da alegazioetarako epea

Meaka-Irimo herri plataformak informazioa emango du egunotan; bilera eta Irimora irteera ere egingo dituzte

A.R.K. ANTZUOLA

Trekutz parke eolikoaren proiektua argitaratu zuten EAEko aldizkari ofizialean hilaren 15ean, eta urtarrilaren 30era arte egin daitezke alegazioak. Cilda Energy SLU enpresak bosna megawatteko bina aerosorgailu jarri nahi ditu; baita interkonexiorako azpiegitura elektrikoa ere.

Meaka-Irimo herri plataformaren arabera, ordea, proiektuak Antzuolako "eremu natural edereenetako bat" txikituko luke, eta uste du energia berriztagarriak sortzeko eremu naturalak

hondatzea ez dela bidea. Herri-tarren iritzia jasotzea funtsezkotzat jotzen du.

Bada, hori erdiesteke, hilaren 26 eta 31 arratsaldeetan mahai bat jarriko dute proiektuari buruzko informazioa banatzeko eta alegazio zerrenda irakurri eta sinatzeko. Hilaren 31 goizean, gainera, Irimora joango dira. 09:30ean izango da irteera, Herriko Plazatik, eta 11:00etan, Trekutzetik. 12:00etan elkartuko dira guztiak goian. Horrez gain, bilera irekia egingo da hilaren 27an, 18:30ean, Olaranen.

NIRE USTEZ

JON KORTABARRIA

Zeren ondorio ote?

Institutura zoaz. 90eko hamarkada da. *HSAOL ez!* dio afixak horman. Bazkalostean, gaztetxean duzu txanda, eta han dira *Nuklearrik? Ez, eskerrik asko* eta *Itoiz stop!* dioten pegatinak. Handik udaletxeko hiesaren gaineko erakusketara zoaz. Kondoak har daitezke. Gazte boluntarioek azaldu dizute erabilerak.

Bueltan zara institutuan; kasu honetan, baina, lanean, 2023an. Mezu ekologista eta feministak Eusko Jaurlaritzak jarriak dira. Erreforma garaia da, baina kontrako kartelik ez dago. Ikasgelan dira ikasleak, pantailei begira. Letra matxistak ozen entzun daitezke, kaskoen bolumenari esker. Feminismoa "sermoia" ei da. Hezkuntza Sailak emandako sexualitate tailerrean ez da kondoirik. Gaztetxeko atean abisua irakurri duzu: *Lapurretengatik itxita*.

Lehen kalekoak ziren aldarriak instituzional bilakatu dira, manifak prozesio, eta sexualitatea unitate didaktiko. Hein batean, ez ote da instituzionalizazioaren ondorio oinarri etikoen kontrako jarreraren gorakada?

Dantza garaikidearen topaleku bilakatuko da Torresoroa

Dantza garaikidea izango da protagonista Torresoroan, *Gorputza da hitza* egitasmoa abiatu baitu Udalak. Gipuzkoako koreografo emakume batzuen eskutik, hiru tailer egingo dituzte, eta hilaren 30ean, zapatua, izango da lehena.

Arantza Iglesiasek bi orduko tailerra emango du, 16:00etatik 18:00etara. 16 urtetik gorakoei

zuzenduta dago, eta doakoa da. Alabaina, hilaren 28a baino lehen eman behar da izena, udaletxean. Horren ostean, berriz, bi ekintza izango dira, 19:00etatik 20:30era: *Adierazi ez dena* Iglesiasek proposamen eszenikoa eta Gluu proiektua; hain justu, dantzarako musika elektronikoa jarriko du Lorenzo Menak.

Bigarren saioari dagokionez, udaberriaren egingo da, Mari Zaunka konpainiarekin; eta hirugarrena, udan, Miriam Perezen *Nunvanut*-ekin.

Gospel doinua Torresoroan

Karlos Etxaniz, Jon Imanol Etxabe, Olatz Otxoa eta Santi Romano abeslariak osatzen dute Goiko Gela euskarazko gospel taldea, eta kontzertua emango dute bihar, musikariekin batera, Torresoroan, 19:00etan. Hamar euro ordaindu behar da sarrera.

Jolaserako mila aukera

Jolasenearen eskutik, haur eta helduentzat mahai-jokoak izango dira hilaren 26tik 29ra Olaranen, 11:00etatik 13:00etara. Horrez gain, haur parkea izango da abenduaren 28an eta urtarrilaren 4an eskolako patioan, goizez zein arratsaldez.

Giltza eskuan hartzeko unea

Ez Dot Moztuko Bizarrak eta Sarek antolatuta, *Konponbiderako giltza* ekitaldia egingo dute hilaren 29an. Herriko norbanako eta eragileek manifestua irakurriko dute, eta musika ere izango da, giltza eskuetan hartzearekin batera.



Olentzero eta Mari Domingi, iaz, Elgetako umeen gutunak jasotzen. L.Z.L.

Laster dira Elgetan Mari Domingi eta Olentzero

Astoa lagun dutela, bihar iluntzean jaitsiko dira biak Intxortatik. Urteko bisita garrantzitsuenetako bat da, eta neurriko harrera prestatzen ari dira herriko neska-mutikoak. Gabonetako gainerako ekintzak ere prest dituzte elgetarrek

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA
Atzo, eguena, hartu zituzten Gabonetako oporrak Elgetako eskola-umeek. Bi aste pasatxoko atsedena izango dute orain, besteak beste, Gabonetako ekintzez gozatzeko. Atzokoa, dena den, egun berezia izan zen; urteroko azoka egin zuten plazan eskolako ikasle nagusiek, eta Gabon kantuak abestera ere

irten ziren. Musika, jolasak eta dantzak izan ziren nagusi ikasleekin goiz osoan. Bisita bereziak eta Gabonetako hamarretakoa ere izan zituzten.

Denek irrikaz itxaroten duten hitzordua, ordea, biharkoa da. Hutsik egin barik, urtero jaisten dira Intxortatik Olentzero eta Mari Domingi. Aurten ere ez dute kalerik egingo. Abisua eman

dute ohiko moduan abenduaren 23an izango direla Elgetan. 18:30 alderako helduko dira, behin ilundutakoan. Asto eta guzti etorriko dira, eta Salvador kalearen goiko aldean elkartuko dira herriko neska-mutikoekin plazarainoko bidea elkarren konpainian egiteko. Adolfo Jainagaren trikiti eskolako ikasleak zain izango dituzte, gainerako

neska-mutikoekin batera. "Badakigu Elgetako neska-mutiko gehien-gehienak zintzoak izan direla aurten ere. Kontu kontari arituko gara pixka bat, eta gozokiak banatuko dizkiegu. Inork gutunik idatzi badigu, haiek jasotzeko zaku handi bat ere eramango dugu", esan dute.

Gabon eskea

Biharamunean, hilak 24, Gabon eskean ateratzeko gonbidapena egin du Maala guraso elkarteak. Talde handia osatu nahi dute, eta, urtero moduan, herriko hainbat gunetan abestuko dute. Jakinarazi dute eskolatik abiatuko direla Gabon eskean. Goizeko hamaiketan elkartuko dira ikastetxe atarian.

Borondatea eskatuko dute etxe etxe egindako eskean, eta batutako dirua seigarren mailako neska-mutikoekin ikas bidaia ordaintzeko izango da. Kantu erronda amaitutakoan, salda eta txorizo-pintxoak banatuko dituzte plazan parte-hartzaile guztiendako.

Azken asteotan lanpetuta ibili dira umeak zein nagusiak. Hainbat eskulan tailer antolatu dituzte auzolanean Gabonetako apaingarriak egiteko, eta herriko tabernetan eta dendetan banatu dituzte gehien-gehienak.

Hamarretakoa Intxortan

Gabonetako egutegian bere lekua egin duen beste hitzorduetako bat Eguberri eguneko Intxortako igoera da. Kantsatzeke mendi taldeak antolatuta, nork bere aldetik egiten du igoera, eta parte-hartzaileek hamarretakoa egiteko txistor-jana aurkitzen dute tontorrean. Aurten ere 11:30ak alderako iragarri dute hamarretakoa mendi taldekoek. Ekintza horrekin emango diote

amaiera 2023ko mendi irteeren egutegiari.

Bingo saioa

Gabonetako egitarauak hilaren 29an izango du jarraipena, barikua. Beheko kaleko jai batzordeak antolatuta, Gabonetako bingoa izango da Ozkarbi elkartean, 18:30ean. Bingoa egin aurretik, txokolate-jana ere izango da. Beheko kaleko jai batzordeak iaz egin zuen Gabonetako lehen bingo saioa. Arrakastatsua izan zen, eta udaberriari beste bat egin zuten. Honako hau berezia izango dela esan dute; izan ere, hamar urte dira jai batzordea eratu zela. Ekaineko jaiak ere bereziak izatea nahi dute.

Gabonetako haur-parkea

Eta urtarrilerako Gabonetako haur-parkea iragarri du Udalak. Udal pilotalekuan ipiniko dute urtarrilaren 2an eta 3an, 16:00etatik 20:00etara. Askotariko puzgarriak, ohe-elastikoak eta jolasak izango dira.

Pilota txapelketa

Azken txanpan da herri mailako pilota txapelketa. Urri amaiera ezker dago martxan eta aste bukaera honetan jokatuko dituzte finalerdiak. Horrekin batera, gaur egingo dute parte-hartzaile guztiendako afaria, Intxorta elkartean. Finalak, urtero moduan, Urtezahar egunean jokatuko dira. 10:30ean izango dute hasiera. Amaieran, sari banaketa egingo dute.

ASTE BUKAERA HONETAN JOKATUKO DIRA PILOTA TXAPELKETAKO FINALERDIAK

Agur telefono-kabinari

Telefonikak urte hasieran esan zuen 2023an kenduko zituela telefono-kabina guztiak, eta zapatu eguerdian kendu zuten Elgetan zegoen bakarra. Urteak ziren ez zuela zerbitzurik ematen. Dena den, telefonoak atzeko aldean zuen instalazio-data: 1993ko martxoa. Aurretik ere bazegoen telefona han. Gutxienez, 55 urtean egon da leku berean.



L.Z.L.

OHARRAK

Jertse salmenta

Intxortako Ahuntzak trail taldeak jertse salmenta jarri du martxan; umeendako zein nagusiendako. Interesatuak plazan egin behar dute eskaera, gaur, 19:00etan.

Garbigune ibiltaria

Mankomunitateak Salvador kalean ipiniko du, eguaztenean, 10:00etatik 21:00etara.

Datorren urtean 4,3 milioi euro izango ditu Oñatik inbertsioetarako

Guztira, 23.119.920 euro izango du Oñatiko Udalak 2024ko egitasmoak gauzatzeko, aurtun baino %10 gehiago. Abenduan onartu du udalbatzak

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Guztira, 23.119.920 euroko aurrekontua izango du Oñatiko Udalak datorren urtean, azkena baino %10,38 gehiago. Diru sarrerei dagokienez, azpimarratzekoa da Udalak 2,1 milioi euroko dirulaguntzak lortu izana Europar Batasuneko Next Generation funtsetik. Udalak jaso berri du laguntza hori, eta bi urteko epea izango du dirua jasoko duten bederatzita proiektuak egiteko: Emakumeen Etxearen eraberritzea -600.000 euro-; Usakorako bide segur-

tasuna bermatzeko Torreauroko zubitik bidegorria egitea eta bertako ingurune naturala hobetzea -769.000 euro-; herrigunean disuasio aparkalekuak egitea -200.000 euro-; Arantzazuko eta Araozko aparkalekuen kudeaketa automatizatua -126.000 euro-; herriko plazan dagoen azoka zein haren inguruak hobetzea -300.000 euro-; komunikazio digitala -90.000 euro-; Jasangarritasun Turistikoko Lurralde Planaren kontrola eta kudeaketa -45.000 euro-; eta turismo bitartekoen

eskaintza eta garapena -30.000 euro-. Horretaz gainera, 753.000 euroko igoera izan du Foru Funttsak.

Inbertsioen gorakada

Next dirulaguntzei esker, aurtun baino %47 gehiago bideratuko da inbertsioetara datorren urtean. Ondasun eta zerbitzu gastuek eta transferentzia arruntek, bestalde, KPIaren pareko igoera izango dute. Halaber, aurrekontuak 1,5 milioi euroko aurrezki arrunta aurreikusten du, Udalak autofinantzatzeko

duen gaitasuna, eta hori "ona" dela nabarmendu zuen kontu hartzaileak abenduko osoko bilkuran.

Ikuspuntu ezberdinak

Aurrekontu "orekatuak eta landuak" dira, Udal Gobernuaren ustez, "herritarrak eta euren beharrak kontuan hartuta egindakoak", eta euren aldeko botoekin onartu ziren. Oposizioan dagoen EAJ abstentitu egin zen. Zortzi emendakin aurkeztu zituen eta bat, Mojasoro-Aldakiñon lanak egitea, onartu zuen Udal Gobernuak; besteen gaineko ezezkoak arrazoitu zituen. "Horrek ez du esan gura gainerakoak egingo ez direnik. Ezezkoa eman zaie planteatuta dauden moduan ez direlako aurrera eramango, ezin delako, aurretik beste lan bat eskatzen dutelako edo bate- ren bat aurrekontuetan sartuta zegoelako", azaldu zuen Izaro Elorza alkateak.

Alderdi jeltzaleak, bestalde, ez du ulertzen zergatik ez dioten emendakin bat baino gehiago onartu, eta "talanteagatik" eta "hasieratik kontra ez hasteagatik" bozkatu zuen abstentzioa,

Amaia Erostarbe bozeramileak azaldu zuen moduan. Gaineratu zuen, bestalde, "malgutasun eta zehaztapen falta" ere baduela aurrekontu horrek. "Egingo dugu" esanaz uzten ditu Udal Gobernuak proiektu asko, eta guk konpromisoa hartzea gura dugu. Ez dago malgutasunik. Zehaztasun urria ere badago diru lerroetan". 2023an bete ez diren egitasmoak ere badaudela gaineratu zuen Erostarbek.

Udal Gobernuaren iritziz, baina, horrek ez du esan gura egingo ez direnik. "Gauzak aldatu egin daitezke urtean zehar eta egitasmo bat atzeratu beharra egon, adibidez, arrazoi bategatik edo besteagatik. Planteamendu horrek, hain zuzen ere, malguak izaten uzten digu", arrazoitu zuen alkateak.

Bestalde, Udal Gobernuaren aldetik malgutasun gutxi iku-

MALGUTASUNA ETA ZEHAZTAPENA EZ DUTE BERDIN IKUSTEN UDALBATZAKO ALDERDI BIEK

Egingo diren inbertsioetako batzuk



Bidegorria egingo dute Torreauro eta Zañartu artean; 569.000 euro. Landa Garapeneko Sailean mantendu egiten da landa auzoei bideratutako partida: 304.000 euro.



Kantxa urdineko teilatua konpontzeko proiekturako 278.000 euro gorde dira. Askotariko kirol jarduerak sustatzeko beste 307.000 euroko partida dago.



Ongizateren alorrari dagokion aurrekontua %20 handiagoa izango da. Zehatzago, 2.200.000 euro bideratuko dira herritarren ongizatera.



Esku-hartze integrala udaletxe eta plaza inguruan, erabilera askotariko espazioa egokituz. 300.000 euro daude gordeta proiektu horretarako.



Antzerki eta musika programaziorako 90.000 euro egongo dira eta beste 95.000 euro herriko kultur taldeen artean dirulaguntza banatzeko eta sormenerako.



Mojasoro-Aldakiño inguruko oinezko bidea, San Martin eta Olakua lotzen dituen bidea, labainkor ez dadin egon segurtasun hobekuntzak egingo dituzte.

si dute jeltzaleek, bozeramaileak adierazi zuenez: "Nik, eta taldeak, ikusten dugu nahiz eta ahalegina egin gure ikuspuntua adierazten eta arrazoiak eta datuak ematen, ez dutela malgutasunik gurekin enpatia sentitzeko. Oraindik ez ditugu gai ikusten EAJri esaten akaso arrazoia duela". Izaro Elorza alkateak, baina, argitu zuen Udal Gobernuan malgutasuna badagoela: "Borondatea eta malgutasuna badago, bai. Urte osoa dugu horrelako proposamenak, eskaerak, aztertzeko, eta gu beti egongo gara prest entzuteko".

Lehengoeak segida

Inbertsio berriez gain, bestalde, energia jasagarriaren alde egiten jarraituko du Udalak, adibidez, baita berdintasuna eta euskara zaintzen ere.

INBERTSIO BERRIEZ GAIN, LEHENGO POLITIKEK ERE IZANGO DUTE JARRAIPENA 2024AN



Abenduaren 14ko osoko bilkura. O.E.G.

Departamentu bakoitzaren aurrekontua

Sailaren izena	2023	2024	ALDEA
Komunikazioa eta Parte-hartzea	539.265,00	588.115	%9,06
Gizarte Zerbitzuak	2.015.293,07	2.966.157	%47,18
Kirola	1.673.493,51	1.741.311	%4,05
Kultura	1.426.236,82	1.374.154	-%3,65
Barne Antolaketa	7.872.623,67	8.464.023	%7,51
Sozioekonomia	596.114,15	717.461	%20,36
Lurralde Antolaketa	5.289.801,29	5.819.393	%10,01
Aisialdi Hezitzailea	1.532.242,59	1.449.303	-%5,41
GUZTIRA	20.945.070,10€	23.119.920€	%10,38

ITURRIA: OÑATIKO UDALA

Otadui Zuhaitziko pasealekua osorik berrituko dute

Kale Zaharra, Otadui zuhaitzia, Unibertsitate etorbidea eta Lizaur zein Aita Madina kaleak barnebiltzen dituen irisgarritasun plana landu du Oñatiko Udalak. Oinezkoen segurtasuna hobetzeko, oztopoak kentzeko eta garraioen zirkulazio egokirako proiektua da. Hirigintza batzordeburu Iñigo Ruizek adierazi du hainbat fase izango dituela planak. Lehen faseko exekuzio proiektua 2024an landuko litzateke.

Irisgarritasun plan horrek esku-hartze garrantzitsua proposatzen du Otadui zuhaitzira. "Bankuak lituzkeen lorategi bat jarriko litzateke oinezko bidearen ertz batean, ibilgailuen pasabideak egokituko lirateke oinezkoen babeserako, zoladura bereizgarriko lerroak erabiliko lirateke orientazioa errazteko, mugikortasun mugatua duten pertsonentzako aparkalekuak ugarituko lirateke, autobus geltokia egokituko litzateke...", argitu du Ruizek.

AUTLAN[®]
EMD

Gabon jai
Zoriontsuak
ETA DESIORIK ONENAK 2024
URTE BERRIRAKO

Musikak gidatuko ditu Gabonetako ekintzak

Hots abesbatzak gaur, egubakoitza, du emanaldia, eta gospela eta musika banda entzuteko hitzorduak ere antolatuta daude. Horrez gain, Txuleton's taldeak bigarren diskoa aurkeztuko du eta Iker Martinez eta Zaldi Herrenak taldeak, dokumentala

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Musikak pisu handia du aurtengo Gabonetako egitarauan. Joan den asteburuan egin zuten herriko abesbatzek urteroko Hator Hator kontzertua, Gabonei ongietorria egiteko, eta urtarrilaren lehen asteburura bitartean egongo dira musika hitzordu gehiago ere herrian.

Txuleton's eta Iker Martinez

Adibidez, bi emanaldi handirekin girotuko ditu Gabonak Ganbara Faktoriak. Lehena gaur bertan izango da, hilak 22, 22:00etan, Zubikoa pilotalekuan. Bertan, Hots Abesbatzak, *Gaueko andreak* ikuskizuna eskainiko du. Emakumea, euskal tradizioa, baserria, mitologia, sorginak, aztikeria... ditu oinarritzat. Bigarrena abenduaren 29an izango da, 20:00etan, San Migel parrokiari. Egun horretan, Ganbara Abesbatzak Rossiniren *Petite Messe Solennelle* eskainiko du. Lau bakarlarri profesionalekin partekatuko du eszenatokia egun horretan; Aitor Garitano tenorea izango da horietako bat.

Bestalde, Iker Martinez eta Zaldi Herrenak taldearen *Arnaldiak* dokumental-kontzertuaren aurkezpena ere urtea amaitu aurretik izango da. Abenduaren 26an, hain zuzen ere, 19:30ean, zinema-aretoan.

Eta Txuleton's taldeak aurtenera beteko du abenduaren 28an kontzertua egiteko ohitura. Gaztetxean izango da, 19:30ean, eta atera berri duen disko berria aurkeztuko du: *Encuentros*. Herriko tabernetan dagoeneko salgai dago bederatzik kantu dituen diskoa, eta baita sareko hainbat plataformatan ere. Hiru kantu euskaraz dira eta sei gaztelaraz, denak rocka, popa eta new wavea jorratzen dutenak, "kutsu nostalgiko-existentzialista duten letrekin, alde batera utzi gabe betiko tonu umoretsua".



Plazako zuhaitzak eta udaletxea Gabonetako argiekin apainduta. OIHANA ELORTZA

UMEENDAKO JOLAS PARKEA, BERTSO SAIOA ETA SAN SILVESTRE PROBA ERE IZANGO DIRA

Duela 27 urte hasi zuen ibilbidea Txuleton's taldeak eta oraindik hasierako kide berek osatzen dute; bigarren diskoa dute hau. Gospel kontzertua ere egongo da aurtenera.

Musika bandak ere Gabon kantak eskainiko die herritarrei hilaren 24an, eta kalejira egingo du urteko azken egunean, iluntzean. Horrez gain, zarzuelako piezez osatutako kontzertua ere prestatu du. Urtarrilaren 6an izango da hori, Topagunea denboraldiko bigarren kontzertua, Zubikoa pilotalekuan.

Kirola eta bertsoak

Bestalde, Gabonetan ohikoak diren saskibaloia eta areto futbol txapelketak ere egingo dira aurtenera, kuadrillen artekoak biak. Areto futbolekoa 27an eta 28an eta saskibaloikoa 29an eta 30ean, biak Zubikoan. Eta noski, San

Silvestre herri lasterketa ere egingo da urteari agur esateko. Hilaren 31n izango da hori, arratsaldean, eta gaztetxoendako lasterketa ere egongo da.

Umeendako jolas parkea urtarrileko lehen astean egongo da, Zubikoan, bi egunez, eta *Goazen!* ikuskizuna ere ekarriko dute. Horrez gain, Marteri buruzko hitzaldia, Arrikrutzeko lehoiari bisita, trenari buruzko bisita gidatua eta urteroko bertso saioa ere izango dira. Urtarrilaren 5ean izango da Gabonetako ohiko bertso saioa, eta etorriko diren bertsolariak dira: Andoni Egaña, Alaia Martin, Aitor Tatiegi, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus.

Olentzero eta Erregeak

Olentzero eta Mari Domingi, berriz, Santa Anako sarreran daude umeen gutunak jasotzen, eta abenduaren 24an kalera aterako dira herritarrei harrera egitera, musika eskolako eta Aitzondo kuadrillako kideekin batera. Errege Magoak, bestalde, San Migel parrokiara joango dira urtarrilaren 5eko eguerdian, parrokiako komunitateak gonbidatuta.

Arzuagari saria Pake Lekuk

Boluntarioaren aurtengo Pake Leku saria Asun Arzuagarendako izango da. Horrelaxe erabaki dute erretiratuen elkartzeko bazkideek, Ikusi Makusi antzerki taldean egiten duen lanagatik eta elkartearen bertan puntuko tailerlean horrenbeste urtez egindako lanagatik, besteak beste. Sari emate ekitaldia hilaren 28an izango da, 18:30ean, Pake Lekun.



GOIENA

NIRE USTEZ

IRENE PEREZ ZUMALDE

Horra, Mari Domingi

Olentzerok eta Mari Domingik oles egiten didate supermerkatuko apaletatik, katilu forman. Egun pare bat pasa orduko, baina, Mari Domingi bakarrik ageri da, irria ahoan, etxera eramateko erregua begietan. Garai zaharretatik hainbat aurpegi erakutsi dizkigu Olentzerok: gau guztiz erretzen den enborra, tximinia garbi duzula miatzera datorren igitaidun hiltzailea, edota, 80ko hamarkadatik gaur arte, euskal nortasuna aterpetzearen aitzakiaz kontsumismoak saltzen dizkigun mila produktuak. Elizak mozkor eta urde plantaz bere izena zikindu nahi izan bazuen ere, tinko dirau mito honek. Mari Domingi, ordea, nor ote da? Sendabelarren jakituna, Ilargi eta Eguzkiren lagun mina, sagar erreen mireslea. Biak izaten ditugu plazetan haurrak agurtzen, baina non dago Mari Domingi gauez Olentzerok opariak banatu bitartean? 90eko hamarkadan, aurrerakoiak izateko asmoz petatxu bat jarri genion kondaira hilezkorrari. Hausnar dezagun andrazko honi zinez eman nahi diogun rola inguruan eta sor ditzagun neska-mutilendako erreferente boteretsuak. Denon esku dago, gu baikara Mari Domingi.

GORA ETA BEHERA




Herriko kale asko hostoz beteta daude

Udalak kaleak garbitzeko makinak izan arren, bakarria erabiltzen duela dio herritar batek: "Kale asko horrela daude, zikin, hostoz beterik: San Lorentzo, Ugarkalde, Olakua, San Martin... Hori bai, karroak larregi eskuz, pala eta erratza-. Aurreraka baino atzeraka bagabiltza".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.





DEBAGOIENENKO OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANDO IRIARTE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabari 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.
943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11



Martitzenean aurkeztu zuten torneoa, Ibarren; argazkian, UDAko jokalariek gazteak udal ordezkariekin eta antolatzaileekin. T.M.

"Orduan hutsune handia bete zuen torneo honek"

FUTBOLA Abenduaren 29an eta 30ean jokatuko dute Gabonetako txapelketa. Hilaren 30ean egingo duten hiruko torneoan Debagoieneko selekzioko, Gipuzkoako selekzioko eta Realeko neskek batuko dira. Aurten, baina, kadeteak lehiatuko dira

Xabier Urtzelai Atxa ARETXABALETA
Ia bi hamarkadatan Arizmendi Kirol Elkarteak antolatu duen Gabonetako txapelketa adinez nagusi egingo da, hemezortzi urte beteko ditu. Hala, urte hauetan guztietan txapelketa garai berrietara egokitzen joan da. Duela 18 urte, ligak eten eta Gabonetako oporraldian emakumezkoek ez zituzten lagunartekoak izaten, eta hutsune hura betetzera etorri zen txapelketa. Eta horixe nabarmendu zuen prentsaurrekoan, hain zuzen, urte hauetan guztietan aurkezpen ekitaldian izan den Realeko kirol zuzendari Garbiñe Etxeberriak. "Pozik etorri naiz Zubietatik hona; urtero etortzen naiz pozik. Izan ere, bailara honetan duela 18 urte hasi ziren emakumezkoendako txapelketa bat antolatzen, orduan halakorik ez zegoenean. Gaur egun, leku askotan ikusten ditugu emakumezkoendako torneoak, baina orduan ez zeuden. Pentsa, adin txikietan Realak ez zituen ema-

kumezko taldeak, eta Real talde nagusiarekin etortzen zen hona: Irene Paredes, Nahikari Gartzia, Aintzane Encinas, Sandra Ramajo... Gaur egun futbollean erreferente diren neska horiek Ibarrik pasa dira".

Hiruko torneo

Bada, aurten Realak ere ez du hutsik egingo, eta eurekin batera Debagoieneko selekziokoek eta Gipuzkoako selekziokoek neurtuko dituzte indarrak. Aurreko urteotan, baina, torneo hori senior mailako jokalariek jokatu dute, eta orain kadete mailakoak batuko dira. "Gaur egun Lehenengo Mailako taldea ekartzea oso zaila da, liga zorroztza delako eta jokalariek horiek

REALA, GIPUZKOAKO SELEKZIOA ETA DEBAGOIENEOA LEHIATUKO DIRA HILAREN 30EAN

atseden hartzea ere behar dute. Aurten, kadete mailako taldea izango da Ibarren; gure laugarren taldea da, talde berria, eta ilusio handiz dabilta", gaineratu zuen Etxeberriak.

Abenduaren 29an hainbat mailako taldeak ibiliko dira nor baino nor gehiago Ibarren. 09:30ean hasita, benjaminen –maila hori berritasuna da–, alebilen eta infantilen txanda izango da, eta Bergara, UDA Arizmendi, Real, Aloña Mendi eta Goierrigorriko taldeak arituko dira.

Gazi-gozaok izan dira

Arizmendi Kirol Elkarteko ordezkari Gorka Gabilondok azaldu zuen ikasturte hasiera gogorra izan dela. "Hainbat klubetan artean geneukan hitzarmena baztertu egin delako. Baina, bestalde, pozik gaude Aretxabaletan maila txikietan neska kopuru txikia zegoelako eta urte bakarrean 40 jokalariek izatera pasa garelako".

FUTBOLA Alfredo Najeraren oroimenezkoa bihar

Bihar, zapatua, jokatuko dute Gabonetako Gazte Mailako Txapelketaren 33. edizioa, eta aurtengo ere Alfredo Najeraren oroimenezkoa izango da. 17:30ean hasiko dute lauko torneo eta Ohorezko Gazte Mailako Real eta Vasconia izango dira, bate-tik, eta Maila Nazionalako Zarratz eta Bergara, bestetik. Finala 19:30ean hasiko dute (5 euro).

PILOTA Gabon Kopa jokatu dute Aretxabaletan

Aretxabaletako pilotari gazteekin batera Antzuolako, Aramaio, Arrasateko, Oñatiko, Soralezko eta Bergarako pilotariak izango dira Gabon Kopan. Abenduaren 26tik 28ra ligaxka erantokatu dituzte partiduak (10:00, Iturrigorri pilotalekuan), hilaren 30ean finalaurrekoak izango dira (10:00), eta 31n jokatu dute finala (10:00).

ATLETISMOA Hilaren 26an San Esteban krosa Antzuolan

Aurtengo Gabonetan ere Antzuolako kaleak korrikalariz beteko dira, hilaren 26an egingo dute eta San Esteban krosa. Helduen lasterketa –16 urtetik gorakoendako– 18:00etan hasiko dute, eta, lehenago, maila txikiagoetako krosak egingo dituzte, ibilbidea eurei egokituta. Txikien lasterketak –5 urte– 17:45ean hasiko dituzte.

KUADRILLAK Oñatiko saskibaloia eta areto futbol txapelketak

Abenduaren 27an eta 28an, kuadrillen arteko areto futbol txapelketa jokatu dute Zubikoan, egun osoz. Eta ez da kuadrillei zuzenduta egingo den hitzordu bakarra izango, abenduaren 29an eta 30ean saskibaloiko txanda izango da eta. Saskibaloian hilaren 29an egun osoa erabiliko dute eta hilaren 30ean goizez izango dira partiduak.

ESKUBALOA Bihar batuko da BKEko familia Labegaraietan

Bihar, hilak 23, egingo dute Labegaraietan Eskubaloia Eguna. 10:00etan hasita, kategoriatxiki-tako partiduak izango dira –infantil eta kadete mailakoak, jokalariek euren etxeko kontratua. Eta arratsaldean (16:00) beterranoen txapelketa jokatu dute. Gazte mailako neskek eta neska beterranoak izango dira, baita gizonetako ere.

FUTBOLA Bixente Etxeandia torneo hilaren 26tik 28ra

Hiru adin tartetako gazteek jokatu dute Bixente Etxeandia torneo, Aretxabaletan. 2015an jaiotakoek abenduaren 26an jokatu dute (09:00-14:00), 2014koek arratsaldean (15:00-19:45) eta 2013koek hilaren 27an (15:00-19:45). Parte hartuko duten taldeak dira UDA, Bergara, Mondra, Aloña, Lazkao eta Vulcano. Finalak, berriz, 28an.

ESKUBALOA Hilaren 28an Eskubaloia Kalera eguna Bergaran

Abenduaren 28an –arratsaldez– egingo dute II. Kaleko Eskubaloia Txapelketa Bergaran. Txapelketa hori Lehen Hezkuntzako hirugarren eta seigarren maila bitarteko neska-mutikoei zuzenduta egongo da eta partiduak Bergarako pilotalekuan jokatu dituzte. Txapelketa 5x5eko formatuan izango da. Iaz, esaterako, 80 neska-mutiko batu ziren.

PILOTA Reyes Azkoitia txapelketako finalak hilaren 30ean

Bergarako Pilota Elkarteko gaztetxoak hainbat jardunalditan izan dira Reyes Azkoitia txapelketa barruko norgehiagokak jokaten, eta kanporaketa guztiak gaititu dituztenek hilaren 30ean jokatu dituzte finalak. Bada, final horiek 16:00etan hasiko dituzte. Ohitura da finalen aurretik motorrak berotzen joateko *barru*-etan jokatzeko.


San Silvestre probak, urtea izerdia botata agurtzeko

ATLETISMOA Oñatin, Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Bergaran korrika eginez agurtuko dute 2023a. Arrasaten (Musakola) goizez egingo dute hitzordua eta Bergarakoak, berriz, mendi lasterketa formatua izango du aurten ere

Xabier Urtzelai ARRASATE

Urtetik urtera San Silvestre lasterketetan parte hartzen duen korrikalari kopurua haziz doa. "Aurten 400 dortsal saldu ditugu Bergaran. Izen-ematea zabaldu eta egunean bertan saldu genituen dortsal guztiak, eta konturatu ginen emakumezko asko kanpoan geratu zirela. Hala, hori zuzentzeko, emakumezkoendako beste hogeitaz dortsal jarri genituen salgai, eta bikote mistoendako ere beste hogeitaz, eta horiek ere hegan egin zuten", adierazi du Hankaluzeko taldeko ordezkari Maria Sanchezek.

Hala, Bergarako mendi lasterketa 12:00etan hasiko dute, eta, azken urteotan moduan, korrikalariak San Migelera igoko dira, zazpi kilometroko zirkuitua osatzeko. "San Migeleko jaitziera ez da, akaso, hasierako ibilbideak zuen jaitziera besteko polita, baina iguera ederra da, basotik da eta. Kontua da lehenengo ibilbidea egiteko baimen



Begarako helmuga, iaz. GOIENA

mordoa eskatu behar zirela, eta hau antolatzeko errazagoa da".

Musakolan, goizean

Urtea Musakolan bukatu, zure etxean, gure herrian! lelopean antolatzen duten San Silvestre

proba 12:00etan egingo dute, baina 10:00etan hasita umeendako lasterketak egingo dituzte. Izen-ematea egunean bertan egin ahal izango da –umeen lasterketarako 09:30etik 10:00ak bitartean eta helduen lasterketarako 11:00etatik 11:45era–. Hala, antolatzaileek korrikalariak animatu nahi dituzte lasterketara moztortuta joan daitezela. Lasterketan parte hartzeko ez da dirurik ordaindu behar.

Arratsaldean, hiru herritan

Arratsaldean, berriz, Oñatin (16:30), Eskoriatzan (17:30) eta Aretxabaletan (16:45) egingo dituzte lasterketak, eta horietan guztietan lasterketa aurretik eman ahal izango da izena. Oñatin, esaterako, 16:00ak arte egongo dira izenak hartzen (5 euro), eta nagusien aurretik gazteen lasterketa egingo dute, 16:00etan hasita. Eskoriatzan, ohi moduan, korrika egin aurretik brindisa egingo dute xanpainarekin.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOR. ERREGIONALA

Eibar-Bergara

Zap. 12:00. Unbe.

Oiartzun-UDA

Zap. 15:30. Karla L.

OHOR. ERREGIO. EMAK.

Goierri-Debagoien B.

Zap. 16:00. Igartza.

GAZTEAK, MAILA NAZ.

Bergara-Hernani

Dom. 17:00. Agorrosin.

GORENGO MAILA

Soraluze-Bergara B

Gaur. 19:30. Ezozia.

Urki-Antzuola

Gaur. 19:30. Unbe.

Euskalduna-Aretxabal.

Zap. 15:30. Andoain.

Segura-Mondra

Zap. 15:30. Alustiza.

Zestoa-Aloña Mendi

Dom. 16:00. Iraeta.

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL MAILA

Eskoriatza-Albaredo

zap. 18:00. M. Muñoz.

Mondrate (Zehaztu bark.)

GIPUZKOAKO 1. MAILA

Coinbrok. Aloña-Oiart.

Zap. 18:00. Zubikoa.

GIPUZKOAKO 2. MAILA

Makax-Eskoriatza

Dom. 12:30. Altza.

Mondrate-Gamon

Dom. 13:00. Iturripe.

ESKUBALOIA

Kategoria guztietan

atsedena dute.

Urtarrilaren 14an

bueltatuko dira ligak.

SASKIBALOIA

Kategoria guztietan

atsedena dute.

Urtarrilaren 14an

bueltatuko dira ligak.

PILOTA

SANTAMAS JAIALDIA

Urrutikoetxea-Elizegi

Bakaikoa-Eskiroz

Ezkurdia-Tolosa

Artola-Imaz

Gaur. 17:00. Uarkape.

PENTATLOIA

Zapatuan. 12:00etan.

Santamas jaien barruan

herri kirol proba

Zaldibarko frontoian.

Karmele Gisasola eta

Xabier Zaldúa izango

dira, batetik, eta Julen

Kañameres eta Xue

Ansorregi, bestetik.

FUTBOLA Txelisen omenezko torneooa, hilaren 30ean

Mondrak antolatzen duen Txelisen omenezko torneooa jokatu dute abenduaren 30ean, Mondratekin. Hala, 2011n jaiotako mutikoak –arratsalde– eta 2010ean eta 2011n jaiotako neskek –goizez– batuko dira txapelketan eta Gipuzkoa mailako makina bat klubetako ordezkariak izango dira bertan; tartean, Debagoienekoak.

SASKIBALOIA Campusak egingo dituzte Areskok eta Ointxe!-k

Ointxe! eta Aresko saskibaloia klubek kirol campusak jarri dituzte abian Gabonetako oporraldirako. Abenduaren 26tik 29arte egingo dute, bietan, lehenengo txanda, eta urtarileko lehenastean egingo dute bigarren txanda, urtarilaren 2tik 5era. Ointxe!-koa Arrasaten egingo dute, eta Areskorenak Aretxabaletan eta Eskoriatzan.



Realaren eta Alavesen arteko derbirako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Alaves norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek:

Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Partida 2024ko urtarrilaren 2an, 19:15ean, izango da.

Parte hartzeko azken eguna: abenduak 25.



Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzu!

goiena[™]
kide

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu.
Zorte on!



"Zarzuelarako gogoa sumatzen dugu herrian"

MERTXE SALABERRI IZASKUN MURGIA ELKARTE LIRIKOKO KIDEA

2019an egin zuten azken zarzuela emanaldia; etenaldi luzearen ostean, urtarrilaren 19an, 20an eta 21ean eskainiko dute 'Antología de la zarzuela', Amaia antzokian

Aitziber Aranburuzabala Juldain
ARRASATE

Hainbat zarzuelatako pasarteekin osatutako ikuskizuna eskainiko dute Izaskun Murgia Elkarte Lirikoko kideek, eta gogotsu ari dira prestaketa lanetan.

Aspaldiko partez, taula gainera igotzeko gogoz, ezta?

Deseatzen gaude taula gainera igotzeko, herrian zarzuelarako gogoa dagoela adierazi digute eta askok.

2019an egin zenuten azkena.

Hala da, bai; *El dúo de la Africana* izan zen, eta, 2020ko martxoan hurrengo prestatzen hasi ginenean, pandemia etorri zen eta bertan behera geratu zen dena.

Saiakera batzuk egin dituzue.

Bai; jendeak zertan ari garen ikusteko, 2022an lokalean zerbait egitea pentsatu genuen, baina, ez zen posible izan eta aurreko urteetan egindako lanak aprobetxatuta, 2023an Amaia antzokian ikuskizun bat eskaintzea erabaki genuen; hala ere, orkestrako kideak oso lanpetuta ibili dira Arrasate Musikaleko 50. urteurreneko ospakizunekin, eta datorren urte hasierara atzeratzea pentsatu genuen.

Antología de la zarzuela ikuskizuna egingo duzue. Zelakoa da?



Mertxe Salaberri. A.A.

Hainbat zarzuelatako zatiak aukeratu ditugu: bakarlariren erromantza batzuk, bikotekako pasarteak eta abesbatzak abestutako beste hainbat. Aurrez egindako zarzueletako pasarteak dira gehienak, baina badira beritasunak ere.

"AURREZ EGINDAKO ZARZUELETAKO PASARTEAK ETA KANTU BERRIAK ESKAINIKO DITUGU"

Zelako piezak entzungo ditugu, adibidez?

Denetariko kantuak izango dira, eta publikoak gustura hartzen dituen umorezko uneak ere bai, eta, nola ez, amodiozko drama uneak ere bai... Adibidez: tenoreek abesten duten *La taberna del puerto* zarzuelako *No puede ser* abestia; *El caserío* obrako pieza ezagunak; *Luisa Fernanda* laneko *La Mazurca de las sombrillas*...

Zuri zer egitea egokituko zaizu?

Eszena zuzendari lanak egingo ditut, eta, horrez gainera, taularen gainean ere izango naiz, *señora* rolean sartuta; nire zatiak umorezkoak izaten dira, gehienbat.

Bakarleri lanetan zeintzuek jardungo dute?

Emakumezkoak: Ane Maiztegi, Maria Izaga, Ruth Osinaga, Mari Carmen Gomez, Susana Vazquez, Barbara Lamas eta ni neu. Gizonetakoetan, berriz: Mikel Izurategi, Lander Oyanguren, Sergio Llopis, Joserra Mendizabal, Enrique Altuna eta Luis Okina.

Eskarmentua dutenak gehienak, baina izen berriak ere badira tartean.

Bai. Aurtan, adibidez, Cristina Cubillo ez da taularen gainean izango; musika-zuzendari lanetan ari da Eduardo Arzamendi-

rekin batera, Tere Gonzalez ordezkatzan; Terek elkarteko zuzendaria izaten jarraitzen du, baina, gaixaldi baten eraginez, ez du aurtengo ikuskizunean parte hartuko.

Zenbat kide zarete oraingoan?

Taula gainean 50 lagun inguru izango gara, baina atzeko lanetan ari diren lagun asko ahaztu barik: jostunak, dekoratu egileak eta abar, eta abar.

Arropa berriak estreinatuko dituzue?

Aurrez erabilitakoak moldatu ditugu, gehienbat, baina berriren batzuk ere egin dituzte, bai. Horrenbeste pieza ezberdin eskainiko ditugunez, arropa aldaketa asko egingo ditugu ikuskizun zehar; emakumezko abeslariak, bereziki.

Eta dekoratuz zer diozu?

Askorik ezin dut aurreratu, baina, antologia izanik, orain ar-

teko ikuskizunekin alderatuz ezberdinak izango direla esango dizuet; gustatuko zaizkizue.

Entseguetan buru-belarri ari zarete; Gabonetan ere bai?

Etenaldi txiki bat egingo dugu eta urtarrilaren 2an hasiko gara berriz entseguetan.

Kulturolan duzue gaur egun egoitza; gustura zaudete?

Bai, oso pozik gaude. Toki handia behar dugu dekoratuak egiteko, adibidez; era berean, jostunek euren txokotxoak ere badute eta eszenatoki bat ere badugu entseguak egiteko.

Hiru emanaldi egingo dituzue urtarrilaren 19tik 21era; noiz jarriko dituzue sarrerak eskuragarri?

Ezin dugu data zehatzik esan, baina lehenbailehen salgai jarri gura ditugu; online erosketako aukera izango da *Arrasate.eus* atarian.



Urtarrilaren eskainiko duten ikuskizuna entseatzan. MERTXE SALABERRI

50 lagun inguru taula gainean

Pandemiaren etenaldiaren eraginez, Izaskun Murgia Elkarte Lirikoan baja batzuk izan dituzte, baina kide berri batzuk ere batu dituzte; hala ere, gizonetako eta gazte gehiago hartzeko "gogotsu" daudela adierazi dute.

SANTAMAS JAIK

GOIENA TELEBISTA

ABENDUAREN 22AN, EGUBAKOITZA, 18:00, 20:00 ETA 22:00

BABESLEA:

LIRAIN
ARRASATE | ESTETIKA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.





Aretxabaletako Nhil taldea, Hondarribian Jazz jaialdian egin zuten kontzertuan. @KORU_BG

Azken kontzertua etxean, bira "luzea" borobiltzeko

2022ko ekainaren 3an Eskoriatzako Zaldibar antzokian egin zuten kontzertuarekin abiatu zuen Nhil taldeak 'Bizi bagina bezala' bigarren diskoa aurkezteko bira, eta bihar egingo dute azkena, Arkupe kultura etxean, 19:00etan; sarrerak agortuta daude

A. Aranburuzabala ARETXABALETA Aretxabaletan entsegu lokala duen baina herriko musikariez gain Eskoriatzako, Arrasateko eta Aramaiokoak batzen dituen Nhil seikotea "pozik" da bukatzeaz duten kontzertu birarekin. 41 emanaldi egin dituzte eta bihar, zapatua, Aretxabaletako Arkupe kultura etxean egingo dute azkena. "Etxean bukatu gura genuen, eta oso pozik gaude zaleek egin diguten harrerarekin, sarrera guztiak agortu egin dira eta!", dio Beñat Arrieta gitarrak-joleak.

Radio 3 irratian ere bai
Euskal Herriko plaza eta areto askotan aurkeztu dituzte *Bizi*

bagina bezala diskoko kantuak, baina baita irratiko uhinetan eta telebistan ere. "Radio 3 kateko emanaldia oso berezia izan guretzako, telebistan ere eskaini zutelako. Esperientzia oso polita izan zen Madrileraino joan eta ohituta ez gauden formatuan kontzertua grabatzea. Hondarribiko Jazz jaialdian eskaini genituen hiru kontzertuak ere oso gogoan ditugu".

"HONDARRIBIKO JAZZ JAIALDIKO ETA RADIO 3-EKO EMANALDIAK OSO GOGOAN DITUGU"

BEÑAT ARRIETA, NHIL TALDEKO KIDEA

Lanean lasai jarraitzeko gogoz
Biharko emanaldiaren ondoren, atsedean hartuko du seikoteak. "Tarte zabal batean kontzerturik ez ematea adostu dugu. Kantu berriekin jarriko gara lanean, baina lasai antzean. Dagoeneko hainbat kantutarako ideiak baditugu, eta horiek lantzen eta ideia berriak sortzen hasiko gara, eta denborak esango du noiz grabatuko ditugun. Ez dugu epe zehatzik jarrita; hortaz, kantuek forma hartzen dutenean grabatuko ditugu eta diskoa argitaratuko dugu ondoren. Prozesua luzea da eta ez daukagu presaka ibiltzeko asmo eta gogorik, asko gozaten dugu eta sormen lanetan".

Eskuragarri dago eskualdeko biblioteken 'Neguko gida' berria

10.300 ale argitaratu dituzte; formatu digitalean eta paperean, biblioteketan eta liburu-dendetan daude

A.A.J. ARRASATE
Askotariko liburu, disko eta film berrien gomendioak batzen dituzten bi gida argitaratzen dituzte urtero Arrasateko, Aretxabaletako, Aramaioko, Oñatiko, Bergarako, Eskoriatzako eta

Legazpiko udal liburutegiek elkarlanean, eta hala sortu dute labetik atera berri duten *Neguko gida* ere; Antzuolako biblioteka batu da, oraingoan, ekimenera. "Ohi moduan, formatu digitalean eta paperean dago;

13.000 ale dira, guztira, eta eskualdeko biblioteketan eta liburu-dendetan aurkituko duzue", dio Arrasateko Bibliotekako zuzendari Asun Agirianok.

Adinka sailkatuta

"Haur txiki-txikiendako, lehen irakurleendako, irakurle koxkorragoentzako, gazteendako eta helduentzako genero askotariko liburu berrien zerrendaz gainera, gure biblioteketan ditugun disko eta film berrien proposamenak ere batu ditugu".

Goienakideen txokoa

ABENDUKO SARIAK

32"
TD SYSTEMS

Telebista
Parte hartzeko sariaren izena: telebista

EROSKI
ARRASATE

Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
GRATIKO O BAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harrermandenda.org
Bidezko Merkataritza Produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.
"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzearekin artean egingo da zozketa. Inon ere dagoen DVD 15/1000 legeren arabera jalarazteko dugu, zuzen diguztenekin Goiena Foruakiko Zerbitzuaren fitxategi automatizatua baten sartze bidez. Datu bilaketaren helburu bakoitza indararen dagoen sustapena goienakideen Eskualdeko goi-irratia dagoen artean, hain zuzeneko erabilera, lehen hurren irratia goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

LA PIAZZETA DE LOS OLIVOS JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: urtarrilak 2

☎ 943 25 05 05 ✉ goienakide@goiena.eus 📱 "Goiena app"-a / zozketa atalean.

📱 GOIENAKIDE Jotetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



2024KO GOIENAKIDE KUOTA: 65€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Bergara. Bergarako poligono inguruan 3 logela-dun etxea erosiko nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 673 35 95 98

2. GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Garaje itxia salgai Arrasateko Udalpe kalean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 676 32 23 88

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

ESKORIATZA

NAIRA taberna errentan ematen da. Sukaldea dauka. Oso merke. 618 76 34 40

4. LANA

402. ESKAERA

Debagoiena. Asteburuetan eta astean zehar orduka lan egiteko prest dagoen neska. Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Telefonoa: 632 63 77 38

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest nago. 613 49 33 46

Debagoiena. Garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. 614 14 83 47

Debagoiena. Garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. 603 13 18 44

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Soziosanitario ikasketak ditut. Asteburuetan eta astean zehar orduka egin dezaket lan. 612 56 12 39.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka lan egingo nuke. Geriatria ikasketak ditut. Deitu 650 34 17 54 zenbakira.

5. IRAKASKUNTZA

502. EMAN


Bergara: Ingeleseko klaseak ematen dira. Bergaran, goizean, eguerdian zein arratsaldean, maila guztietako ingeleseko klaseak ematen ditut, eta Cambridge-ko zein Hizkuntza Eskola Ofizialeko azterketarako ikasleak prestatzen ditut. Talde txikiak. Deitu 618 91 32 89 telefonora.

6. MOTORRA

602. EROSI

Mercedes G-klasea erosiko nuke. Mercedes-Benz G-klasea erosiko nuke. Lur orotako ibilgailua da (4x4 autoa). 656 75 76 98

ZORION AGURRAK



ARETXABALETA Unai Garcia 29an, 15 urte. Gure koadrilako txikiena handi egiten ari da! Espero dugu egun ona pasatzea, eta zorte on hasi berri duzun etapa fisiko honetan, gimnasioan! Laister 30kg altxatuko dituzu!



ONATI Peru Azkoitia Pata Abenduaren 29an, 5 urte. Zorionak, maitia! Jarraitu orain arteko gure mutil jatorra izaten. Ondo ondo pasau zure eguna. Asko maite zaitugu. Muxu potolo asko.



BERGARA Iratxe Osa Zabala 29an, 11 urte. Gure etxeko altxor haundia! Aitaxo, amatxo, Oier, osaba eta aiton-amonon partetik!



ARRASATE Jon Zabaloa Azevedo Abenduaren 26an, 6 urte. Zorionak, Jontxu! 6 urte maitia! Muxu haundi pila.



BERGARA Alaia Garcia de Andoin Igartua 25an, 6 urte. Zorionak, poxpolin! Maitxe zaitxugu! Patxo bat danon partetik!



ESKORIATZA Estitxu Azpitarte Rejado 24an, 42 urte. Egun polit bat ospatu. Ama, aita, anaia Gorka eta lon txakurtxue.



ARETXABALETA Luka Oliden Arejolaleiba 24an, 3 urte. Zorionak, Luka! Ondo-ondo pasau eguna eta patxo handi bat Atxabaltatik.



BERGARA Aitor Beistegi Frias 23an, 11 urte. Zorionak eta ondo pasau eguna! Muxu handi bat, etxeko guztion partetik.



ESKORIATZA Jon Cabello Garcia 23an, 15 urte. Zorionak! Ondo pasa eguna eta gozatu. Muxu handi bat familia osoaren partetik.



ARETXABALETA Danel Lizarazu Altube 22an, 8 urte. Zorionak! Primeran ospatu lagun eta familiariakin. Aitaxo ta amatxo.



BERGARA Oier Osa Zabala 20an, 6 urte. Etxeko altxor txikiak! Aitaxo, amatxo, Iratxe, osaba eta aiton-amonon partetik!



ONATI Amaiur Guridi Muñoz 19an, 4 urte. Allau da zure eguna. Patxo pillia bereziki aita, ama eta Inharren partetik!



BERGARA Nahia Lagoma Casas 18an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure eguna! Patxo bat etxeko guztion partetik!



BERGARA Unai Diaz Davila Abenduaren 15an, 9 urte. Zorionak, Unai! Muxu haundi bat etxeko guztion partetik.

Urte askotarako!

Zoriontzeko, hiru bide dituzu:

Internet
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta Goiena.eus/zorionagurrak helbidean sartu. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak
Etor zaitzez Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Oharra
2024ko urtarrilaren 12an argitaratuko ditugu etelaldian zehar jasotako zorion agurrak.



ONATI Ainhoa Zulueta Vicuña Abenduaren 10an, 13 urte. Zorionak, maitte! Ederto pasau geben! Milla patxo maitte!

ESKER ONA

Emilio Agirre Agiriano



2023ko abenduaren 18an hil zen, 78 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez bersarkada handi bana, familiaren izenean.

Aramaion, 2023ko abenduaren 22an.

URTEURRENA



Mila Izurategi Zubia



2022ko abenduaren 21ean hil zen, 68 urte zituela.

Denbora badoa aurrera, baña zure maitasunak gurekin jarraituko du betiko.

Etxekoak.
Eskoriatzan, 2023ko abenduaren 22an.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Korosti
inmobiliaria

Bergara: Bidekurutzeta, 55m², erabilgarri, logela 1, igogailua eta garaje itxia aukeran. **187.000€**



Bergara: Masterreka, 75m², 3 logela, 67m² eta egungo dekorazioarekin. **135.000€**



Bergara: San Pedro, 67m² erabilgarri, 2 logela, 67m²-ko ganbara etxebizitzatik sarbidearekin **120.000€**




Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

Informazio
gehiago:



ASTEA GOIENA TELEBISTAN



'BIXI IBILI!' GATZAGAN

Galde-erantzunen jokoak eta Aitor Agirianok azken geldialdia egingo dute Leintz Gatzagan.

'Bixi ibili!' Martitzena, 18:00, 20:00 eta 22:00



SANTAMASAK

Arrasateko urteko azokarik esanguratsuenak eta jendetsuenak emandakoaren laburpena.

'Jaiak' Egubakoitza, 18:00, 20:00 eta 22:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:
goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

OROIGARRIA



Emilio Agirre Agiriano 

2023ko abenduaren 18an hil zen, 78 urte zituela.

*Aittitta,
Suñako harrixetatik izarretaraino zure arrastue gudan...
Beti arte!*

Asier, Iraia, Garazi eta Izarbe.
Aramaion, 2023ko abenduaren 22an.

OROIGARRIA

Emilio Agirre Agiriano 

Asier Agirre Mugarza zinegotziaren aita
2023ko abenduaren 18an hil zen, 78 urte zituela.

Bat egiten dugu familiaren saminarekin.



Aramaioko Udala.
Aramaion, 2023ko abenduaren 22an.

OROIGARRIA

Jose Ignacio Egaña Azcargorta 


'Josin'
2022ko abenduaren 25ean hil zen, 73 urte zituela.

*Asko maite izan zintugun.
Gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko
baina bizitzen garen artean ez zaitugu ahaztuko.*

Bergaran, 2023ko abenduaren 22an

OROIGARRIA



Ander Alberdi Lete 

2023ko abenduaren 17an hil zen, 56 urte zituela.

Ander, indarrak lagun zaitzala.

Ikastolako guraso kuadrilla.
Bergaran, 2023ko abenduaren 22an.

OROIGARRIA


Ander Alberdi Lete 

2023ko abenduaren 17an hil zen, 56 urte zituela.

*Bizitzan aurrera egiteko erakutsi duzun
indarra eta kemena izan dezagun eredu.*

'Satorretxe' familia.
Bergaran, 2023ko abenduaren 22an.

OROIGARRIA


Ander Alberdi Lete 


2023ko abenduaren 17an hil zen, 56 urte zituela.

*Zure indarrak lagun gaitzala
Izarrak lagun zaitzala*

Bazka-ko lagunak.
Bergaran, 2023ko abenduaren 22an.

OROIGARRIA




Jose Ignacio Elorza Gorosabel 

'Joshe'
2023ko abenduaren 15ean hil zen, 72 urte zituela.

*Osaba, zu beti eskuzabal eta txiste-kontalari,
argazkilaria eta korrikalari...
gogoz helduko diogu zure lekukoari!*

Zure lobak.
Arrasaten, 2023ko abenduaren 22an.

OROIGARRIA

Jose Ignacio Elorza Gorosabel 

'Joshe'
2023ko abenduaren 15ean hil zen, 72 urte zituela.

Beti izango zara gure bihotzean.

Lope, Dioni, Miriam, Amaia eta Rakel.
Arrasaten, 2023ko abenduaren 22an.

OROIGARRIA


Jose Ignacio Elorza Gorosabel 

'Joshe'
2023ko abenduaren 15ean hil zen, 72 urte zituela.

*Hamaika txistez, irribartsu
alaitu duzu gure familia,
bihotza beti presto
laguntzen lehena.
Joshe, lurak goxo-goxo har zaitzala.*


Zure anai-arreba eta koinatu-koinatak.
Arrasaten, 2023ko abenduaren 22an.

OROIGARRIA

Jose Ignacio Elorza Gorosabel 


'Joshe'
2023ko abenduaren 15ean hil zen, 72 urte zituela.

Eskerrik asko urte hauetan egindako ekarpenagatik.




Arrasate Atletiko taldeko lagunak.
Arrasaten, 2023ko abenduaren 22an.

OROIGARRIA

Jose Ignacio Elorza Gorosabel 

'Joshe'
2023ko abenduaren 15ean hil zen, 72 urte zituela.

Eskerrik asko 32 urte hauetan egindako lan guztiagatik



San Felipe Elkarlaguntza (1898-2023).
Arrasaten, 2023ko abenduaren 22an.

Oroilore BABESLEA
Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

*Gure artean agurnatako guztiei
euren bidea azaltzen lagundu
diegu, orain arte bezala, eta guztiak
izango date agur berezia Oroiloren.*

*Gure eskerrik beronenak gogon
izan dituen konfiantzagarri eta
maitasunagatik.*

Mario, Iban, Mariñi eta Cristian

617 44 21 55
BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OSATI



EGUBAKOITZA 22

ARRASATE Santamas jaiak
Informazio gehiago 11. orrian.
Hainbat gunetan, 09:00etan.

ELGETA Pilota txapelketako finalerdiak
Ostean, afaria egingo dute parte-hartzaile guztiek.
Pilotalekuan, 18:00etan.

BERGARA Errektori eskola
Gaztetxoendako.
Seminarixoko karpan, 18:00etan.

OÑATI Potx magoa
Helduendako ikuskizuna egingo du.
Gaztetxean, 18:00etan.

BERGARA Gabonetako kontzertua: 'Miserableak, 30 urte'
Bergarako musika eskolako talde bakoitzak *Miserableak* musikaleko kantu bat interpretatutako du.
Pilotalekuan, 18:30ean.

OÑATI 'Gauko andreak' ikuskizuna
Hots abesbatzak mitologia eta musika bateratuko ditu. Sarrerak, zortzi euro.
Zubikoa pilotalekuan, 22:00etan.

ZAPATUA 23

ESKORIATZA Frontenis txapelketa
Bikoteka.
Pilotalekuan, 09:00etan.

OÑATI Antixena gaztetxearen 11. urteurrena
Egun osoko egitaraua.
Gaztetxean, 10:00etan

BERGARA 25. Napar Feria
10:00etan, marmitako lehiaketa; 10:45ean, txistulariak eta erraldoiak; 11:00etan, meza; 11:15ean, azoka; 12:00etan, marmitako dastatzea; eta 13:00etan, musika.
San Antonion.

BERGARA 'Emakumeak botanikan' bisita gidatua
Tailerra ere egingo dute. Izena emateko: 943-76 90 03.
Laboratoriumen, 11:00etan.

ARRASATE Artisauen azoka
Eskuartearen Artisau Kolektiboaren eskutik. Orduetgia: 11:00-14:00 eta 16:30-20:30.
Seber Altube plazan, 11:00etan.

GABONETAKO AGENDA



GOIKO GELA

ANTZUOLA ETA ARETXABALETA Goiko Gela gospel taldea

Karlos Etxanizek, Jon Imanol Etxabek, Olatz Otxoak eta Santi Romanok osatzen dute taldea, eta emanaldi bikoitza egingo dute bailaran. Euskaraz abesten dute.
Antzuolan, hilaren 23an, Torrerosoan, 19:00etan; eta Aretxabaletan, hilaren 28an, Arkupen, 19:00etan.

ARRASATE Estanpazio tailerrak
11:00etan, oihalean, eta 17:30etan, askotariko oinarrietan. Izena emateko: 688 85 92 28.
Seber Altube plazan.

ARRASATE Egurrezko jolasak
Zuresku taldekoen eskutik.
Orduetgia: 11:30-13:30.
Seber Altube plazan.

BERGARA Kokoxa antzerki taldea
Kale-antzerkia egingo dute.
San Martin plazan, 12:00etan.

ARRASATE Gabonetako otarren zozketa
Ibai-arte 50 zozketatuko ditu.
Herriko Plazan, 13:30ean.

ESKORIATZA 'Enperadorearen kondaira' antzezlan
Itzalekin egingo dako kontakizuna, magia, malabarrak eta antzerkia tartekatuz, 2-12 urte artekoendako. Sarrerak, hiru euro.
Zaldibar antzokian, 17:00etan.

ARRASATE 'Apaxi eta euskal mitologiaren magia' ipuin kontaketa
Gorka Olazabalek egingo du emanaldia.
Kulturaten, 17:30ean.

BERGARA Gabonetako kalejira
Oñati eta Mari Domingirekin, Aranerrekatik Boluko frontoira.
Aranerrekant hasita, 18:00etan.

ELGETA Oñatzeroren eta Mari Domingiren etorrera
Intxortatik jaitziko dira, neska-mutikoen gutunak jasotzera.
Mendizaleen plazan, 18:30ean.

ARETXABALETA Nihil taldea
Bizi bagina bezala diskoaren biraren azken kontzertua. Sarrerak agortuta.
Arkupen, 19:00etan.

ANTZUOLA Goiko Gela gospel taldea
Gospel kantak euskaraz abesten dituzte. Sarrerak, hamar euro.
Torresoroan, 19:00etan.

BERGARA 'Gora euskal herrientsak' liburuen aurkezpena
Asisko Urmeneta egilea egingo da ekitaldian.
Kartzela zaharlean, 19:00etan.

ARRASATE 'Tu-tum Platz' bakarrizketa saioa
Jon Plazaolaren ikuskizuna. Sarrerak, hamar euro.
Amaia antzokian, 19:30ean.

OÑATI Gabonetako kontzertua
Oñati abesbatzarekin eta Aita Madina txistulari taldearekin.
Agustindarren elizan, 20:00etan.

BERGARA Gabonetako kontzertua
Bergarako musikarien eskutik. Sarrerak, zortzi euro.
Pilotalekuan, 20:30ean.

ANTZUOLA Dirty Old Gasteiz eta KKK taldeak
Debalde.
Gaztetxean, 22:00etan.

DOMEKA 24

BERGARA Oñatzeroren eta Mari Domingi kantuan
Angiozar bailara zeharkatuko dute.
Angiozarren, 08:45ean.

ARRASATE Artisauen Gabonetako azoka
Eskuartearen Artisau Kolektiboaren eskutik. Orduetgia: 11:00-14:00.
Seber Altube plazan, 11:00etan.

ELGETA Gabon eskea
Ostean, salda eta txorizo-pintxoak banatuko dituzte Mendizaleen plazan.
Herri Eskolatik abiatuta, 11:00etan.

ARRASATE Oñatzeroren gutunak jasotzea
Txoronpia, Txoronpio eta Basajaun egongo dira. Hain zuzen ere, 11:20an hasita, Munarren, Uribe auzoan, San Andresen, Aprendices plazan, Zigarrolan eta Santa Teresan; eta 13:30ean, berriz, Herriko Plaza Nagusian.
Arrasaten.

OÑATI Ganbon kantak eta salda
Kalejira ikastolako musikariekin. 12:30ean, salda banatuko dute.
Foruen plazan, 11:30ean.

ARETXABALETA Oñatzeroren eta Mari Domingiren harrera
Neska-mutikoen gutunak jasoko dituzte.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ESKORIATZA Gutunak emateko tartea
Oñatzeroren eta Mari Domingiren laguntzaileak egingo dira.
Fernando Eskoriatza plazan, 12:00etan.

BERGARA Oñatzeroren eta Mari Domingi ongietorria
Herriko umeek egingo diete.
San Martin plazan, 12:30ean.

OÑATI Oñatzeroren eta Mari Domingi ongietorria
Oñati zuhaiztian hasiko dute kalejira, eta Foruen plazan bukatuko dute.
Oñati zuhaiztian, 12:30ean.

BERGARA Gutunak jasotzea
Oñatzeroren eta Mari Domingi jasoko dituzte.
Udaletxearen atarian, 18:00etan.

ARAMAIO Oñatzerori eta Mari Domingi ongietorria
Gutunak jasoko dituzte.
Frontoian, 18:00etan.

ESKORIATZA Oñatzeroren eta Mari Domingi ongietorria
Apotzagatik helduko dira erdigunera. Kalejira egingo dute, Gabon kantak abestuz.
Intxaurtxueta auzoan, 18:00etan.

ARRASATE Oñatzeroren etorrera
Kalejira egingo du, umeen gozamenarako. 19:00etan agurtuko da, Herriko Plazan.
Monterron parkea, 18:00etan.

ARETXABALETA Oñatzeroren eta Mari Domingiren desfilea
Kiroldigitik Herriko Plazara.
Ibarra kiroldegian, 18:30ean.

ARRASATE Goikobalu abesbatzaren kantaldia
Kalejira egingo dute.
Arrasaten, 19:00etan.

BERGARA Oientzero eta Mari Domingiren bisita
Herriko umeekin elkartuko dira.
San Martin plazan, 19:00etan.

OÑATI Gabon kantak
Musika bandaren eskutik.
Foruen plazan, 19:00etan.

ASTELEHENA 25

BERGARA Mojito gaua
Elvis Cainorekin.
Kartzela zaharrean, 00:30ean.

ELGETA Hamarretakoa Intxorta puntan
Txistor-pintxoak, Kantsatzeke mendi taldearen eskutik.
Intxorta puntan, 11:30ean.

ESKORIATZA Jasan taldea
Metal eta rock-gogor doinuak protagonista, Ixak Sarasuaren, Asier Mongelosen, Jokin Uribetxeberriaren eta Garikoitz Barandiaranen eskutik.
Inkernu tabernan, 22:00etan.

MARTITZENA 26

ARETXABALETA Pilota: Gabon Kopa
Antzuolako, Aramaioko, Arrasateko, Oñatiko, Bergarako eta Soralezuko pilotariak elkartuko dira, gaurtik hilaren 31ra arte.
Iturrigorri frontoian, 10:00etan.

ARETXABALETA Autodefentsa feminista tailerra
Esther Lopezek gidatuta, gaur egingo dute lehenengo saioa.
Bigarren, hilaren 28an.
Ibarra kiroldegian, 10:30ean.

BERGARA Txutxu tren
Ordutegia: 11:00-14:00 eta 17:00-20:30.
Fraiskozuri plazan.

BERGARA 'Zientzia sukaldian' tailerra
Kimika esperimenduak egingo dituzte. Parte hartzeko aurrez eman behar da izena: 943-76 90 03.
Laboratoriumen, 11:30ean.

ARAMAIO Umeentzako tailerrak
5 urtetik gorakoendako. Aurrez eman behar da izena.
Kultura etxean, 11:30ean.

ESKORIATZA Gabonetako parkea igerilekuan
17:00-18:20, 3-7 urte artekoak, heldu batek lagunduta; eta 18:30-20:00: 9-12 urte artekoak.
Kiroldegian.

ANTZUOLA San Esteban krosa
Adinaren arabera distantziak.
Herriko Plazan, 17:30ean.

BERGARA 'Aireportuan' ikuskizuna
Potx Eta Lotx pailazo taldearen eskutik. Sarrerak, lau euro.
Seminarixoan, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Sagastitarrak' antzezlana
Txalo Produzioak konpainiaren eskutik. Joseba Apaolaza, Ainhoa Etxebarria eta Koldo Olabari oholztan. Sarrerak, bost euro.
Arkupen, 19:00etan.

OÑATI 'Arnasaldiak' dokumental-kontzertua
Iker Martinez eta Zaldi Herrenak taldearen eskutik. Sarrerak, lau euro.
Zinema aretoan, 19:30ean.

EGUAZTENA 27

BERGARA Hiruko saskibalo txapelketa
Umeendako.
Pilotalekuan, 09:00etan.

ESKORIATZA Bilboko City Jumpera irteera
Gaztetxoendako.
Gaztelekuan, 10:00etan.

OÑATI Areto-futbol txapelketa
Egun osoan.
Zubikoan, 10:00etan.

ARETXABALETA Pilota: Gabon Kopa
Bigarren jardunaldia.
Iturrigorri frontoian, 10:00etan.

ESKORIATZA Gabonetako parkea kantxan
3-12 urte artekoendako. Eguneko sarrera: bost euro. Ordutegia: 11:00-13:00 eta 17:00-20:00.
Kiroldegian.

BERGARA Auzolana gaztetxean
Irekia.
Kartzela zaharrean, 11:00etan.

ARRASATE Jaiotzen erakusketa
Ordutegia: 11:00-14:00 eta 18:00-20:00.
San Frantzisko elizan.



BELAKO

ARRASATE Belako taldea
Post-punk doinuekin beteko du oholztza Mungiako laukoteak, Kooltur Ostegunetan egingo duten zuzenekoan. *Sigo regando* diskoa aurkeztuko dute. Sarrerak, zazpi euro.
Abenduaren 28an, gaztetxean, 22:00etan.

BERGARA Gabonetako parkea
7 urtetik gorakoendako. Ordutegia: 11:00-14:00 eta 17:00-20:00.
Eguneko sarrera: lau euro.
Labegarietan.

ARAMAIO Ixabel Agirresarobe: ipuin kontaketa
11:30ean, 4 eta 6 urte bitartekoendako; eta, 12:30ean, 7 urtetik gorakoendako.
Kultura etxean.

BERGARA 'Kutxak askatu' tailerra
Kartoizko kutxekin jolasak, 4 urtetik gorakoendako.
Seminarixoan, 17:00etan.

ELGETA Astro-topaketa
Ilatargi elkartearen gidaritzapean.
Liburutegian, 18:30ean.

OÑATI 'EHUtik Martera joan-eterria' hitzaldia
EHUko ikertzaile Juan Manuel Madariagak egingo du berba, gazteleraz, Ilatargi Astronomia Taldeak gonbidatuta.
Zinema aretoan, 19:00etan.

ARETXABALETA Bertso saioa
Aitor Mendiluze, Joanes Illarregi, Miren Artetxe eta Ane Zuazubiskar oholztza gainean, Aitor Lizarazuren gaiet bertsoak ipintzen. Sarrerak, bost euro.
Arkupen, 19:00etan.

ARRASATE Joyful Gospel Choir
Musika beltza. Debalde.
Herriko Plazan, 19:00etan.

EGUENA 28

ARAMAIO Bilboko PINera irteera
Gaztetxoendako.
Bizente Goikoetxea plazan, 09:15ean.

ARETXABALETA Pilota: Gabon Kopa
Gaur, azken jardunaldia.
Iturrigorri frontoian, 10:00etan.

ARETXABALETA Autodefentsa feminista tailerra
Esther Lopezek gidatuta, bigarren eta azken saioa.
Ibarra kiroldegian, 10:30ean.

BERGARA Gabonetako parkea
7 urtetik gorakoendako. Ordutegia: 11:00-14:00 eta 17:00-20:00.
Eguneko sarrera: lau euro.
Labegarietan.

BERGARA 'Emakumeak botanikan' bisita gidatua
Izena emateko: 943-76 90 03.
Laboratoriumen, 11:00etan.

ESKORIATZA Gabonetako parkea kantxan
3-12 urte artekoendako. Eguneko sarrera: bost euro. Ordutegia: 11:00-13:00 eta 17:00-20:00.
Kiroldegian, 11:00etan.

OÑATI 'Goazen! 10' emanaldia
17:00etan eta 19:00etan, 6-18 urte artekoendako. Ikusleko hiru sarrera gehienez.
Santa Ana antzokian.

OÑATI Bingo berezia
Gabonetako bi saski zozketatuko dituzte.
Pake Lekun, 17:00etan.

BERGARA 'Kutxartean' antzezlana
Teatro Paraisoren lana, umeendako. Sarrerak, lau euro.
Seminarixoan, 18:00etan.

OÑATI Boluntariotza saria 2023
Pake Lekun emango du.
Pake Lekun, 18:30ean.

ARETXABALETA Goiko Gela taldea
Elvis gospel ikuskizuna eskainiko du. Sarrerak, bost euro.
Arkupen, 19:00etan.

ARRASATE DJ Xaibor
Disco festa egingo du.
Herriko Plazan, 19:00etan.

OÑATI 'Un amor' filma
Isabel Coixeten pelikula, zineklubean. Sarrerak, bost euro.
Kultura etxean, 20:00etan.

OÑATI Txuleton's taldea
Oñatiko taldearen kontzertua.
Gaztetxean, 22:00etan.

ARRASATE Belako taldea
Post-punk doinuekin beteko du oholztza Mungiako taldeak. Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

BERGARA Txapeladunen Ligako bertso saioa
Aiausti, Altuna, Artola, Uriarte, Alustiza, Arriaran, Leibar, Arantzabal, Mendiaratz, Mata, Arcelus eta Lopez Munain hasierako hamaikakoan.
Kartzela zaharrean, 22:00etan.

EGUBAKOITZA 29

BERGARA Maijokurekin jolasean
Euskarako joko eta jolasak ezagutzeko ate irekiak egingo dituzte.
Kartzela zaharrean, 11:00etan.

BERGARA Gabonetako jolas parkea
7 urtetik gorakoendako. Ordutegia: 11:00-14:00 eta 17:00-20:00.
Eguneko sarrera: lau euro.
Labegarietan.

BERGARA Txutxu tren
Ordutegia: 11:00-14:00 eta 17:00-20:30.
Pilotaleku aurrean.

ARAMAIO Umeendako tailerrak
5 urtetik gorako haurrendako.
Kultura etxean, 11:30ean.

ARAMAIO 'Kris eta krash ile-apaindegian' antzezlan
14 urtetik gorako gazteendako.
Kultura etxean, 11:30ean.

ARETXABALETA 'Munduari itzulia 80 egunetan' antzezlan
Eriz Alberdi aktoreak Phileas Fogg-en istorioa kontatuko du, zabor-poltsak, erratzak, zoru-garbigailuak eta trapuak erabilia, besteak beste. Sarrerak, hiru euro.
Arkupa, 17:00etan.

ESKORIATZA Afaria eta pelikula
Gaztetxoendako.
Gaztelekuan, 18:00etan.

ELGETA Gabonetako bingo-jokoa
Beheko kaleko jai batzordearen eskutik.
Ozkarbi elkarte, 18:30ean.

ANTZUOLA 'Konponbiderako giltzak' ekitaldia
Ez Dot Moztuko Bizarra taldearen eskutik
Zurrategi plazan, 19:00etan.

OÑATI New Orleans Gospel 4TET taldea
Sarrerak, hamar euro.
Santa Ana antzokian, 19:00etan.

ARRASATE Rockalean taldea
Askotariko doinuekin egingo dute kalejira.
Maiatzaren Lehena plazan, 19:00etan.

OÑATI 'Petite Messe Solennelle' kontzertua
Ana Otxoa sopranoa, Lucia Gomez altua, Aitor Garitano tenorea, Juan Laboreri baxua, Amaia Zipitria pianista eta Xabier Urtaşun harmonium-jolea. Sarrerak, zortzi euro.
Parrokian, 20:00etan.

ZAPATUA 30

ESKORIATZA Eskupilota txapelketa
Marixol Eskoitzara! lelopean, bikoteka.
Pilotalekuan, 09:00etan.

ARETXABALETA Gabon Kopa: finalurrekoak
Aurreko hiru egunetan izandako kanporaketetan sailkatutako jokatuak dituzte.
Iturrigorri frontoian, 10:00etan.



LEKITTOKO DEABRUAK

ARRASATE 'Akelarre foc' ikuskizuna

Lekittoko Deabruak taldearen eskutik. Piroteknia musikarekin eta danbor doinuekin bateratzen dituzte emankizunean, eta herritarrik ikuskizunaren parte bihurtzen dituzte.
Hilaren 30ean, Kulturolan, 19:00etan.

OÑATI Oñatiko trenari buruzko bisita gidatua
Debalde.
Turismo Bulegoan, 11:00etan.

OÑATI 'Lehoiak Oñatin' ekintza
12:00etan, bisita gidatua Arrikrutzen, eta tailerra, berriz, 16:30ean, Turismo Bulegoan. Sarrerak, zortzi euro.
Arrikrutzen.

ARETXABALETA Karmele Igartua bekaren sari banaketa
Lan onena sarituko dute.
Arkupa, 12:30ean.

ANTZUOLA 'Gorputza eta hitza' egitasmoa
16 urteko pertsonen zuzenduta, 16:00etatik 18:00etara, dantza tailerra Arantza Iglesiarekin; eta 19:00etan, dantza proposamenak.
Torresoroan.

BERGARA Reyes Azkoitia pilota txapelketako finalak
Hainbat mailatako txapelkunak erabakiko dira.
Pilotalekuan, 16:00etan.

BERGARA Errekortari eskola
Bergarako Zezenzaleak taldearen eskutik. Orduetgia: 17:00-20:00.
Seminarioko patioan, 17:00etan.

ARAMAIO Lagun Artean dantza taldearen dokumentala aurkezpena
Dantza taldearen historia jasotzen duen lana.
Kultura etxean, 18:00etan.

ARETXABALETA Kalejira eta 'Giltzak' puzzlea
Aretxabaleako Sarearen eskutik.
Aretxabalean, 19:00etan.

ESKORIATZA Aggressive Combat taldea
Taldea arrasatearraren kontzertua.
Aldatz tabernan, 19:00etan.

ARRASATE 'Akelarre foc' ikuskizuna
Lekittoko Deabruak taldearekin.
Kulturolan, 19:00etan.

ARETXABALETA Gabonetako kontzertua
Aretxabalea Abesbatzaren eskutik. Lehenengo zatian Mozarten *Koroazio meza* abestuko dute, eta ostean, Gabon kantak.
Parrokian, 20:00etan.

DOMEKA 31

ARAMAIO Orixolera irteera
Urtea mendian bukatuko dute.
Kiroldegitik, 09:00etan.

ELGETA Bisita gidatua Intxortako frontea ezagutzeko
Izena emateko: 943-79 64 63 edo turismo@debagoiena.eus.
Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.

ARETXABALETA Gabon Kopa: finala
Irabazleak zehazteko azken partiduak.
Iturrigorri frontoian, 10:00etan.

ELGETA Pilota txapelketako finalak
Herriko txapelketako finalak. Ondoren, sari banaketa.
Pilotalekuan, 10:30ean.

ESKORIATZA XIV. Silbestradie
11:00etan, haurren lasterketarako izen-ematea; 12:00etan, haurren lasterketa; 12:30ean, txistor-jana; 17:00etan, helduen lasterketarako izen-ematea; 17:30ean, helduen lasterketa; eta 18:00etan, luntxa.
Fernando Eskoriatza plazan.

ARETXABALETA 'Giltzak': Kurtzebarritik plazara
11:00etan, tontorrean talde-argazkia; eta 19:00etan, urteko azken elkarretaratzea
Aretxabalean.

ARRASATE Arrasate Musikaleko Bandaren kontzertua
Gabonetako emanaldia.
Amaia antzokian, 13:00etan.

ARRASATE Gabon zahar eguneko kontzertua
Arrasate Musikaleko Bandaren emanaldia, Goikobalu abesbatzarekin batera.
Amaia antzokian, 13:00ean.

OÑATI San Silvestre lasterketa
Izen-ematea: egunean bertan 15:00etatik aurrera, Foruen plazan. 16:00etan, gaztetxoena eta 16:30ean, nagusia.
Foruen plazan.

ARETXABALETA San Silvestre lasterketa
16:45ean, umeena; eta 17:00etan, helduena eta kirol egokitan dihardutenak.
Durana kalean, 16:45ean.

ARRASATE Txorbela Otxotea
Kalejira egingo dute, urtea ondo bukatzeko.
Arrasaten, 18:30ean.

ARETXABALETA Bizarzuriren desfilea
Umeei gozokiak banatuko dizkie.
Ibarra kiroldegian, 18:30ean.

OÑATI Musika banden kalejira
Musika Banda eta Banda Gaztea elkarrekin.
Foruen plazan, 19:00etan.

ASTELEHENA 1

OÑATI Urteberri festa gaztetxean
Urtea ondo hasteko.
Gaztetxean, 00:30ean.

BERGARA Gabon zahar karaokea
Irekia.
Kartzela zaharrean, 01:00etan.

MARTITZENA 2

ARRASATE Txikilandia
Orduetgia: 10:30-13:30 eta 17:00-20:00.
Uarkapen.

BERGARA Gabonetako jolas parkea
6 urtetik beherakoendako. Orduetgia: 11:00-14:00 eta 17:00-20:00. Goiz edo arratsaldeko sarrerak, bi euro.
Pilotalekuan.

ESKORIATZA 'Kotoizko elur panpinak' tailerra
3-12 urte artekoendako.
Ludotekan, 11:00etan.

ELGETA Gabonetako haur-parkea
Puzgarriak, ohe-elastikoak, jolasak...
Pilotalekuan, 16:00etan.

ARAMAIO 'Kangoo jumping' tailerra
12 eta 18 urte bitarteko gazteendako.
Kiroldegian, 17:00etan.

BERGARA 'Pin pang' ikuskizuna
Umerezko zirku ikuskizuna Xabier Larrearekin. Sarrerak, lau euro.
Seminariokoan, 18:00etan.

EGUAZTENA 3

BERGARA Ur-jolasak igerilekuan
Gaur, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoendako. Bazkideak, debalde. Gainerakoak, 4,10 euro.
Agorrosinen, 10:00etan.

ARRASATE Txikilandia 2024
Puzgarriak, ohe-elastikoak, jolasak, tailerrak... Orduetgia: 10:30-13:30 eta 17:00-20:00.
Uarkapen.

ARETXABALETA Gabonetako parkea
Puzgarriak, jolasak, tailerrak... 3-12 urte artekoendako. Orduetgia: 11:00-13:00 eta 17:00-20:00.
Kiroldegian.

BERGARA Gabonetako parkea
6 urtetik beherakoendako. Orduetgia: 11:00-14:00 eta 17:00-20:00. Goiz edo arratsaldeko sarrerak, bi euro.
Pilotalekuan.



GOIENA

DEBAGOIENA Errege Magoen bisita

Meltxor, Gaspar eta Baltasar bailarako herri guztietara joango dira neska-mutikoen gutunak jasotzera eta gozokiak banatzera. Hainbat laguntzailerekin joango dira.

Urtarrilaren 6an, herri guztietan.

BERGARA Itzalen antzerki laborategia

6 urtetik gorakoendako. Hiru aukera: 11:00etan, 12:30ean eta 17:00etan. *Seminarixoa.*

BERGARA 'Scape the museum' Seminarixoa

Izena emateko: 943-76 90 03. *Laboratoriumen, 11:30etan.*

ELGETA Gabonetako haur-parkea

Puzgarriak, ohe-elastikoak, jolasak... *Pilotalekuan, 16:00etan.*

ARAMAIO Disko-festa

Dj Anairekin. *Kiroldegian, 17:00etan.*

ESKORIATZA 'Ametsen lapurra' pelikula, krispetekin

3-12 urte artekoendako. *Ludotekan, 17:00etan.*

ESKORIATZA Sukaldaritz tailerra

Gaztetxoendako. *Gaztetxean, 18:00etan.*

ARRASATE Disko festa

Dj Erikekin. *Portaloian, 18:00etan.*

EGUENA 4**BERGARA Ur-jolasak igerilekuan**

Gaur, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoendako. Bazkideak, debalde. Gainerakoak, 4,10 euro. *Agorrosinen, 10:00etan.*

ARRASATE Txikilandia 2024

Puzgarriak, ohe-elastikoak, jolasak, tailerrak... Orduetgia: 10:30-13:30 eta 17:00-20:00. *Uarkapen, 10:30ean.*

ARETXABALETA Gabonetako parkea

Puzgarriak, jolasak, tailerrak... 3-12 urte artekoendako. Orduetgia: 11:00-13:00 eta 17:00-20:00.. *Ibarra kiroldegia, Aretxabaleta 11:00etan*

BERGARA Gabonetako parkea

6 urtetik beherakoendako. Orduetgia: 11:00-14:00 eta 17:00-20:00. Goiz edo arratsaldeko sarrerak, bi euro. *Pilotalekuan, 11:00etan.*

ARAMAIO Puzgarriak

Puzgarriak, ohe-elastikoak, jolasak... txikienen gozamenarako. Debalde. *Kiroldegian, 17:00etan.*

ARRASATE 'Aireportuan' ikuskizuna

Potx Eta Lotx pailazo taldearen eskutik. *Uarkapen, 18:30etan*

ARRASATE DJ emanaldi martxosoa

Gaztetxoendako. *Gaztetxean, 18:30ean.*

BERGARA Orfeoi Gaztearen emanaldia

Gabonetako emanaldia egingo dute. *Seminarixoa, 19:00etan.*

EGUBAKOITZA 5**BERGARA Txotxongilo tailerra**

Umeendako. Orduetgia: 11:00-13:00. Izena emateko deitu telefono zenbaki honetara: 943-76 90 03. *Laboratoriumen, 11:00etan.*

OÑATI Errege Magoen bisita

Parrokian egongo dira herritarrei harrera egiten. *Parrokian, 12:00etan.*

BERGARA Txokolate beroa

San Joxepekoen eskutik, Errege Magoak iristen diren bitartean. *San Martin plazan, 18:00etan.*

BERGARA Errege Magoen desfilea

Udal biltegia-Masterreka-Bideberri-Ibargari-Herrilagunak-Irala-Irizar-Barrenkale-San Martin plaza-Bidekurutzeta-San Pedro-Artekalea-Arruriaga-udal biltegia ibilbidea. *Bergaran, 18:00etan.*

BERGARA Errege Magoak Elosuan

Auzoko umeei egingo diete bisita, haien gutunak jasotzeko. *Elosu auzoan, 19:00etan.*

ESKORIATZA Ekialdeko Magoei ongietorria

Gutunak jasoko dituzte eta txokolatea banatuko dute. *Fernando Eskoriatza plazan, 19:00etan.*

OÑATI Bertso saioa

Andoni Egaña, Alaia Martin, Aitor Tatiegi, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus oholztan, Txinparta bertso eskolako gaiei erantzuten. Sarrerak, hamar euro -12 urtetik beherakoentzat, debalde-. *Zubikoan, 22:30ean.*

ZAPATUA 6**OÑATI 'Top zarzuela' kontzertua**

Musika bandaren denboraldirako bigarren kontzertua. Hainbat zarzuelaren piezak joko dituzte, *Gigantes y cabezudos* eta *La Boda de Luis Alfonso*, besteak beste. Aurretik, kalejira egingo dute. *Zubikoa pilotalekuan, 13:00etan.*

DOMEKA 7**BERGARA Xake txapelketa**

Partida azkarrekin jokatuko dute txapelketa. *Kartzela zaharrean, 16:00etan.*

ZINEMA**GASTEIZ****FLORIDA****El maestro que prometió el mar**

Egubakoitza eta zapatua: 21:15. Domeka: 18:45. Astelehena: 20:15. Martitzena: 16:30.

Trolls 3

Zapatua, domeka eta martitzena: 12:00.

Anatomía de una caída

Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 21:30. Domeka eta astelehena: 18:00. Martitzena: 18:00, 20:30.

La Navidad en sus manos

Egubakoitza: 19:15. Zapatua: 12:00, 19:15. Domeka: 12:00, 16:15. Astelehena: 18:00. Martitzena: 12:00, 18:45.

Ocho apellidos marroquis

Egubakoitza: 17:00, 19:15, 22:30. Zapatua: 12:00, 17:00, 19:15, 22:30. Domeka: 12:00, 16:30, 18:45. Astelehena: 18:15, 20:15. Martitzena: 12:00, 16:00, 18:15.

Wish: el poder de los deseos

Egubakoitza: 17:00, 19:00. Zapatua: 12:00, 17:00, 19:30. Domeka: 12:00, 16:00. Astelehena: 18:15. Martitzena: 12:00, 16:00, 18:45.

Wonka

Egubakoitza: 17:00, 19:30, 22:00. Zapatua: 12:00, 17:00, 19:30, 22:00. Domeka: 12:00, 16:00, 18:30. Astelehena: 18:00, 20:30. Martitzena: 12:00, 16:15, 18:45, 21:15.

Aquaman y el reino perdido

Egubakoitza: 17:00, 19:30, 22:00. Zapatua: 12:00, 17:00, 19:30, 22:00. Domeka: 12:00, 16:00, 18:30. Astelehena: 18:00, 20:30. Martitzena: 12:00, 16:15, 18:45, 21:15.

El libro de las soluciones

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:15. Domeka: 16:00. Astelehena: 18:00. Martitzena: 16:00, 18:15.

Femme

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:00. Domeka: 18:15. Astelehena: 21:00. Martitzena: 16:30, 20:45.

La trenza

Egubakoitza eta zapatua: 21:30. Astelehena: 20:00. Martitzena: 21:00.

Migracion. Un viaje patas arriba

Egubakoitza: 18:30, 20:30. Zapatua: 12:00, 18:30, 20:30. Domeka: 12:00, 18:15. Astelehena: 20:00. Martitzena: 12:00, 18:30, 21:00.

Migracion (euskaraz)

Egubakoitza, zapatua eta martitzena: 16:30. Domeka: 16:15. Astelehena: 18:00.

A fuego lento (jatorrizko bertsoan)

Egubakoitza eta zapatua: 21:30. Domeka: 16:00. Martitzena: 18:00.

Samsara

Egubakoitza eta zapatua: 21:30. Domeka: 18:15. Astelehena: 20:15.

Robot dreams

Zapatua, domeka eta martitzena: 12:00.

KRITIKA**Anatomía de una caída**

Zuz.: Justine Triet. Herr.: Frantzia (2023). Aktoreak: Justine Hüller, Swann Arlaud, Samuel Theis. **Iraupena:** 150 minutu.

★★★★★

Egiaraino heltzeko zailtasunak**ANTONIO ZABALA**

Anatomía de una caída filmak hasieratik lortzen du ikuslearen arreta, eta arreta hori filmaren bukaerara arte mantentzen da. Bertan, bikote baten harremanak eta haiek ikusmen arazoak dituen semearekin duten harremana ezagutzen joango gara, modu oso berezian. Gizona hil egingo da, eta zalantzak sortuko dira, bere buruaz beste egin ote duen edo emaztea ote den hiltzailea. Poliziaren ikerketaren bidez -lortzen diren probak, egiten diren susmoak...-, epaiketan egindako deklarazioen bitartez, eta hortik kanpo, pertsonaiek dituzten elkarrizketa eta portaeren bitartez, ikusle bakoitzak bere filma osatzen du. *Anatomía de una caída* filmak iruditik kanpo gertatzen

denarekin jokatzeko du. Ez dugu ikusten heriotzaren uanean gertatutakoa, baina, ikusten eta entzuten dugunaren arabera, gertatutakoaren interpretazioa egin behar dugu. Egiaraino heltzeko dauden zailtasunak ikusiko ditugu.

Bikoteen arteko harremanetan gogo-aldarte eta sentimendu desberdinak nahasten dira. Elkarbizitzagatik, gauzei edo ilusioei uko egiten zaie, eta, askotan, inbidia, frustrazioak edo gorroto ezkutak sortzen dira. Zaila izaten da gizakia guztiz ezagutzea, ezberdinak garelako. Eta Justine Triete zuzendariak, anbiguotasunarekin maisutasunez jokatu, oso proposamen originala, bihurria eta zirrargarria lortzen du.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Adio, Ander

Urtea bukatzen ari den honetan gure artetik joan zara, Ander. Zure 56 urteetan gorriak pasatakoa zara, zure desgaitasunak aurrera egin zuen ahala. Zurekin eskolan ibilitakoek ondo gogoratzen dute institutuko eskailerrak nola igotzen zenituen makuluekin, orduan ez baitzen irisgarritasuna kontuan hartzen. Bazirudien baldintza okerretan zinela helburu asko lortzeko, baina zure inteligentziak, lanerako gogoak eta zure burua garaile ikusteko adoreak alboan utzi zituzten ezintasun fisikoak.

Burua bakarrik ez zen zure motorra, bihotza ere bai. Familiak eta lagunak maitasunez inguratu zaituzte beti, oso eskuzabala zinelako, sekula kexurik ez zenuelako. Barre eta irribarre ugari ere eginarazi diguzu zure umore eta ateraldiekin. Zure lorpenik handiena familia sortzea izango zen, seguru aski; emazte eta Ane alabaz zein harro zinen!

Zeruan distira handiena duen izar bihurtu zara, eta egiezu argi desgaitasunez bizi diren guztiei, haiek ere pertsona normalak baitira, zerorrek erakutsi diguzun bezala.

Muxu, Ander, egun handira arte!

BUKATZEKO



Sarituak izan diren hiru azalak. GOIENA

Europaren aitortza jaso du 'Puntua' aldizkariak

'Puntua' aldizkariako hiru azalak European Newspaper Award-etako toki komunikabideen azalen kategorian sari nagusia eraman dute. Iazko edizioan bi azal izan ziren sarituak; aurten, berriz, "sari-sorta osoa" eskuratu dutela jakinarazi dute

Iñigo Barrena ARRASATE
Ostiralero Goienakide diren bezeroek esku artean izaten duten 'Puntua' aldizkariak Europa mailako errekonozimendua jaso berri du, European Newspaper Award-etan. 2023an kaleratu diren 'Puntua' aldizkariako hiru azalak, Europako toki komunikabideen kategorian, sari nagusia jaso dute. "Europa mailan dagoen lehiaketa handiena da hau eta komunikabide handienak aurkezten dira. Guk tokiko hedabideen kategorian lehiatzen dugu, beraz, eta errekonozimen-

du garrantzitsua da" dio Iñaki Iturbe GOIENAKo diseinu arduradunak

Saritutako azalak
Puntua aldizkariaren 372, 371 eta 354 zenbakietako azalak izan



Lehiaketaren ikurra. GOIENA

dira hain zuzen saria jaso dute-nak. Lehenengoari dagokionez, Lgtbi kolektiboak saretzen ari zenaren erreportajea zekarren bere barnean, eta hori irudikatzen, azalean Lgtbi kolektiboaren banderako koloreekin egindako sare bat jarri zuten azalean. Bigarren zenbakian, aldiz, Basurdeen gainpopulazioaren gaia landu zuten, aldizkariak dituen bazter zurieta zein izenaren gainean basurdeak jarritz, gainpopulazio hori irudikatzen. 371. zenbakian Erretinako distrofia hereditarioaren gaia jorratu

zuten aldizkarian, eta, hori irudikatzen, tituluaren gainean orban beltz bat jarri zuten, gaitz hori duten pertsonen titularra nola ikusiko zuten jakiteko. "Hain zuzen, sarituak izan diren hiru azalak, antzekotasun asko dituzte, hiruak baitira kontzeptu baten bueltan egindakoak. Esaterako, basurdeen azalaren kasuan, gainpopulazioa irudikatzen bazterrek bete dira. Elementu grafikoekin jolastu da kontzeptu bat transmititzeko" dio Iturbek.

Sari hau jaso izanak etorkizunera begira diseinu taldearentzat lanean jarraitzeko "motibazioa" ematen duela ere adierazi du: "Badira astean zehar astunagoak diren lanak, eta horrelako albisteak heltzen direnean eragina izaten du gauzak ondo egiten jarraitzeko". aitortu du GOIENAKo diseinu arduradunak.

Aurrekariak sariketa berdinean
Goienako diseinu taldeak egiten duen lan onaren seinale da lehiaketa ezberdinetan lortutako sariak, baina oraingoetara etorrira, ez da lehen aldiz 'Puntua' aldizkariak European Newspaper Award-etan errekonozimendua jasotzen duela. Aurten hiru izan dira, baina iaz ere, kategorian berdinean, aldizkariaren bi azal izan ziren sarituak. Honez gain, duela hogeita urte, Goiena aldizkariak, toki komunikabideen artean, ondoen diseinatutako saria eskuratu zuen, eta Iñaki Iturbek aitortu du sari hori lortzea "handia" izan zela.



Puntua aldizkariaren zenbakiak ikusteko, eskaneatu QR kode hau telefonoarekin.

'BIXI IBILI!'

GOIENA TELEBISTA
ABENDUAREN 26AN, MARTITZENA, 19:30, 21:30 ETA 23:30
DENBORALDIKO AZKEN SAIOA, LEINTZ GATZAGATIK



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.

